

LEZOKO UDALA

HIRI ANTOLAKETAKO PLAN OROKORRA

***INGURUMENAREN ERAGINAREN BATERAKO
EBALUAZIOAREN AZTERKETA***

MUNICIPIO DE LEZO

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN DE LEZO

***ESTUDIO DE EVALUACIÓN CONJUNTA DE
IMPACTO AMBIENTAL***

HASIERAKO ONARPENA / APROBACIÓN INICIAL

Noviembre – 2009 - Azaroa

Estela Beteta Merino
Leire Beteta Merino

AURKIBIDEA

1. PLAN OROKORRAREN HELBURU ESTRATEGIKOEN ETA HELBURU HORIEK LORTZEKO AUKEREN DESKRIPZIOA	2
1.1 Jardun-eremuaren deskripzioa eta Plan Orokorra betetzeko denbora	2
1.2 Plan Orokorren helburu eta antolamendu irizpideak	2
1.3 Garapen berrietarako hautatutako alternatibak	4
1.4 Memoriaren proposamen eta ekintzen laburpena	5
1.5 Ingurumenaren inguruko proposamenak	7
1.6 Hierarkikoki goragoko mailakoak diren planen zehaztea	10
1.7 Kalteak eragin ditzaketen jarduerak	12
2. BESTE PLAN EDO PROGRAMEKIKO LOTUREN AZTERKETA	14
2.1 Hierarkikoki goragoko mailakoak diren plan edo programen ondoriozko jarraibide eta irizpideak	14
2.2 Bestelako administrazio xedapenak eta ingurumenaren inguruko legedia ...	29
2.3 Azterketan eragina duten beste hainbat plan	30
3. PLAN OROKORRAREN ERAGINA DUEN INGURUMEN ESPARRUAREN AZTERKETA, DIAGNOSTIKOA ETA BALORAZIOA	42
3.1 Azterketa-eremuaren definizioa	42
3.2 Natur baliabideen aprobeixamenduaren eta lurzoruen gaur egungo erabileren deskripzioa	44
3.3 Plan orokorraren eragina izan dezaketen ingurumen aldagaiak	48
3.4 Inguruko ingurumen baliabide baliotsuak	49
3.5 Inguruaren kalitatearen hainbat alderdiren balorazioa	53
3.6 Lurraldeko ingurumen unitate homogeneoak	54
3.7 Plan Orokorren xede den eremuaren ingurumen diagnostikoaren ondorioak	55
4. TEKNIKOKI ARRAZOIZKOAK DIREN AUKEREN INGURUMEN AZTERKETA. AURKITUTAKO KONPONBIDEAREN JUSTIFIKAZIOA	58
4.1 Aukera bakoitzeko jardueren definizioa	58
4.2 "0 Aukera"	58
4.3 Aukerak baloratzeko ingurumen irizpideen deskripzioa	58
4.4 Aukerak eragindako inpaktu nagusien deskripzio eta balorazio orokorra ...	59
4.5 Lurzoruen hartze-gaitasuna garapen urbanistiko berrientzako	59
4.6 Hautatutako konponbidearen justifikazioa. antolamendu-ereduaren balorazioa	60
5. JARDUEREN ERAGINEN IDENTIFIKAZIO ETA BALORAZIOA	64
5.1 Plan Orokorren helburuek ingurumenean izan ditzaketen eragin azterketa	64
5.2 Plan Orokorren jarduerak izan ditzaketen eragin identifikazioa eta balorazioa	64
6. NEURRI BABESLE, ZUZENTZAILE ETA KONPENSATZAILEEN INGURUKO PROPOSAMENA	77
6.1 Udalerriz gaindiko planen neurri babesle, zuzentzaile eta konpentsatzaileak	77
6.2 Proposatutako jarduerak ingurumenean duten eragina saihesteko edo gutxitzeko neurri zehatzak	78

6.3 Balio handieneko natur baliabideak babesteko neurri babesle eta zuzentzaileak.....	80
6.4 Bizitegi berrietako hiri-ingurumena hobetzeko neurriak	81
7. PLAN OROKORRAREN EFEKTUAK IKUSKATZEKO PROGRAMA	83
7.1 Kontrolaren helburuak	83
7.2 Ingurumen aldagaien identifikazioa eta jarraipen metodologiaren deskripzioa	83
7.3 Ikuskatze, zaintza eta informazio programen diseinua	85
8. LABURPEN DOKUMENTUA	86
8.1 Plan Orokorraren helburu estrategikoen eta helburu horiek lortzeko aukeren deskripzioa.....	86
8.2 Beste plan edo programen loturen azterketa	90
8.3 Udalerriaren azterketa, diagnostikoa eta bolorazioa.....	92
8.4 Teknikoki arrazoizkoak diren aukeren ingurumen azterketa. aurkitutako konponbidearen justifikazioa	94
8.5 Plan Orokorraren jardueren eraginaren identifikazio eta bolorazioa	97
8.6 Neurri babesle, zuzentzaile eta konpentsatzaileen inguruko proposamena	101
8.7 Plan Orokorraren efektuak ikustatzeko programa	104
9. ERANSKINAK	106

Lezoko Hirigintza Antolamenduko Plan Orokorra idazteko lanaren esleipendun Estudio de Arquitectura RM, SL-ren eskariz egin da azterketa hau.

Enpresa esleipendunak Estela Beteta Merino eta Leire Beteta Merino Ingurumen Zientzietan lizentziadunei eskatu die Ingurumenaren gaineko Baterako Ebaluazioa idaztea, *EAEko Ingurumena babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Legearen* eta prozedura hau arautzen duen *uztailaren 22ko 183/2003 Dekretuaren* ebazpenak betetzeko. Estudio de Arquitectura RM, SL-k lagundu du txosten honetako kartografia egiten.

Lezoko Hirigintza Antolamenduko Plan Orokorren Aurrerapen faseari dagokion Ingurumenaren gaineko Baterako Ebaluazioa 2008ko uztailarean 17an onartu zen, eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusira bidali zen Ingurumen Eraginaren Aurretxostena igor zezan. Era berean, jendaurrean jarri zen interesatua egon zitekeen publikoak iradokizunak egin zitzaten.

Orain aurkezten den dokumentu honek Aurrerapen fasean aurkeztutakoaren estruktura bera mantentzen du, Gipuzkoako Foru Aldundiak egindako Ingurumen Eraginaren Aurretxostenean ezarritako zuzentzaileak eta jendaurreko informazio epetik ondorioztatutako aldaketak erantsiz. Edukiari dagokionez, ingurumenari eragindako ondorioak ebaluatzeari buruzko 2006ko apirilaren 28ko 9/2006 Legeak ezarritako zehaztapenak erantsi dira.

1 PLAN OROKORRAREN HELBURU ESTRATEGIKOEN ETA HELBURU HORIEK LORTZEKO AUKEREN DESKRIPZIOA

1.1 JARDUN-EREMUAREN DESKRIPZIOA ETA PLAN OROKORRA BETETZEKO DENBORA

Lezoko Plan Orokorrak udalerrri osoa hartzen du, 846,55 hektarea. Herria Oarsoaldeko eskualdean dago, Donostia-Bidasoa Beherea Eskualde Egituran. Pasaiarekin egiten du muga iparraldean, Errenteriarekin eta Oiartzunekin hegoaldean, Hondarribiarekin ekialdean, eta Pasaiako Badiarekin, berriz, mendebaldean.

Planeamendu hau zortzi urtean egongo da indarrean.

1.2 PLAN OROKORRAREN HELBURU ETA ANTOLAMENDU IRIZPIDEAK

1.2.1 Helburu orokorrak

Lezoko Plan Orokorra garatzeko oinarrizko helburuak definitzeko, Aurrerapenaren onarpenean Udalak zehaztutakoa eta Tokiko Agenda 21a ezartzean izandako helburuak hartu dira kontuan.

Hona hemen helburu orokorrak:

- Antolaketa urbanistikoak energia berriztagarrien erabilera eta ustiapena, eraginkortasun energetikoa, hondakinen produkzioaren murrizketa eta natur baliabideen aurrezpena bultzatuko ditu.
- Lurzoruaren natur baliabideak babestuko dira, bai produkzio balioarengatik bai hiri-garapen sostengarriaren tokiko estrategiarentzako erreferentzia direlako, lurzoruaren okupazioa murriztuz eta urbanizazioaren hedapena inguru naturalean saihestuz.
- Motordun ibilgailuen erabilera behartua eta beharrezkoa ez dena murriztuko da, hala nola ingurugiroarekin bateragarriagoak diren garraiobideengatik aldatuz, eta erabilera konbinatuaren plangintza sustatuz (oinezkoa, bizikletaz, garraio publikoa).
- Hazkunde ez garapengarria eta sustatzailearen hipotesiak bultzatuko dira, egiazkoak diren eskatutako beharrei erantzuna emanez, aldez aurretik erabiliak dauden lurzoruak berreskuratzen hiri-birgaitze jardueren bidez, hiri-segregazio eta sakabanatzea eragotziz.
- Hutsik dagoen bizitegitarako ondarea berreskuratzea eta merkaturatzea, eta dauden eraikinen birgaitzea lehenestera joko da.
- Lezori Donostialdea- Bidasoa Beherea Eremu Funtzionalean emandako udalez gaindikoa plangintzaren rola muga batzuekin onartzea.

- Ekimen publikoari lehentasuna ematea, etxebizitzaren sustapenari eta jardura ekonomikoetarako lurzoruari dagokienez
- Defizitak berrekipatzea eta orekatzea, hornidura gaitan.

Helburu horien artetik, ingurumenari dagozkionak azpimarratuko ditugu jarraian:

- Energia kontsumoari eta hondakinen sorrerari dagokionez: *energia berriztagarrien erabilera, eraginkortasun energetikoa eta hondakinen produkzioaren murrizketa bultzatzea.*
- Mugikortasun jasangarriari dagokionez: *ingurumena eta paisaiaren gaineko eraginaren murrizketa.*
- Baliabide mugatua den aldetik, lurzoruari dagozkionez: *lurzuaren okupazioaren arrazionalizazioa eta ekonomizazioa, eta lehendik erabilitako lurzuak berreskuratzea.*
- Natur inguruari eta paisaiari dagokienez: *natur inguruaren eta paisaiaren kontrako inpaktuak mugatzea.*

1.2.2 Ordenazio irizpideak

Helburu orokorrak kontuan hartuta, honako ordenazio irizpide oinarriko hauek proposatzen ditu, labur-labur, Plan Orokorren txostenak:

1. Bizitegitarako eta ekipamendurako erabilerak Zubitxo errekaaren arroan garatuko dira, muga Urrulloko gaina izanik.
2. Jaizkibel mendiaren magalen okupazioaren alternatiba bezala, eta bizitegitarako garapenak ziurtatzeko, Algeposa enpresak betetzen duen lursailaren okupazioa behar da, udalerraren ekialdera lekualdatzen dena.
3. Zeharreko bide-ardatz bat sortzea GI-2638 errepidearen eta N-1 errepidearen artean, jardura industrialarekin lotutako trafikoa birbanatzeko, hiri-gunetik pasa ez dadin.
4. Gipuzkoako Foru Aldundiak 2005ean idatzitako "Nuevo Estudio Informativo de una Variante de la Carretera N-1 entre Erretería y Gaintxurizketa" proiektuaren "Hegoaldeko Alternatiba" aukeratzen da, Lezoko udalbatzak kostu ekonomikoak eta ingurumen gaineko eraginak murriztagoak izateagatik hautatu zuena.
5. Donibaneko errepidearen trazadura berriz planteatzea, hirigunea eta ekipamendu-eremua bizitegietatik bereizten baitu. Errepide hori portu-hirigunera eramanez gero, berriz diseinatu beharko dira hori eta bi pieza horien arteko tartea (Polentzarrene).
6. Gaintxurizketako triangeluaren garapen industrialaren inguruko proposamena bertan behera uztea (udalerriaz gaindiko planeamenduaren zehaztu gabe baitago); Algeposa enpresa lekuz aldatzeko (lehen fasean) partzialki bakarrik okupatzea utziz, baita udalerrian dauden beste industria batzuen handitzea ere.

7. Hiri gunearen inguruan aisialdiarentzako natur eremuak sortuko dira, hauekiko eskuragarritasuna sustatuz.
8. Mugikortasun Jasangarriko Plana egingo da, trafiko guztien –motorezkoa, oinezkoa, bizikletazkoa- antolaketa ahalbidetuko duena, eskualdearen mugikortasunaren azterketaren baitan.
9. Irizpide orokorra, landa eta baso balio gehien duten lurzoruen babesaren izango da, nekazaritza eta abeltzaintzaren erabilerak bultzatuz, eta nekazal ustiapen arrunten ordezkioak sustatuz.
10. Habitat naturalen babesaren, bereziki balio handiekin dutenena, hala nola Lehentasunezkoak diren Batasunerako Interesa dutenak, GKL Jaizkibel-ez gain.
11. Tokiko barrendegi naturalen arteko lotura sustatzea, korridore ekologikoen sormenaren bitartez.

1.3 GARAPEN BERRIETARAKO HAUTATUTAKO ALTERNATIBAK

Arau Subsidiarioen aurrerapenean, industria eta etxebizitzak ezartzeko hainbat aukera agertzen ziren.

Industria berriei dagokienez, horiek Sagastiberri industrialdean ezartzea proposatzen zuen txostenak, bai eta industrialde hori hedatzea edo Gaintzurizketako trianguluan beste industrialde bat sortzea ere. Bi kasu horietan, 10 hektarea ingurukoa zen azalera; azken hori 14 hektareakoa bada ere.

Bizitegi berriei dagokienez, horiek Zubitzoko errekan ezartzea proposatzen dute Arau Subsidiarioen ordenazio-irizpideek; jarduera horiek lur artifizializatuak leheneratzea dute helburu, hirigunea finkatuta eta ingurumen inpaktuak minimizatuta. Horrela, "Zelai", "Algeposa" eta "Maintzine" HIE hirigintza-jarduerarako eremuak proposatzen ziren, "Arraitoki" eta "Olatzar" eremuetan bi aukerarekin osatuta; bi aukera horiek Portuko Agintaritzaren akordioaren arabera izanik.

Aurrerapen faseari dagokion jendaurreko informazio epearen ondoren, eta herritar eta gizarte-eragileek egindako iradokizunak jasota, Udaletxeak 2009ko maiatzaren 20an iradokizun haien ebazpena eta planeamenduaren irizpide eta helburuak onartu zituen. Aurrerapen fasean ikertutako alternatibei dagokionez, hurrengoak jaso da:

- Bizitegiarako garapenak: "1. Hautabidea (Arraitoki) baztertzen da, Portu Agintaritzarekin adostasun eza delarik, eta 2. Hautabidea (Olatzar) proposatzen da gaur egungo egoerarentzat proposamen egokiena bezala, Aurrerapenean planteatutako ustiapen berdinekin eta jarduera eremua errekaraino hedatuz".

- Jarduera ekonomikoak: "1. Hautabidea baztertzen da, zeinean Sagasti Berri industria garapen proposamena bezala kalifikatzen zen, eta 2. Hautabidea (Gaintzurizketa) egokitzat hartu da, ingurumen eta egituraren gaineko eraginak maila txikiagoak direlako".

Hurrengo atalean hasierako onarpenerako Memoriaren dokumentuaren proposamenak laburbiltzen dira.

Hautabide bakoitzaren ingurumenaren gaineko ondorioen analisi zehaztza eta hautabide desberdinen arteko alderaketa, aldiz, Aurrerapen faseari dagokion Ingurumen Eraginaren Baterako Ebaluaziaren Azterketaren 4. atalean burutzen da.

1.4 MEMORIAREN PROPOSAMEN ETA EKINTZEN LABURPENA

Plan Orokorren Memorian, xehetasun osoz deskribatu dira ekintza proposamenak; horien laburpena da jarraian datorrena.

1.4.1 Bizitegitarako lanak

- H.A.E. 11 Isasti: hiri-egituraren birantolaketa, eremu publikoen hornidura eta bideen hobekuntza. Udal erregimenaren bidez tasatutako babes ofizialeko 16 etxebizitzeen garapena. Guztira 4.024 m²ko azalera.
- H.A.E. 13 Marrukene: 8 Poligonoaren biziberritzea, azpiestazio elektrikoaren (Sagardi Malda eremura) eta industri jardueren lekuz aldatzea, eta 176 etxebizitzeen garapena, %50 babes ofizialekoak eta besteak libreak. Azalera, guztira 15.418 m².
- H.A.E. 14 Algeposa 1: 6 Poligonoko industria-lurzorua birsailkatzea; horretarako, beste leku batera eraman behar da industria jarduera (H.A.E. 36 Gaintxurizketa eremura). Leku estrategikoa (Zubitxoko erreka eremua) da, bizitegitarako aproposa. Azalera, guztira: 41.712 m², gehi 25.412 m² Xoxolurra eremuan, gune libretarako. Gehienez 300 etxebizitza egitea proposatu da: %50 babes ofizialekoak.
- H.A.E. 17 Maintzine: garatu gabe dagoen 10 Poligonoaren (hirigunea) betetzea. 26 etxebizitzeen (%50 babes ofizialekoak) garapena. Azalera guztira: 1.860 m².
- H.A.E. 6 Olatzar: bizitegiaren garapenerako urbanizaezinak diren lurzoruen birsailkatze proposamen bakarra. Gaur egungo hiri-bilbeari jarraituz eta futbol zelaiaren eta hilerriaren ondoan dagoen eremua. 120 etxebizitza proposatzen dira (%20a pribatua). Azalaren barne 8.428 m²ko eremua gune libreentzako izango lirake. Azalera guztira: 28.705 m².

1.4.2 Jarduera ekonomikoak

- H.A.E. 27 Larrañaga: hirugarren sektoreko erabilerarako sustapen publikoko garapen berriak. Azalera guztia 3.202 m².
- H.A.E. 38 Gaintxurizketa: "Gaintxurizketako triangelua" izenekoaren hegomendebaldean (Lezoren ekialdea) 134.104 m² inguru hartzea proposatzen da; eremu horrek haltzadia babesteko eremuarekin egingo luke muga mendebaldean; eta berriz sailkatu beharreko azalera horretan gaur egungo babes eremua eta lotune berriak sartuko lirake. Lur horiek Algeposaren instalazioak hartuko dituzte batetik (4 hektarea), horren lekuan bizitegiak egiteko, eta bestetik hirigunean dauden beste industria instalazioak eta poligonoetan dauden jardueren handitzea.

Bestalde, "Modificación Nº27 de las NNSS del municipio de Lezo referida a la clasificación y calificación de suelo urbanizable industrial para la ampliación de las instalaciones de Papresa S.A.U." tratimaten ari da, 2009ko uztailaren 3an Lezoko Udaletxeko oso bilkuran onartua izan zena. 81.900 m²ko lurzoru urbanizaezinaren birsailketa proposatzen da Papresa-ren handitzearentzat, Errenteria herriaren erdialdean kokatzen den enpresa. Egun aurrera eramaten ari den tramitazioak proposamenaren ingurumen ebaluazio estrategikoa barne hartzen du, eta beharrezkoa den ingurumen eraginaren baterako ebaluazioa proiektu honen arduradun diren enpresek burutzen ari dira.

1.4.3 Garraibide sistema

Helburu nagusia portutik eta industrialdeetatik datozen trafikoa desbideratzea da, Lezoko hiri-gunetik pasatzea saihesten. Horretarako honako ekintzak proposatzen dira:

- H.A.E. N.1 – GI2638 Bide-lotunea. Lanbarren-en biribilgunearen pareko bide-lotunea bi bide hauek lotzeko eta N-1 errepidetik udalherriaren industrialdeetara sarbideak errazteko, hiri-gunetik trafikoa saihetsiz. Azalera guztira: 32.464 m² (urbanizaezina bezala sailkatua).
- H.A.E. 22 Bariantea. Pasai Donibanera doan errepidea portuaren mugetaraino mugitzea proposatzen da, trafiko guztia Jaizkibel Etorbidetik pasa ez dadin, hiri-gunetik eta herriaren beste eremu guztiaren arteko oinezko igarotzea saihesten duelako. Izartu II Planaren baitan aztertutako alternatiba da, eta bere definizio eta zehaztasuna Portu Agintaritza eta Foru Aldundiari dagokie.

Bestalde, Memoriaren dokumentuak N-1 errepidearen zabaltzea aipatzen du, Gipuzkoako Foru Aldundiak 2005ean idatzitako "Estudio Informativo de una Variante de la Carretera N-I entre ERRETERIA y GAINTXURIZKETA"-an ikertutako hautabide desberdinen artean "Hegoaldeko Hautabidea" aukeratuz, denetik ingurumen eragin txikiagoa eta giza eta inguru-irizpideak kontuan hartuta jasagarria delako.

Motorizatu gabeko trafikoei dagokienez, Foru Aldundiaren bide-gorri Sarearen aurreikuspenak eta Oarsoaldea Eskualderako Garapenerako Elkarrekin sustatutako proposamenak (Lezo – Pasai Donibane arteko bidegorria) barneratzen dira. Halaber, oinez eta bizikletaz erabiltzeko bide berria proposatzen da (espaloia eta bidegorria), Lezoko hirigunetik Gaintxurizketaraino.

1.4.4 Ekipamendu komunitarioa

- Kultura: Kultur Etxea "Pildain Eskola" zaharretan.
- Gizarte-laguntza: gutxienez 50 zuzkidura-bizitokiak Kabiten.
- Kirola: aparkalekuak eta kiroldegia handitzea Arraitokin¹, eta Altamirako udal-igerilekuen handitzea.
- Irakaskuntza: Herri Eskola eta Haur Eskolaren (azken hau Kabitten) handitzea, eta Institutuaren lekuzaldatzea Altamiratik Arraitokira, behin eremu honen desfektazioa egin delarik.

¹ Dagokion fitxan, H.A.E. 26 Arraitoki Portuko Sistema Orokorra bezala sailkatzen da, Portuaren Zerbitzu Eremuaren barne dagoen eremua da eta. Alabaina, eremu hau desfektatzearen aukera aurreikusten da, eta kasu honetan esparrua Ekipamendu Komunitarioko Sistema Orokorra bezala sailkatuko litzateke, esandako proposamenak aurrera eramanez.

- Osasuna: Kabiteko osasun etxea lekualdatu eta handitzea.

1.4.5 Zerbitzu azpiegiturak

Energia elektrikoaren sareari dagokionez, ekintza proposamen berria beazla, egun Marrukene eremuan aurkitzen den azpiestazioa Sagardi Malda gunera lekualdatzea da nagusi, hilerriaren ondora. Goi-tentsioko linea lurperatzea aurreikusten da.

1.5 INGURUMENAREN INGURUKO PROPOSAMENAK

1.5.1 Lurzoru Urbanizaezinaren sailkapena

Lurzoru Urbanizaezinaren kategoriei dagokionez, Aurrerapenean egindako proposamenari aldaketa batzuk egin zaizkio, Gipuzkoako Foru Aldundiak idatzitako Ingurumen Eraginaren Aurreko Txostenean adierazitakoa barne.

Beraz, honako hauek dira lurzoru urbanizaezina antolatzeko zehaztutako kategoriak:

- Babes Berezia: udalerriko natur balio handiena duten eremuak hartzen ditu.
 - Jaizkibelgo erabilera publikoko mendiak (EPM)
 - Apaiztarta erreka eta Batxillerbordako erreka haltzadia (lehentasunezko bi habitat daude bertan)
 - Hariztiak eta baso mistoa (Xoroxolur eta Bakarraigetikoko ibarbideak)
- Basoa: Nekazaritzarako balio gutxien duten lurrak eta Nekazaritza eta Basogintza LPSean "baso" gisa agertzen diren eremuak hartzen ditu. Bi azpikategoria bereizten dira:
 - Kontserbazio Basoa: Jaizkibel mendiaren hegoaldeko magalean dauden %50 baino malda handiago duten lurzoruak hartzen ditu.
 - Baso Ekoizlea:
 - Jaizkibel mendiaren hegoaldeko hegala, %50 baino malda txikiagoekin
 - Gaintxurizketa Errekaldeko baso-eremua
- Nekazaritza-Abeltzaintza eta landazabala: bi azpikategoria bereizten dira, Nekazaritza eta Basoak Antolatzeko LAPak adierazitako zonifikazioa ezarriz:
 - Balio Estrategiko Altua: azpikategoria honen barne Nekazaritza ekologikorako eremua hartzen da, Lezoko hirigunea Algeposaren eta Sagasti industrialdearen artean kokatzen dena.
 - Transiziozko Landa Paisaia
- Ingurumen Hobekuntza: Jaizkibelen hegoaldeko magalean kokatzen den amezti (*Quercus pyrenaica*) hondatu eremu bat barneratzen da
- Lurrazaleko uren babes eremua: lurzoru urbanizaezineko erreketako ibai-ibilgu eta ibaiertz guztiak sartzten dira, eta ibilguaren alde banatan 10 metroko babes-eremua ezarri da.

Honako faktore baldintzatzaile hauek ere badituzte kategoria hauek: Jaizkibel GKL, korridore ekologikoa, akuiferoen kutsadura jasan dezaketen eremuak, %30etik gorako aldapa duten eremuak eta eremu akustikoak.

1.5.2 Eremu eta habitat naturalak

Plan Orokorrek Jaizkibel GKL Garrantzi Komunitarioko Lekuaren mugak eta Natura 2000 Sarearen ondorioz dagokion babesak bildu ditu memorian eta grafikoetan. Lurzoru urbanizaezina antolatzeke kategoriei erantsitako faktore baldintzatzaile gisa ageri da gainera, Sare horretan sartzeko aintzat hartutako natur balioak babestuko direla ziurtatzeko.

GKLaz gain, balio handiagoko habitatak ere babesten dira, 92/43 EEE Zuzentzarauak Lehenetsuneko Interes Komunitariokotzat hartzen dituenak, besteak beste. Lezok halako bi habitat ditu: Haltz beltz (*Alnus glutinosa*) eta lizar arrunt (*Fraxinus excelsior*) baso alubialak (91E0* kodea) eta larre lehor seminaturalak (6210* kodea). Habitat horietako asko Babes Bereziko Lurzoru Urbanizaezin kategorian daude.

Udalerriko bi baso misto nagusiak ere babesten dira Babes Bereziko Lurzoru Urbanizaezin kategorian horren bitartez, Xoroxolur eta Bakarraitzege ibarbideetakoak.

1.5.3 Korridore ekologikoak

Memoriaren dokumentuak udalerriko korridore ekologikoaren zati handi bat finkatzen du, udalerriarekin muga egiten duten bi naturgune handiak (Jaizkibel eta Aiako Harria) eta tokiko naturguneak lotzeko funtzioa ematen diolarik.

Korridore hori Eusko Jaurlaritzak Jaizkibel-Aiako Harria korridoreko indargetze eremu deitutakoarekin egiten du bat, hein batean, eta udalerraren hegoalderantz hedatzen du Altamirako bizkarretan barrena.

1.5.4 Landazabala

Plan Orokorren proposamenean garrantzi handia ematen zaio Lezoko landa-paisaia babesteari, udalerraren nortasunaren ezaugarri baita. Lurzoru urbanizaezina antolatuta, "Nekazaritza-Abeltzaintza eta Landazabala kategorian" ezarri da, eta Lezoko landa eremua osatzen duten ibarbide eta bizkarrak barnehartuz.

1.5.5 Ibai-ibilguak

Udalerriko erreketako ibilgu eta ibaiertz guztiak hartu dira aintzat, eta lurzoru urbanizaezineko "Lurrazaleko uren babes eremu" kategorian ezarri da horientzat.

Ibilguaren alde bakoitzean 10 metroko babes-eremua ezarri da, eta, bertan, ibaiertzen berezko baldintzak eta ibaiertzeko landaredia zaindu, eta hondatutako ibaiertzen biziberritzea sutatu beharko da.

1.5.6 Mugikortasun iraunkorra

Memoriaren dokumentuak bidegorri sare bat osatzea proposatzen dute, Lezoko herritarrek udalerrian eta inguruko herrietan oinez edo bizikletaz ibil daitezten. Batetik, Lezo Errenterierekin eta Pasai Donibanerekin lotzea planteatzen da;

bestetik, berriz, espaloi eta bidegorri bat ezartzea Lezo-Gaintxurizketa errepidearen iparraldetik CN-1eraino, hortik hegoaldera desbideratuta Gaintxurizketako leporaino iritsiko litzatekeena.

1.5.7 Gune libreen sistema

Proposamenik esanguratsuen H.A.E. 5 Xoxolurra eremuaren (25.570 m²) definizioa da. Balio "estrategikoko" lekua da, hirigunearen eta Jaizkibelgo babes handieneko eremuen artean baitago. Xoxolurreko eremu horrekin mugan, hain zuzen ere, Babes Bereziko Lurzoru Urbanizaezin kategoriko baso misto bat dago.

Xoxolurra eremuaz gain, H.A.E. 6 Olatzar barne 8.428 m² eremu libreen ornidurarentzat gordetzen dira, Xoxolurraren alboan kokatzen direnak, eta era honetan udalerraren eremu berde handiena sortuz.

4.6 "Hautatutako konponbidearen justifikazioa. Antolamendu-ereduaren balorazioa" atalean Plan Orokorren eremu libreen sistema orokorraren zuzkiduraren azterketa egiten da.

1.5.8 Natur eta landa inguruarekin zerikusia duten beste hainbat proposamen

Memoriaren txostenak inguru fisikoaren antolaketarako Aurrerapen faseko txostenean adierazitako helburu eta irizpideak aipatzen ditu. Txosten honek bere egin ditu Lezoko Tokiko 21 Agendaren prozesuan garatutako honako proposamen hauek:

- 1.-Oarsoaldearekin batera aurreikusi, eta paisaia eta bioaniztasuna biziberritu, hobetu eta babesteko Eskualdeko Ekintza Planean (Komunikazioaren hiri-paisaiari buruzko azterketa) aurreikusitako ekintzak garatzea.
- 2.-Behemendirekin eta nekazaritza sindikatuekin batera, nekazaritza eta abeltzaintza beharrei erantzuteko zenbat lurzoru behar de aztertu eta erabakitzea.
- 3.- Baratz zaintza-jarduerak arautzeko eta kontrolatzeko plan bat egitea, txabolak eta ingurumenarentzat desegokiak diren jarduerak baztertuta.
- 4.- Uliako GKL-Jaizkibelgo GKL-Aiako Harriko GKL-Txingudiko GKL korridore ekologikoa sustatzea.
- 5.- Jaizkibelgo gainerako udalerriekin batera, ibilbide-sare bat sortu eta argitaratzea:GR, Done Jakue bidea, itsasertzeko ibilbidea...
- 6.- Babespeko etxebizitzak, eguneko zentroak eta abar sortzea komeni den aztertzea, landa eremutik etorritako pertsonen kultur, hizkuntza eta harreman ezaugarriak babesten saiatuta.
- 7.- Eskualdearen eta landa eremuaren azpiegitura eta bizitegi beharrak orekatzeko bideak aztertzea.
- 8.- Lurzoru erabilgarria (publikoa edo erabilerarik gabea) edo erabil daitekeena erregistratzea: lur erabilgarrien errolda (alokairuak, udalen lagapenak eta abar) egitea.

Halaber, bai Aurrerapen txostenean bai Hasierako Onarpenerako Memorian, udalerrian nekazaritza-produktu ekologikoak ekoizteko eta saltzeko, horien inguruan prestatzeko eta nekazaritza ekologikoa dinamizatzeko leku bat sortzea proposatzen da. Nekazaritza ekologikoko parke bat izango litzateke, eta Urrulloko Balio Estrategiko Handiko Lurzoru Urbanizaezinaren eremuan egongo litzateke; topografia ona du, eta bertako uzten produktibitate eta kalitateak egin dute ezagun. Jarduera hori bultzatu eta sustatzeaz gain, Nekazaritza ekologikoko parkea hartuko duen lekuaren ingurumena eta natur balioa aintzat hartuta egingo da; soroz eta naturgunez osatutako mosaiko bat izango da, eta kontuan hartuko dira bioeraikuntza-irizpideak eta energia berriztagarriak, instalazioak egiteko. Memorian esaten den bezala, honen inguruan egin beharreko Plan Bereziak erabilerak definitu eta eman daitezkeen eraginak aztertu beharko ditu.

1.6 HIERARKIKOKI GORAGOKO MAILAKOAK DIREN PLANEN ZEHAZTEA

Atal honetan, udal eremuari eragiten dioten erabakiak dituzten udalaz gaindiko agiriak ager idira. Agiri horien azterketa zehatza txosten honen 2. kapituluaren egin da.

1.6.1 Maiatzaren 31ko 4/1990 Legearen ondoriozko txostenak

EAEko Lurralde Antolakuntzari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legeak honako tresna hauek ezarri ditu EAEko lurraldea antolatzeko: Lurzorua Antolatzeko Artezpideak, Lurralde Plan Partzialak eta Lurralde Plan Sektorialak.

Eusko Jaurlaritzaren otsailaren 11ko 28/1997 Dekretuaren bidez (EHAA, 1997ko otsailaren 12koa), behin betiko onartu ziren EAEko **LAA Lurzorua Antolatzeko Artezpideak**, eta horiek dira gainerako txostenak dokumentatzeko eta idazteko erreferentzia.

Lurralde Plan Partzialekin batera, Lurralde Plan Sektorialak garatzen dituzte Lurzorua Antolatzeko Artezpideak, eta horien helburua da Euskal Herriko administrazioen antolakuntza sektorialeko tresnak arautzea.

Jarraian, Lezorentzat erabakigarriak izan daitezkeen txostenak daude:

Behin betiko onartutako txostenak

- *262/2004 DEKRETUA, abenduaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Jarduera Ekonomikoetarako Lurzorua Sortzeko eta Saltoki Handiak Antolatzeko Lurralde Plan Sektoriala onartzekoa, 2005eko urtarrilaren 28ko EHAaren 19. zenbakian argitaratua.*
- *EAEko Trenbide Sarearen Lurralde Plan Sektoriala.* Behin betiko maiatzaren 14ko 41/2002 Dekretuaren bidez onartua.
- *Kantauriko Isurialdeko Ibaiertzak eta Errekaertzak Antolatzeko Lurralde Plan Sektoriala.* Behin betiko abenduaren 22ko 415/1998 Dekretuaren bidez onartua. 1999ko otsailaren 18ko EHAAn argitaratua.

- *Euskal Autonomia Erkidegoko Itsasertza babestu eta antolatzeko Lurralde Plan Sektoriala*. Behin betiko martxoaren 13ko 43/2007 Dekretuaren bidez onartua, 2007ko apirilaren 2an EHAAren 65. zenbakian argitaratua.

Izapidetze fasean dauden txostenak

- *Donostiako Eremu Funtzionalaren Lurraldearen Zatiko Plana (Donostialdea Bidasoa Behea)*. 2003ko ekainaren 4an argitaratutako aurrerapen txostena.
- *Garraioaren Sare Intermodala eta Logistikoa Antolatzeko Lurralde Plan Sektorialaren aurrerapen txostena*. 2003ko uztailaren 24koa.
- *Etxebizitzaren Sustapen Publikorako Lurzoruaren Lurralde Plan Sektoriala*. Aurrerapen txostena, 2000ko ekainaren 29koa.
- *Nekazaritza, Basozaintza eta Natura Ingurunea Antolatzeko Lurralde Plan Sektoriala*. Hasierako onarpena abenduaren 28ko 277/2004 Dekretuaren bidez egina. EHAAren 2005eko otsailaren 16ko 32. zenbakian argitaratua.
- *EAEko kultura-ondarea Antolatzeko Lurralde Plan Sektoriala*. Aurrerapen txostena, 2001eko uztailaren 6an onartua.
- *Kantauriko Isurialdeko Ibaiertzak eta Errekaertzak Antolatzeko Lurralde Plan Sektorialaren 1. Aldaketa*. Hasierako onarpena 2008ko urtarrilaren 21eko EHAAn argitaratua. Jendaurreko aldia, 45 lanegun argitaratze egunetik kontatzen hasita.
- *EAEko Errepide Plan Orokorra eta Gipuzkoako Errepideen Lurralde Plana*

1.6.2 Beste hainbat txosten

Lehen aipatutako txosten horiz gain, Lezoko hirigintza planeamenduan honako hauek ere hartu behar dira kontuan:

- *Pasaiaiko Portua antolatzeko Plan Berezia*. Izapidetze bidean.
- *Oarsoaldeko Eskualdeko Plan Estrategikoa*. 1994
- *Jaizkibel Kudeatzeko Plana. Europako Natura 2000 Sareko ES1210017 gunea*. 03 zirriborroa. Gipuzkoako Foru Aldundia.
- *Lezoren Iraunkortasunerako Ekintza Plana. Lezoko Tokiko Agenda 21*. 2006ko martxoa. Oarsoaldea SA, Eskualdearen Garapenerako Agentzia.
- *Herriondoko Plan Berezia*. Lezoko eta Oiartzungo udalak (2001eko abendua). Gipuzkoako Foru Aldundiak onartzeko.
- *EAEko Korridore Ekologikoen Sarearen Azterketa*, Eusko Jaurlaritza (2005).

1.7 KALTEAK ERAGIN DITZAKETEN JARDUERAK

1.4 eta 1.5 atalean deskribatutako jardueretatik, ingurumenari kalte nabarmena egin diezaioketenak bereizteko, honako faktore baldintzatzaile hauek izan dira kontuan:

- Lurzoruaren erabilera aldaketak
- Natur intereseko leku eta elementuen kontrako kaltea
- Lur mugitze eta erauzteak
- Begi, paisaia eta soinu inpaktua
- Mugikortasuna eta hiri ingurumena

Memorian planteatutako jarduera gehienak hirigunean egingo dira, tartekak aprobetxatuta, eremu hondatuak biziberrituta eta bizitegitarako eremuarekin bateraezinak diren industriak lekualdatuta. Gizarte eta ingurumen arloko proposamenak ere badaude. Askotan, proposamen hauek eragin positiboak dituzte herritarrengan, bazter-eremuak biziberrituta, erabilera publikoko lekuak sortuta eta herritarren bizi-kalitatea hobetuta. Ez da ahaztu behar, alabaina, proposamen hauek eragin negatiboak ere eragin ditzaketela hiri ingurumenean, biztanleriaren handiagotzeagatik, zarata sorkuntzagatik eta herri eremu berdeen desagarpengatik. Bestalde, artifizializatu gabeko lurzoruen gain ere jarduerak proposatzen dira, ingurumenean eragin anitzak sortu daitezkelarik.


Gorago adierazitako irizpideetan oinarrituta, hurrengo eremu hauetan (ikus 1. irudia) ingurumen eragin adierazgarriak eman daitezke:

- Gaintzurizketa eremua. Lurzoru industrial (H.A.E. 26 Abendaño, H.A.E. 38 Gaintzurizketa) eta bide berria (N1 – GI2638 Bide-lotunea). Lehentasunezko interes komunitarioa duten bi habitat eta baso hostozabaletan eragina, eta lurzorua erabileraren aldaketa.
- Olatzar eremua. Egoitza garapen berria (H.A.E. 6 Olatzar) eta azpi-estazio elektrikoa (H.A.E. 10 Sagardi Malda). Lurzoruaren erabilera aldatzea suposatzen du, eta litekeena da Olatzarko errekarari ere eragitea.
- Hirigunearen eremua. Egoitza garapen berriak (H.A.E. 11 Isasti, H.A.E. 13 Marrukene, H.A.E. 14 Algeposa 1, H.A.E. 17 Maintzine, H.A.E. 26 Arraitoki), ekipamendu hornidura (H.A.E. 7 Futbol Zelaia, H.A.E. 8 Ikastola) eta erabileren bermatzea (H.A.E. 18 Maintzinea Mendebaldea, H.A.E. 19 Bat, Bi, Hiru Etxeak). Hiri ingurumenaren kalitatearen gain eraginak izan daitezke.

Txosten honen 5. atalean baloratu ditugu ingurumenean izan ditzaketen eraginak.

Jarduera guztien eta aztertutako aukeren balorazioa, Plan Orokorren txostenean planteatutako antolamendu ereduari dagokiona, alegia, txosten honen 4. atalean egin da.

1. Irudia: Eraginak baloratzeko eremuak



Iturria: gu geuk egina.

2 BESTE PLAN EDO PROGRAMEKIKO LOTUREN AZTERKETA

2.1 HIERARKIKOKI GORAGOKO MAILAKOAK DIREN PLAN EDO PROGRAMEN ONDORIOZKO JARRAIBIDE ETA IRIZPIDEAK

Atal honetan, udalaz gaindiko planak deskribatuko ditugu (1.5 atalean zehaztutakoak); udalerrian eragina izan dezakete, eta horien jarraibideak kontuan eduki behar dira Lezoko Plan Orokorran.

❖ EAEko Lurzorua Antolatzeko Artezpideak

Otsailaren 11ko 28/1997 Dekretuaren bidez onartu zen behin betiko txosten hori. EAEko Lurraldea Antolatzeko maiatzaren 31ko 4/1990 Legearen arabera, erreferentzia dira EAEko lurralde eta hiriak antolatzeko tresnak arautzeko.

Udal planeamenduari eragiten dioten erabaki lotesleak

Honako hauek dira LAAen inguruko erabaki lotesleak, udal planeamenduari dagokionez:

- *Debekatuta dago lurzoru urbanizaezinean nekazaritza edo abeltzaintza ustiategiarekin loturarik ez duen familia bakarreko edo bi familiako etxebizitzarik erabiltzea.*
- *Lurrazaleko uren tratamendua. Bereziki, dagokion LPS Lurralde Plan Sektoriala onartu arte ibilguak behin-behinean babesteko hainbat neurri. Kasu horretan, onartuta dago Kantauriko Isurialdeko Ibaiertzak eta Errekaertzak Antolatzeko Lurralde Plan Sektoriala, eta 1. Aldaketa izapidetzen ari dira.*
- Udal planeamenduak ateratze-jardueren eraginpean dauden eremuak mugatzeko beharra.
- *Udal Planeamenduaren bizitegitarako gehienezko lurzoru eskaintza (1 eranskina) mugatzea, behin-behinean, dagokion LPP Lurralde Plan Partziala onartu arte. Udalerrri txiki polinuklearretan etxebizitza gehiago egitea onartuko da, ordura arte daudenak beste, gehienez ere, betiere.*
- Eremu funtzional bakoitzeko hainbat hiritan hirigintza planeamendua bateragarri egiteko beharra.

Lurzoru urbanizaezinaren antolamendua

Inguru fisikoari dagokionez, natur baliabideak kudeatzeko irizpide orokorrak ezarri ez ezik, lurzoru urbanizaezina antolatzeko irizpideak ere ezartzen dituzte LAAek; hala, hori antolatzeko kategoriak ezartzen ditu eta, adierazten duenez, "garapen planeamenduak (Hiri antolamendu plan orokorrak, Planeamendu arau subsidiarioak, Lurralde planak eta abar) sailkatu egingo ditu lurzoru urbanizaezinak, eta honako antolamendu kategoria hauen izen eta irizpideak erabiliko ditu horrek". Honako hauek dira: Babes Bereziko eremua, Ingurumena Hobetzeko eremua, Basogintza, Nekazaritzako eta Abeltzaintzako eremua eta Landazabala, Larrediak, Lurrazaleko uren babes eremua eta Erabilera zehatzik gabeko eremua.

Antolamendu kategoria horien gainean hainbat faktore baldintzatzaile daude, eta eremu horien erabilera mugatzen ez badute ere, horietan hainbat jarduera garatzeko modua mugatzen dute, kasu bakoitzak duen arriskuaren eta horren egoera bereziaren arabera. Honako hauek dira: Akuiferoen urrakortasuna, Eremu higagarriak, Urpean gera daitezkeen eremuak, Babestutako natur eremuak eta Urdaibai Biosferan Erreserba.

Azkenik, antolamendu kategorietako erabilera eta jarduerak arautzen ditu; Inguru fisikoa antolatzeke matrizean ageri dira horiek.

Lezori buruzko aipamenak

LAAen txostenean Lezori buruzko hainbat aipamen daude, eta labur-labur adieraziko ditugu jarraian:

- Lezo Donostiako Eremu Funtzionalean dago. Eremu horretan dago EAeko hirigune integratu garrantzitsuenetan bigarrena, eta EAeko Hiriburu Sistema Polinuklearraren korapiloetako bat da.
- Bilboko portuarekin batera, komunikazio eta garraio sistemaren oinarritzko elementu da Pasaiaiko portua, garapenerako oinarritzko faktore.
- Industria eremu nagusi batean dago Lezo.
- Garraio Zentro Integratu bat (Lezo-Gaintxurizketa-Irun korridorea) ezartzeko aukera planteatu da.
- Lezoren hirigunea Pasaiaiko badiarekin muga egiten dutenetako bat da, eta hirigunea biziberritzeko ekimenak bultzatuko dira horietan.
- Jaizkibel mendia Natur Intereseke Eremuen artean dago.
- Hirigintza Oiartzun alderantz garatu da, eremu trinkoagoak arintzeko, Lezo besteak beste.

❖ **Donostialdeko funtzio eremuaren Lurraldeko Plan Partziala**

1992an, Eusko Jaurlaritzak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatuta, Donostialdea-Bidasoa Beherea Funtzio Eremuaren Lurraldeko Plan Partziala idazteari ekin zitzaion. Plana 1994an bukatu eta soilik Aurre-txostena bideratu zen.

2003ko Martxoaren 5ean, Gipuzkoako Foru Aldundiak Donostialdea-Bidasoa Beherearen Lurraldeko Plan Partzial berri baten Aurre-txostena aurkeztu zuen, IKAUR, S.L. enpresak idatzitakoa.

Txosten honen tramitazioa geldirik egon zen eta 2008an zehar tramitazioa berriz hasi da, diagnostikoaren eguneraketa eta bere momentuan proposatutako iradokizunak erantzuteko lanak hasi direlarik.

❖ **EAEko Errepideen Plan Orokorra eta Gipuzkoako Lurralde Arlo Plana**

Esku-hartze programaren barruan, 1983 eta 2004 urteen bitartean indarrean dagoena, Errenteriako saihesbidearen (amaituta) eta CN-1 eta GI-2638 (Lezo-Gaintxurizketa) errepidearen arteko bide-adarraren eraikuntza topa daiteke.

Halaber Gaintxurizketako Gaineko bidegurutzean ezkererantz biratzeko erabakia aipatzen da.

Foru Aldundiak sustatutako Gipuzkoako Errepideen Lurraldeko Arlo-planak (1995-2006) ez du Lezori eragiten dion erabakirik proposatzen.

❖ **EAEko Trenbide Sare Berriaren Antolaketarako Lurralde Plan Sektoriala.**

Otsailaren 27ko 41/2001 Dekretuaren bidez onartu zen behin betiko, eta trenbide bidezko garraio sistema bat garatzeko behar diren hirigintza edota lurralde jarduerak planifikatzea eta arautze adu helburu.


Txosten honek honako xede hauek ditu:

- EAEko trenbide azpiegitura ezartzeko eta garatzeko jarduerak zehaztea
- Erabilera horren eragina duten lurzoruak antolatzea
- Trenbideen lurralde antolamendua eta hirigintza-antolamendua adostea
- EAEko gainerako politikekin koordinatzea
- Europar zeharreko trenbidea ezartzeko eta garatzeko jarduerekin koordinatzea.

Honako hauek dira Planean Lezorako proposatutako jarduerak:

- Lezoren ondo-ondotik sare berri bat pasatzea aurreikusten du, eta RENFEren – zerbitzua porturaino eramatea- eta Eusko Trenbideen sareei, eta azken horren Errenteriako eta Gaintxurizketako geltokiei eustea.
- Errenteria-Portomoko zatia bikoiztea.
Pasaiaiko portura iristea, Madril-Irun trenbidea baliatuta.

2. irudia: EAEko trenbide-sarea



Iturria: Geoeskadi (Eusko Jaurlaritzza)

❖ **Kantauriko Isurialdeko Ibaiertzak eta Errekaertzak Antolatzekeo Lurralde Plan Sektoriala eta horren 1. aldaketa**

- Kantauriko Isurialdeko Ibaiertzak eta Errekaertzak Antolatzekeo Lurralde Plan Sektoriala

Inguru Fisikoaren Antolamenduari heltzeko orduan, Lurrazaleko Urak Babesteko Eremuak ere biltzen dituzte Lurzorua Antolatzekeo Artezpideek kategorien artean, eta horiek babesteko irizpideak ezartzen; hala, Kantauriko Isurialdeko Ibaiertzak eta Errekaertzak Antolatzekeo Lurralde Plan Sektorialaren mende uzten du horren behin betiko antolamendua.

Kantauriko Isurialdeko Ibaiertzak eta Errekaertzak Antolatzekeo Lurralde Plan Sektoriala abenduaren 22ko 415/1998 Dekretuaren bidez onartu zuen Eusko Jaurlaritzak.

Lurzorua Antolatzekeo Artezpideak garatzen ditu, hiru alderdi aintzat hartuta:

- Ur-ibilguak babestu beharra uholdeak ekiditeko, ibaiak gainezka egiten duten sasoiak kontuan hartuta.
- Ibaiertzak eta erreka ertzak babestea, horien natur balioa dela-eta.
- Ur-ibilgu bakoitzaren zatiak antolatzea, hirigintza-garapena dela eta horien ertzetan izan daitezkeen jardueren arabera.

LPSa idazteko irizpide orokorrek oinarritzen dute gure lurraldeko ibai, erreka eta urtegien ertzetan babes eremuak ezartzeko beharra, honako helburu hauek lortzeko:

- Uren kalitateari eusteko edota hori hobetzea
 - Gutxieneko ur-emari ekologikoa mantentzea
 - Ibai eta errekeni bilguak okupatzea saihestea
 - Uholde eta hondamendi naturalen ondoriozko kalteak minimizatzea
 - Ingurumenerako interes berezia duten ur-ibilgu zatiak babestea
 - Kultur ondare diren elementuak babestea
 - Ibai-ibilguak hirietan sartzea
- Kantauriko Isurialdeko Ibaiertzak eta Errekaertzak Antolatzeko Lurralde Plan Sektorialaren 1. aldaketa

Ingurumen eta Lurralde Antolamendu sailburuaren 2007ko abenduaren 10eko aginduz, Plan horren 1. aldaketa onartu zen, bai eta jendaurrean jartzea eta herri administrazioen aurreko entzunaldia ere.

Hona hemen Plan hori aldatzeko arrazoiak:

- "Lurzorua horrek urpean geratzeko duen arriskuaren arabera erabiltzeko irizpideak", Ur Zuzendaritzak egindakoak, LPSaren araudian sartzea.
 - Eranskin gisa, LPSean uholde orbanen mapa eguneratuak sartzea, hidraulika azterketen bidez kalkulaturakoak, bai eta "Hidraulika azterketak egiteko diseinu irizpide teknikoak" ere, Ur Zuzendaritzak egindakoak.
 - LPSaren araudian, aplikatu beharreko araudien inguruko erreferentzia berezi bat sartzea, Garrantzi Komunitarioko ibai-tarteen inguruko arau propioak (Europako Kontseiluaren 92/43 EEE Zuzentaraua) adibidez.
 - Eranskin gisa, Natura 2000 Sareko EAEko Interes Komunitarioko Ibairen zerrenda sartzea LPSean.
 - LPSeko edukiak Uraren inguruko Esparru Zuzentara egokitzea (EE 2000/60 eta Urari buruzko Eusko Legebiltzarraren 1/2006 Legea)
 - Hainbat arau-doitze eta Lurralde Antolamendu Sailak adierazitako zuzenketa egitea.
- Aplikazio eremua, zonabatatzea eta araudia

Planaren *Aplikazio eremua* Kantauriko isurialdeko ibai eta errekek osatzen dute eta, bereziki, ur-ibilguen alde banatuko 100 m-ko zabalerako zerrendari eta urtegien inguruko 200 m-ri eragiten die.

LPSak honela *zonabatu* ditu ibai eta erreka ertzak:

- Ertzen ingurumenaren araberrako zonabatatzea
- Ur-ibilguen arro hidraulikoen araberrako zatikatzea
- Ertzetako hirigintzaren araberrako zonabatatzea

Ur-ibilguak arro hidraulikoen arabera zatikatzeari dagokionez, 8 zati bereizi dira, arroaren azaleraren arabera:

ZATIEN KATEGORIAK	IBAI ARROAREN AZALERA (Km ²)
VI	600 Km ² < A
V	400 Km ² < A < 600 Km ²
IV	200 Km ² < A < 400 Km ²
III	100 Km ² < A < 200 Km ²
II	50 Km ² < A < 100 Km ²
I	10 Km ² < A < 50 Km ²
0	1 Km ² < A < 10 Km ²
00	A < 1 Km ²

Oharrak:

0 mailako zatiak LPSeko informazio grafikoan inolako identifikaziorik gabe adierazitako errekei dagokie.

00 mailakoak, berriz, LPSeko informazio grafikoan agertzen ez diren gainerako erreka edo isurketei. Horiei Urari buruzko Legea aplikatzen zaie.

Araudi berezia ezarri da, lehen aipatutako hiru osagaien arabera:

➤ *Ingurumenaren arabera araudi berezia.*

Ingurumen irizpideei jarraituz ezarritako zonabanatzearen helburua da ekologia, paisaia, ekoizpen eta zientzia nahiz kultur balioak bermatzea, hainbat arriskuren aurrean babestea -higaduraren eta akuiferoen kutsaduraren aurrean besteak beste-, edo jarduera bateraezinen ondorioz hondatutako eremuak leheneratzea.

Honako eremu hauek bereizten dira, sailkapen berezirik gabekoez gain; azken horietan ere ingurumena babesteko oinarriko politika orokorrak aplikatuko dira:

- Lehentasunezko Natur Intereseko Eremuetako Ertzak
- Ongi kontserbatutako landaredia duten ertzak.
- Higadura edo lerradura arriskua duten eremuetako ertzak edota urrakortasun arriskua duten akuiferoak.
- Leheneratzeko beharra duten ertzak.

Lehentasuneko Natur Intereseko eremuak dira Natur Parke edo Biotopo Babestu izendatutakoak, Urdaibaiko Biosfera Erreserba eta Txingudiko Eremuko Natur Baliabideak Babesteko eta Antolatzeko Plan Berezia, Natura 2000 sareko lekuak eta LAAetako Natur Intereseko Eremuak.

Azterketa-esparruaren zati bat Jaizkibelgo Interes Komunitarioko Lekuan (ES2120017 kodea) dago; beraz, eremu horretako errekek *lehentasunezko natur intereseko eremuetako ertzak dira*. Jaizkibel mendiaren hegoaldeko hegoaldeko haranera jaisten diren errekek dira.

Eremu horietan, babes irizpide orokorra da Ibilgua Babesteko Eremu bat ezartzea eta inguruaren aldaketa dakarren jarduera oro debekatzea. Onartuta dauden edo etorkizunean onartuko diren antolamendu txostenek zehaztuko dituzte ertz horietan baimenduta, onartuta edo debekatuta dauden jarduerak.

Mapan ikusten den bezala, eremuarena gainerako zatian ez dago lehen adierazitako sailkapenetan sartzen den errekarik.

3. irudia. Ibaiartzen eta Errekaertzen LPSaren ingurumen osagaiaren mapa. Lezoko eremuaren xehetasunak.



Iturria: Kantauriko Isurialdeko Ibaiartzak eta Errekaartzak Antolatzeko Lurralde Plan Sektoriala

➤ *Hirigintzaren arabera araudi berezia*

LPSeko ibilguen ertzen zonabanatze zehatza ezarri da, hirigintza garapen orokorraren arabera. Hala, 4 kategoria bereizi dira:

- Landa eremuko ertzak.
- Hiriarteko komunikazio azpiegiturak dituzten ertzak.
- Eremu garatuetako ertzak.
- Bizitegi berriak har ditzaketen ertzak.

Azterketa honetan, *eremu garatuetako* ondorengo ibai-zati hauek ageri dira:


- Lezoko hirigunea zeharkatzen duen Zubitxo errekaen zatia, zati bat lur azpian duena.
- Iturrin industrialdea zeharkatzen duen Apaizartza errekaen zatia, lur azpian dagoena.
- Oiartzun ibaiaren eskuin aldea, Alzate sektorearen parean dagoena.

Hau da ibaiertz eremu hau arautzeko irizpide nagusia: paisaia antolatzeko unean ibai garrantzi handiko elementu gisa hartzea, natura hirietan sartzeko bidea baita. Helburu horrek bateragarria izan beharko du uholdeak ekiditeko egin beharreko hidraulika jarduerekin, eta ibai inguruertako kultur ondarea babesteko diseinatuko diren irtenbideekin.

Eremu garatuetako ertzetan, ibaiaren eta eraikin arteko gutxieneko babes-tarteak nahiko handia izan beharko du, etorkizunean uholdeen aurkako bideratzeak egiteko beste.

Eremu garatuetako ertzetako eraikin berriei dagokienez, gutxieneko babes-tarteak ibai-arroaren azaleraren arabera izango da. Lehen aipatutako bi erreka 0 mailakoak direnez, 10 m-ko babes-tarteak eduki beharko dute eraikin berriek. Babes-tarte horiek lotesleak dira eraikin berrientzat, eta adierazle hutsak lehendik dauden eraikinak babesteko, zaharberritzeko edo ordezkatzeko. Oiartzuni baiari dagokionez, II mailakoa da hori; beraz, 10 m-koak dira horren babes-tarteak ere.

4. irudia. Ibaiertzen eta Errekaertzen LPSaren hirigintza osagaiaren mapa. Lezoko eremuaren xehetasunak.



Iturria: Kantauriko Isurialdeko Ibaiertzak eta Errekaertzak Antolatzeko Lurralde Plan Sektoriala

- Berrikuspenaren garapen berriko eremuetako ubideen bazterretan gorde beharreko gutxienezko babes-tarteak

Ingurumen osagarriaren eta Hirigintza osagarriaren konbinazioak, ibai-tarte bakoitzari esleitutako kategoriarekin batera, kasu bakoitzean errespetatu beharko diren gutxienezko distantziak definitzen dizkigu.

LPSek xedatzen du distantzia horiek lurzoru naturalaren edozein aldaketa egiten direnean aplikatu beharrekoak direla (etxeak, instalazioak edo edozein eratako eraikuntzak, nola finkoak hala desmuntagarriak, lur-berdinketak eta lur-mugimenduak, e.a.), herri-lanei edo azpiegiturako instalazioei dagozkienean izan ezik, edo kultur ondarea babesteko ekintzak egiteko orduan, behar bezala justifikatzen direnean.

- Apaizartza erreka H.A.E. 36 Gaintzurizketa eremuan

Apaizartza erreka LPSaren planoetan bakarrik bere azken zatian agertzen da, Iturrin poligono industrialaren azpian lurperatua geratu baino lehen. Marraztutako zatian, 0 Mailako ubidea bezala agertzen da, eraikuntza berriek bideratze lerrotik 10 metroko erretiroa mantendu behar dutelarik.

Marraztu gabeko tartean, LPSan adierazten den bezala, Uraren Legean adierazitakoa ezartzen da (5 metroko menpekotasuna ezartzen da ubidearen alde bakoitzean). Plan Orokorran 10 metroko babes-babesa proposatzen da ubidearen alde bakoitzean, non ibaiertzeko landaredia eta egoera naturala mantendu behar diren.

Beraz, Gaintzurizketako industria garapen berria 10 metroko babes-tartea mantendu beharko da ubidearen alde bakoitzean Apaizartza erreka guztian zehar.

- Olatzar erreka H.A.E. 6 Olatzar eremuan

Erreka hau ez da LPSaren planoetan marraztua azaltzen, eta ondorioz Ur Legean adierazten dena jarraitu behar da (5 metroko mendekotasuna ubidearen alde bakoitzean).

Bizitegi eta urbanizazio garapenak eremu honen goiko partean kokatzen dira, Olatzar erreka ubidetik 25 metrotara. Udalerraren erreka guztiek ubidearen alde bakoitzean 10 metroko babes-tartea dutela kontuan hartuta, proposamen honek ezartzen duen distantzia erreka babes-babesa ziurtatzeko egokitzat jotzen da.

- Juanotene erreka H.A.E. 37 N1 – GI 2638 Bide-lotunean

Erreka hau ez da LPSaren planoetan marraztua azaltzen, eta ondorioz Ur Legean adierazten dena jarraitu behar da (5 metroko mendekotasuna ubidearen alde bakoitzean).

Jarduera honek biribilgune baten eraikuntza proposatzen du, zeinak erreka lurperatzea suposatuko lukeen, "ibai eta erreka ubideen okupazioa saihestea" adierazten duen LPSaren irizpidea hautsiz.

- Zubitxo erreka H.A.E. 26 Arraitoki eta Ikastolaren eremuan

Zubitxo erreka, Arraitoki eremuan, 0 mailakoa da beraz 10 m-ko babes-tartea eduki beharko dute eraikin berriek bideratze lerrotik. Babes-tarte horiek lotesleak dira eraikin berrientzat, eta adierazle hutsak lehendik dauden eraikinak babesteko, zaharberritzeko edo ordezkatzeko.

- Minkura erreka H.A.E. 13 Marrukene eremuan eta Mukitar erreka H.A.E. 14 Algeposa 1 eremuan

Erreka hauek ez dira LPSaren planoetan marraztuak ageri, beraz Ur Legean adierazten dena jarraitu behar da (5 metroko mendekotasuna ubidearen alde bakoitzean).

LPSaren irizpideei jarraituz, ubide hauen integrazio eta lehengoratzea ahalbidetuko da, ahal den neurrian.

➤ Uholde prebentzioari eta Erregulazio Hidraulikoari buruzko araudi berezia

Atal honetako zonabanatzea eta arautzea LPSaren aldaketaren ekarpenik garrantzitsuena da. Eduki berri honen helburua da uholdeen eta horien kalteen arriskua gutxitzea, ibaiek eta itsasoak eragindako uholdeak ekosistema hauen dinamikaren prozesu natural direla jakinda.


Pertsonen eta ondasunen egiten zaizkien kalteak horiek kokalekuaren eta lurzorua erabileraren ondorio izan ohi dira. Hori saihesteko, uholde-arriskuaren kartografia egin da eta, bertan, 10, 100 eta 500 urteko errepika-denbora duten eremuak bereizi eta lurzoru erabiltzeko irizpideak ezarri dira, uholde-arriskua kontuan hartuta.

Azterketa honetan ez dira 10, 100 eta 500 urteko errepika-denbora duten eremuak ageri.

Ezaugarri hidraulikoei dagokienez, mapan ikusten den bezala, azterketa honetako ni errekek (0 mailako tartek) estalita daude.

LPSak adierazten duenez, pixkanaka-pixkanaka estaldura hori kentzen saiatu behar da, batez ere 5 km²-tik gorako drainatze-arroak dituzten ibilguetan, eta estaldura horiek 5 km²-tik beherako drainatze-arroetan ezarri, hirigintza intentsiboa finkatuta dagoenetan. Estaldura horiek kentzeri kez dagoen hirigune finkatuetan, uraren inguruko legedia bete beharko dute eraikin berriek.

5. irudia. Ibaiertzen eta Errekaertzen LPSaren osagai hidraulikoaren mapa. Lezoko eremuaren xehetasunak.



Iturria: Kantauriko Isurialdeko Ibaiertzak eta Errekaertzak Antolatzeko Lurralde Plan Sektoriala

❖ Itsasertza Babestu eta Antolatzeko Lurralde Plan Sektoriala

2007ko martxoan behin betiko onartutako txosten honek EAEko itsasertza antolatzeko hainbat kategoria ezartzen ditu, babes mailen arabera erabilera eta mugak zehaztuta.


LPS honek antolatutako itsasertza bat dator Koston Legearen eragin-eremuak definitutakoarekin: "gutxienez 500 m-ko zabalerako zatia, itsasertzaren barne-mugatik neurtuta". Eremu hau itsasoaren eragina heltzen den lekuraino hedatzen da ibaiertzetan; EAEn kasuan, itsas mailatik 5 m-ko kotara. Definizio horrek itsasertza eta marearen eragina duten ibaiertzak antolatzeko balio du, hortaz.

Lezori dagokionez, itsasertz zatia Pasaiako portuari dagokio. Altzateko sektorea, Oiartzun ibaiaren ertzean dagoena, hirigune gisa definituta dago.

Pasaiako portuaren azaleraren kasuan, hau da LPSak "Antolamendu arauetan", IV. Liburukian: "Portuetako eremuak Portuen Lurralde Planak, udal planeamenduak eta portu bakoitzeko Plan Zuzentzaile Bereziak antolatuko ditu".

Altzateko eremuari dagokionez, "itsasadarretan, ibaiertzen eta errekaertzen LPSarekin koordinatuko antolamendua", dio LPSak, eta Kosta Legeak dioena ere bete behar da.

6. irudia: Itsasertza babestu eta Antolatzeko Lurralde Plan Sektorialaren antolamendua



Iturria: Geoeskadi (Eusko Jaurlaritza)

❖ **Nekazaritza, Basozaintza eta Natura Ingurunea Antolatzeko Lurralde Plan Sektoriala**

Abenduaren 28ko 277/2004 Dekretuaren bidez onartu zen txosten hau, eta hauek dira horren helburu nagusiak:

- Gaur egungo landa eremua zehaztea; nekazaritza jarduerak, ustiategiak eta abar zehazki non dauden jakiteko.
- Landa irizpideetan oinarritutako planifikazioa egingo duen lurralde eredua sortzea.
- Sektorea eta horren baliabideak babestuko dituzten tresna juridiko eta jardunbideak planteatzea, nekazaritzaz bestelako erabileren aurrean.
- Udalerrietako planeamendu orokorrek lurzoruaren inguruan egindako sailkapenari dagokionez, irizpide eta kontzeptuak bateratzea, Lurzoru urbanizaezinaren kategorizazio osoa eginda.
- Nekazaritzaren eta ingurumenaren babesa bateragarri egitea, tresna administratibo komun edo osagarriak ezarrita.
- Sektorearen inguruko legediaren aplikazioa erraztea, politika eta arau sektorialak txosten edo agiri bakar batean bilduta eta koordinatuta.
- LPSaren emaitzen hedapena ziurtatzea, bestelako lurralde eta planeamendu txostenetan ere kontuan hartzeko.

EAE osoko lurzoru urbanizaezina da horren antolamendu esparrua; kanpoan geratzen dira Natur Eremu Babestuak eta Urdaibaiko Biosfera Erreserba. Hona hemen LPS honek antolamendu kategorietan oinarrituta proposatutako zonabanatzea:

- Nekazaritza eta Basozaintza eta Landazabala
 - o Balio Estrategiko Handia
 - o Trantsizioko Landa Paisaia
- Mendia
 - o Basoa
 - o Mendi bakana
 - o Larre menditarrak
 - o Harkaiztiak
- Ingurumen hobekuntza
- Lurrazaleko uren babesa

Ingurumen baldaintzatzaileak II 3. Planoan, Lezoko udalerriko Balio Estrategiko Handia duten Nekazaritza eta Basozaintza eta Landazabal lurzoruak eta Baso lurzoruak adierazten dira.

Lezoko Plangintza Orokorrak proposatutako Lurzoru Ez Urbanizatzailarentzako antolakuntzan, LPSan adierazitako maila desberdinak barneratzen dira, ezarritako zonifikazioa bera mantenduz.

❖ **EAEko Kultura-ondarea Antolatzeko Lurralde Plan Sektoriala**

Plan honen aurrerapen fasea 2001eko uztailean onartu zuten.

Kultura-ondarearen LPSaren helburua da, besteak beste, babes jarduera publiko eta pribatuak programatzeko eta sustatzeko irizpideak ematea, honako hauen bidez: araudia –Kultur Ondare Higiezinak bereizi edo hautatuta, horien babes kategoria eta mailak finkatuta, ondasun horiekin bateragarriak diren hirigintza kategoriak definituta, eta babes-ebazpenak zehaztuta-; babesaren programazioa eta lehentasunen hurrenkera; eta garapen-orientazioak.

LPSa lau txostenetan garatu da: azalpen-memoria, horren justifikatzea, komenientzia eta helburuak bildu dira lehenengoan; informazio-azterketa da bigarrena; hirugarrenak araudiaren aurrerapena egin du, bai erregimen orokorrari eta bai arkitektura eta arkeologia ondareari dagokiena; eta laugarrenak sustatze eta garatze orientazioak garatu ditu.

❖ **Garapen Jasangarriaren Euskal Ingurumen Estrategia 2002-2020 eta Ingurumen Programa Markoa 2007-2010**

Euskadiko Ingurumena Babesteko 3/1998 Legeak adierazten duena ezarriz, 2002-2020 eperako Garapen Iraunkorrerako Euskal Ingurumen Estrategia garatu zen, zeinetik epe bakoitzeko Ingurumen Esparru Programak abiatzen diren. Lehenengo IEP gaindututa dagoelarik, gaur egun 2007-2010 epearen programa garatzen ari da, bere lehentasunak hauek izanik:

- Klima aldaketaren aurrean ekitea eta ondorioak pairatzeko prest egotea
- Gure kapital naturala indartzea, gure biodibertsitatea babestea
- Gure herriguneetako ingurumen-kalitatea hobetzea
- Kontsumo eta ekoizpen iraunkorra

Horretarako, helburu eta xede hauek finkatzen dira:

- Lurralde osoko airearen kalitatea hobetzea pertsonen osasunean eta bizi-kalitatean duen eragin bereziagatik, hiriguneei arreta berezia eskainiz.
- Ur-masen egoera ekologiko ona lortzea, EHAEko Plangintza Hidrologikoan zehazten direnak eta narriadura galaraztea, pertsonen garapenean eta bizi-kalitatean eta ekosistemen egoera onean ahalik eta erarik onenean laguntzarren.
- Lurzoruaren kudeaketa lortzea kutsadura historikoa jasaten duten gunek berreskuratzeko lehentasuna jarriz eta kutsadura-mota berriak aurreikusiz.
- Bitarteko naturalen kontsumo arduratsua sustatzea (ura, 15 energia, materialak eta 16 lur-zorua), eraginkortasun-mailak ikerketaren eta berrikuntzaren bitartez optimizatuz beti ere lehiakortasuna hobetzeko bidean.
- Energia aurreztea, energia berriztagarrien eraginkortasuna eta kontsumoko sektore guztietan energia berriztagarrien erabilpena sustatzea.
- Hondakinen sorkuntza murriztea eta horien kudeaketa hobetzea tratatzen ez diren hondakinetan zero maila lortu artean.
- Aniztasun biologikoaren galera gelditzea lurreko eta itsasoko habitatak eta ekosistemak babestuz eta euren funtzionamendu jasangarria berrezarrit.
- Pertsonen mugikortasun-eskabidea kudeatzea, oinez ibiltzeko, bizikletan ibiltzeko eta garraio kolektiboa erabiltzeko ohitura berbideratzea. Merkantzien banaketa-ohitura itsas-garraiora eta tren-garraiora berbideratzea, errepideko garraioa gutxitzarren.

- Lurraldean diharduten sektore ezberdinen plangintza bateratua eta koherentea lortzea, bertan dauden artifizializazioko eta zatiketako arazoak konponduta uzteko moduan.
- Berotegi-efektua eragiten duten substantzien isurketa mugatzea karbonoaren erabilpen gutxiko ekonomiarentzako trantsizioa eginez.
- Klima aldaketaren aldaketa kudeatzea gure urrakortasuna minimizatuz aurreikusten diren eraginaren aurrean.

❖ **Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurraldeko Sektorez Sekoreko Plana (aurrerapena)**

LSP honen aurrerapenak eskaintako informazioaren arabera, Gipuzkoako bizikleta bideen sarea osatuko duten ibilbide desberdinak proposatzen ditu.

Lezoko udalerrinari dagokionez, Donostia eta Irun, mugan dagoen Santiagoko zubiarekin lotzen dituen "1. ibilbidea" Gaintxurizketako eremutik pasatzen da N-1 errepidearen bidea jarraituz.

2.2 BESTELAKO ADMINISTRAZIO XEDAPENAK ETA INGURUMENAREN INGURUKO LEGEDIA

Lezoko Plan Orokorra idazteko orduan, lehen adierazitako plan eta programez gain udalean aplika daitezkeen Europako Batasun, estatu eta erkidego mailako jarraibide eta xedapenak ere izan dira kontuan:

❖ **Erkidegokoak**

EAEko ingurumen legediaren erreferente nagusia EAEko Ingurumena Babesteko 3/1998 Legea da; Europako zein estatuko xedapen eta zuzentarauetan oinarrituta dago, eta natu baliabideak babesteko oinarritzko araudia ezartzen du. Horrekin batera dio EAEko ingurumen politika 4 urterako Ingurumen Esparru Programa (IEP) batean islatu beharko dela, eta aldi horretan lortu beharreko helburuak ezarriko direla bertan.

Erkidego mailan erreferentzia den beste lege bat Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea da, 2006ko uztailaren 20an EHAAREN 138. zenbakian argitaratutakoa.

Lege horren helburuen artean dago ingurumenaren inguruko hau: "Hirigintza hiri ereduari aplikatutako garapen iraunkorraren printzipiora eramatea, ingurumenarekin duen harremanaren bidez eta herri eta hirietako ondare historiko, artistiko eta kulturala babestuta".

"Garapen Iraunkorraren Printzipioa" ere "Hirigintza printzipio orokorren" (II. kapitulua) artean definituta dago, eta natur baliabideen erabilera arrazional eta iraunkorraren aldeko, eta naturaz, paisaiatz eta kultur ondareaz gozatzeko irizpideak ematen ditu.

Ingurumen politikari dagokionez, EAERako Ingurumen Esparru Programak hirigintzari buruz adierazitakoa sartu du Legeak:

- Batetik, eta berrikuntza bada ere, lurzoruaren erabilera arrazional eta intentsiboa ezartzen du Legeak, eraikigarritasun minimoa eta ordenazio-eremuen azaleraren okupazio minimoa ezarrita, oro har. "Familia bakarreko etxeen eta etxe adosatuen kulturaren" hedapena eta hezkunde sakabanatua saihestea da helburua.
- Bestetik, arreta berezia jartzen du Legeak lurzoru urbanizaezinaren babes eta erabilera arrazionalerantz; hala, garatzea komeni ez delako hala sailkatutako kategoria hori berreskuratu du. Hala sailkatutako lurzoru baserriak berreraikitzeari dagokionez, erregimen juridiko murriztailea berreskuratu du Legeak, eta landa-nukleoak izeneko babes, horietako lurzoruak; azken horietako lurzoruak urbanizaezina izaten jarraitzen du, eta mugatu egin da horien hazkundera. Era berean, muga juridiko handiagoak ezarri ditu lurzoru urbanizaezinean baratzezaintzako eta abeltzaintzako ustiatuekin loturiko etxebizitzak ezartzeko.

❖ **Estatukoak**

Plan Orokorra idazterakoan, kontuan izan dira, halaber, estatu mailako lege hauetako erabakiak:

- Urari buruzko 29/1985 Legea eta Jabari Publiko Hidraulikoaren araudia.
- Kosten 22/1988 Legea eta Legea garatzeko eta betearazteko araudi orokorra.

❖ **Europako Batasunekoak**

Estatu kideek nahitaez bete beharreko hainbat programa eta zuzentarau garatu ditu Europako Batasunak. Bioaniztasunaren eta natur baliabideen babesari dagokionez, honako hauek dira Plan Orokorra egiteko orduan kontuan izan diren zuzentarau nagusiak:

- 92/43 EEE Zuzentaraua, 1992ko maiatzaren 21ekoa, habitat naturalak eta basoko fauna eta flora babesteari buruzkoa (Habitaten Zuzentaraua)
- 79/409 EEE Zuzentaraua, 1979ko apirilaren 2koa, basa-hegaztiak babesteari buruzkoa (Hegaztien Zuzentaraua)
- 2000/60 EE Zuzentaraua, 2000ko urriaren 23koa, Europako Legebiltzarrena, Uraren politikan jardun esparru komunitarioa ezartzen duena (Uraren Esparru Zuzentaraua)

2.3 AZTERKETAN ERAGINA DUTEN BESTE HAINBAT PLAN

❖ **Pasaiako Portuaren Antolamendurako Plan Berezia**

Hauexek dira Pasaiako Portuko Zerbitzu Gunearen Antolamendurako Plan Bereziaren helburuak:

- Zerbitzu gunea antolatzea, portuko jarduerak behar bezala funtzionatzea, eta era berean tradizioz zerbitzu gunean kokatu diren beste zenbait jarduera urbanori –edota beste berri batzuei- irtenbidea ematea, baldin eta portuaren berezko funtzioa oztopatzen ez badute.

- Lurzoruaren kalifikazio bat, hirigintza zehaztapen marko bat eta administrazio prozedura bat legeztatzea, portuak berak erabaki ahal izan dezan portuaren inguruko gune logistikoek eskatzen duten etengabeko egokitze fisikoa.
- Aurreko helburuak adostutako dokumentu batean zehaztea.
- Eremu espezifikoei ematea beren funtziorako egokiak diren tamainak, erabileren banaketa eta antolamendua.
- Zerbitzu gunea ireki ohikoak ez diren baina hirugarren belaunaldiko portu batekin koherenteak diren prestigioako jardueretarako, haiei esker ingurunearen eraldaketa lor daiteke eta.

Plan Bereziak portua hamaika eremutan banatzen du, eta haietako bakoitzarentzat antolamendu xehakaturia ezartzen du. Hauexek dira Lezo udalerriarekin lotutakoak: "6. Oartzunen ibaiertza", "7. Lezo Iparra" eta "8. Zentral Termikoa".

Erabilerei dagokienez, Plan Bereziaren Eskema Zuzentzaileak proposatzen du lehen bi eremuetarako portuko merkataritzaren inguruko erabilerarako kontsolidatzea, eta azkenerako, zentral termikoaren erabilera.

6. eremurako Plan Bereziak proposatzen du ibilgailuen biltegi eta garraiorako guneen lehiakortasuna hobetzea, Lezoko geltokiarekin lotzen duen trenbidea babestea eta Lezoko apendizera aprobetxatzea portuaren jarduerarekin zerikusia duten erabileren bitartez, betiere portuaren zerbitzu gunearen barruan, Portuko Espazioak Erabiltzeko Planak adierazten duen bezalaxe. Hain zuzen ere, portuaren merkataritza gunea zeharkatzen duen errepidearen eta trenbidearen trazatuak aldatzen proposatzen du, ibilgailuak gordetzeko eraikinak egitea –gehienez ere hiru solairukoak edo lauak estalkia aprobetxatuz gero-, eta Lezoko apendizetarako erabilera logistikoetarako eraikin bat, eremu honen integrazioa hobetzeko eta bulegoak egiteko eta ibilgailuak aparkatzeko tokiak sortuz.

7. eremurako helburuak dira portuko gaur egungo merkataritza egoera hobetzea, espazioak eraginkortasunez erabiliz eta jarduera hori ingurunearekin bateragarri eginez; honenbestez, gai solteen eta beste hainbat sustantzien zama lanak behar bezala kontrolatu behar dira. Proposatutako esku-hartze bakarra, hain zuzen, eraikitzeke ahalmena arautzea da, portuko enpresa erabiltzaileek izan ditzaketen beharrei erantzuteko.

8. eremurako –Iberdrolak argindarra sortzeko ustiatzen duen Zentral Termoelektrikoak okupatzen duen eremua eta lehengaiak biltzeko guneak eta kaiak hartzen dituzten eremu gehigarriak-, Plan Bereziak gaur egungo jarduerari eustea proposatzen du, oraingo erabilerak eta eraikinak eta instalazioak kontsolidatuz. Nolanahi ere, gaur egungo zentralak teknologia aldatuz gero, ez zen beharrezkoa izango ikatza erabiltzea energia sortzeko; kasu horretan, Planak aurreikusten du posible litzatekeela eraikitzea gaur egun ikatza biltzeko erabiltzen den eremuan, eta horrez gain, baliteke etorkizunean bi eremuak –ikatza biltzeko eta bestea-bereizteko aukera egotea.

❖ **Oarsoaldeko Eskualdeko Plan Estrategikoa**

Lezok, Oartzunek, Pasaiak eta Errenteriak idatzitakoa eta 1994an Jarduera-programa batean gauzatu zena. Programa honetatik, bada, Lezoko antolamendu berrian kontuan hartu beharreko oinarriko irizpideak daude.

Orokorrak:

- Koordinaziorako baliabide komunak sortzea hirigintzan, ingurumenean, azpiegiturretan eta naturguneetan.
- Lurzoruaren inguruko akordio zabal bat lortzea Eskualdeko udalerrien artean.
- Ekintza proposamenak eskualdez kanpoko udalerriei aurkeztu.
- Eskualdearen barne antolamenduaren izaera estrategikoa eta kanpo eragina nabarmendu, Ekialde-Mendebalde korridoreko errepideko komunikaziorako irtenbide bat lortze aldera.

Jarduera ekonomikoak:

- Industria lurzoria antolatzea, haren izaera eta gaitasuna, kokapenaren inguruko abantailak eta egokiak izan daitezkeen jarduerak kontuan hartuta.
- Hirugarren sektoreko jarduerak (enpresetarako zerbitzu aurreratuak) puntu estrategikoetan jartzeko benetako bideragarritasuna eta Donostiarekiko izan ditzakeen abantailak aztertu.

Etxebizitza eta Hiri berrikuntza:

- Beharren arabera gizarte etxebizitza sortzea, garapen berriak hiri berrikuntza behar duten inguruetakojarduketekin orekatuz eta eskualde mailakoak izan daitezela ahalbidetuz.
- Eskualde mailako hiri berrikuntza programa estrategikoaren berehalako aplikazioa eskatzea eta bultzatzea.
- Eskualdeko hirigune historikoak berriztatzea, denentzako baliabideak eta programa integratu bat ezarriz.

Ingurumena:

- Indarrak batu eta irizpide komun batekin lan egin saneamenduko azpiegituren trazatuan (kokektoreak), hondakin uren tratamendurako plantan, eta halaber ibaien eta kostaldearen babes orokorrean.
- Parke urbanoen eta babestutako naturguneen azalera zabaltzea, eskaintza eta jardueren tolerantzia espazio bakoitzaren tipologiaren arabera segmentatuz.
- Jaizkibelgo Plan Berezi bat egitea dinamizatzea.
- Naturguneak eta aisialdikoak, hiri inguruko parkeak eta urbanoak multzo batean integratu, Oiartzun ibaia eta haren adarrak ardatz gisa erabiliz, ingurumen continuum eta komunikaziorako baliabide gisa.
- Prestakuntzarako zentro bat edo Natura eta Ingurumen Eskola urbano bat sustatzea, Aiako Harriaren Natur Parkeak eta San Markoseko mendiaren eta gotorlekuaren biziberritzeak eskaintzen dituen aukerak aprobetxatuz.

❖ **Jaizkibel Kudeatzeko Plana (Europako Natura 2000 Sareko ES1210017 lekua)**

Txosten hau zirriborroa da oraindik, eta 2004ko irailean egin zuen Gipuzkoako Foru Aldundiak; horren helburuak dira, batetik, Habitaten Zuzentarauak GKL gisa proposatutako Jaizkibel guneko eremuan ezarritako obligazioei erantzutea, hori Natura 2000 Sarean sar dadin Babes Berezikoko Eremu gisa, eta bestetik, berriz, natur eta ondare balioak Jaizkibel mendiko jarduerekin, eta aurreikusitako proiektuekin bateratzen lagunduko duen txotena izatea.

Kudeaketa Plan honek eremu horretarako helburu, jarraibide eta kudeaketa neurriak zehazten ditu, Natura 2000 sarearen esparruan.

Lezoko GKLari dagokionez –landare exotikoak daude hor batik bat-, “Hegoaldeko hegaleko basoak biziberritzea” proposatzen dute Arau Subsidiarioek. Hori lortzeko bi neurri proposatu dira:

➤ Hegoaldeko hegaleko basoetako habitat naturalak babestea

Hegoaldeko mendi-hegaleko ameztiak (9230 habitat kodea), gaztainadi franko-iberiarrak (G1.7d9) eta *Quercus robur* harizti azidofilo iberiar-kantauriarrak.

Habitat horietarako proposatutako kudeaketa irizpidea hasiera batean ez esku sartzearena da, ongi kontserbatuta dauden basoek ez baitute mantentze-lan aktiborik behar. Aprobetxamenduei dagokienez, erabilera bateragarritasuna eta habitatak eta basoko espezieak babesteko helburuak bermatzea proposatzen du Kudeaketa Planak.

➤ Basoko landaketen ordez ahalmenezko basoa ezartzea

Neurri hauen helburua da basoko konifera exotikoen ordez ahalbidezko basoak jartzea: harizti azidofiloak eta ameztiak.

Neurri hori garatzeko, basoko zuhaitzak moztuko dira, eta espezie autoktonoak landatuko. Lur zati batzuk hutsik uztea proposatzen da, basoekin eta sastrakadiekin mosaiko bat osatzeko.

Landaketak egiteko proposatutako espezieak urkia (*Betula alba*), haritz kanduduna (*Quercus robur*), ametz arrunta (*Quercus pyrenaica*), hurritza (*Corylus avellana*), oilakarana (*Frangula alnus*) eta gorostia (*Ilex aquifolium*) dira.

❖ **Espezie Mehatxatuak Kudeatzeko Plana**

EAEko espezie mehatxatuak kudeatzeko orain arteko planek ez diete Lezori eragiten.

❖ **Lezoko Tokiko Agenda 21en Ekintza Plana**

Udaltalde 21 Oarsoaldea 2004. urtean hasi zen Tokiko 21 Agenda ezartzen, eta 2006. urtean, Lezoren Iraunkortasunerako Ekintza Plana lortu zen, udal teknikariek, gizarte agenteek eta herritarrek, oro har, egindako lanaren emaitza.

Helburu hirukoitza du plan horrek:

- Inguruaren iraupena eta babesa bermatzea (Ingurumenaren iraunkortasuna)
- Ekitatea eta justizia soziala bermatzea (Gizarte iraunkortasuna)
- Oreka ekonomikoa bermatzea (Ekonomia iraunkortasuna)

Planak 7 ildo estrategiko ditu, eta ekintza zehatzak dituzten hainbat programaren bidez garatzen dira horiek:

1. IE – Ingurumenari kalte egin gabe, tokiko enplegua sustatuko duen garapen ekonomikoa bultzatzea
2. IE – Bizi-kalitatearen eta herritarren ongizatearen kalitatearen hobekuntza solidarioa bultzatzea
3. IE – Hiri ingurua eta ingurumen zerbitzuak hobetzea
4. IE – Herritarren higikortasun beharrak iraunkortasun irizpideak erabilia setzea
5. IE – Herritarrekiko komunikazioa, eta herritarren sentsibilizazioa eta parte-hartzea hobetzea
6. IE – Bioaniztasuna eta paisaia babestea, eta udalerriko leku eta elementu esanguratsuenak ezagutaraztea
7. IE – Udal kudeaketan iraunkortasun irizpideak sartzea

1.2 Atalean zehazten diren Plan Orokorren irizpide eta helburuek, Tokiko Agenda 21ean planteatutako ildo estrategikoak aipatzen dituzte, plangintzan integratzeko asmoz.

Hurrengo taulan, Tokiko Agenda 21aren Ildo Estrategikoen ekintzak garatzen laguntzen duten Plan Orokorren proposamenak, bai ekintzak bai araudiak, azaltzen dira:

TA21aren Ildo Estrategikoak / Plan Orokorren proposamenak	Garatzen laguntzen duten TEParren ekintzak
1. I.E. – Ingurumena kaltetu gabe tokiko enplegua sustatuko duen ekonomiaren garapena bultzatu	
Gaintxurizketako industrialde barria, hirigunearen ondoan kokatzen diren enpresak tokiz aldatzeko eta existitzen diren jarduerak handitzeko	E1.1.2
Ekipamendu Komunitarioaren Sistema Orokorra Arraitokin (eremua desafektatua geratuz gero)	E1.1.3
Nekazaritza Ekologikoaren Parkea	E1.2.2
2. I.E. – Bizi kalitatearen eta biztanleriaren ongizatearen hobekuntza solidarioa sustatu	
Kabitten (1. Sekotorea) gauzatzen ari den bizitegi garapena	E2.1.1
Altzaten gauzatzeko dauden bizitegi berriaren garapenak	E2.1.2
Algeposa eta Marrukene instalazio industrialen lekuz aldatzea, eta eremu hauetan bizitegi berrieak garatzeko aurreikuspena	E2.1.6
Udalerriarren komunitate-ekipamenduaren horniduraren hobekuntza: Pildain eskola zarretan eraikin kulturala, 50 egoitza dotazionalak (Kabitte), anbulatorioaren handitzea (Kabitte) eta hezkuntza eta kirol zentruen handitzea.	Orokorrean
3. I.E. – Hiri ingurunearen eta ingurumen zerbitzuen hobekuntza	
Plan Orokorrek hirigune historikoa biziberritzeko ekintzak barneratzen ditu, halaber Hirigune Historikoaren Erreformatarako Plan Bereziaren jarraipena. Bestalde, TEPar adierazitako ekintza batuzk jada burutak daude.	P3.6
4. I.E. – Hiriko mugikortasun beharrak iraunkortasun irizpideekin asetu	
Donibane eta Gaintxurizketaruntz bidegorri berriak proposatzen dira.	E4.3.2
Garapen berrietan bidegorriak egiteko azalerak gordetzen dira	E4.3.3

TA21aren Ildo Estrategikoak / Plan Orokorren proposamenak	Garatzen laguntzen duten TEparen ekintzak
Jaizkibel etorbidea (Donibanerako errepidea) oinezkoentzat jartzea edo erabilera mistokoa izatea proposatzen da, portuko saihebidia egin ondoren	E4.3.4
Aparlaleku sare bat proposatzen da, 231 leku berriekin	E4.4.3
N-1 errepidea zabaltzeko "Hegoaldeko Hautabide" proposatzen da	E4.4.5, E4.5.1
5. I.E. - Herritarrekiko komunikazioa herritarren sentikortze eta parte hartzea hobatu	
Plan Orokorra lantzen joan den bitartean, erakusketa publikoko aldiez gain, hiritarren partehartzea sustatu da hitzaldi informatiboen bitartez eta proposamen eta iradokizunak jasoz udal-web orrialdean.	E5.2.5
6. I.E. - Bioaniztasuna eta paisaia babestu eta udalerriko gune eta elementu esanguratsuak ezagutarazi	
Lurzoru Urbanizaezinaren Ordenantza Arautzaileetan landalurretan egiten diren kaltegarriak diren ingurumen-jarduerak kontrolatzeko eta murrizteko zehaztapenak barneratu dira.	E6.1.3
Lurzoru Urbanizaezinaren Babes Berezia, Baso eta Ingurumen-Hobekuntza kategorietan, ameztia berreskuratzeko eta bertako hariztien kontserbaziorako irizpideak barneratzen dira, baita baso landaketen kudeaketa egokirako ere.	E6.1.7
Lurzoru Urbanizaezinaren Baldintzatzaile Gainezarri bezala "Korridore Ekologikoa" jarri da.	E6.1.8
7. I.E. - Iraunkortasun irizpideak txertatu udal kudeaketan	
Kutsatutak egon daitezkeen lurzoruen kokapenta eta baliozko araudiaren erreferentziak barneratzen dira	E7.1.4
IEBE txostena Plan Orokorren parte bat da, beraz proposatutako irizpide eta neurri zuzentzaileak bertan barneratzen dira.	E7.2.4

❖ **Herriondoko Plan Berezia**

Herriondoko Plan Bereziak (2001eko abendua) Lezoko eta Oiartzungo lurzoru urbanizaezineko 133,86 hektareako eremu bat antolatu du; horren %70 (92,71 hektarea) Lezorenak dira.

Txosten honen helburu nagusia da eremu hori bereiztea eta antolamenduaren eta lurzoru erabilerearen inguruko baldintzak arautzea, baldintza horiek hedatzen dituzten Lezoko eta Oiartzungo maila goragoko planeamendu erabakien arabera.

Hona hemen udal horiek sustatutako eremurako jarduera-helburuak:

- Landa inguruko lehen mailako ustiaketa-jarduerak bermatu eta arautzea.
- Natur, paisaia eta arkitektura intereseko inguruko elementuak babestea.
- Herritarrentzako atsedenleku bat antolatzea, lurralde horretan lehendik datorren jarduera hori araututa.

Horretarako, honako oinarritzko jardun-irizpide hauek planteatzen dira Herriondoko eremurako:

- Nekazaritza eta Abeltzaintza ustiategiak bultzatzen lagunduko duen hirigintza esparrua finkatu eta garatzea.
- Lehen sektorea ezartzen lagunduko duten ekimen publikoak bultzatzea, esparru horretan ezarritako hazia abiapuntu hartuta agroaldeak garatuta.
- Ingurumenaren kalitatea hobetzea, higigarritasun arazoa konponduta eta horretarako ibilbide hierarkizatuen sare dibertsifikatu bat antolatuta.
- Iraunkortasun irizpideekin jokatzeko, esparruko paisaia eta asentamendu motak babestuta.
- Esparru horretan jabetza eta erabilera publikoko eremu bat mugatzea, lurraldeko aisia erabilera intentsiboenak bertara bideratzeko.
- Esparruko jarduera eta inbertsio publiko eta pribatuak bultzatu eta koordinatzea.

Irizpide eta helburu horiek dira proiektua garatzeko hartutako erabakien oinarri.

Gipuzkoako Foru Aldundiak bertan behera utzi du Herriondoko Plan Bereziaren behin betiko onarpena, nahiz eta plan horretan sartuta dauden txostena onartu zuten (2002) eta Eusko Jaurlaritzako Kultur Ondasun Zuzendaritzak eta Lurralde Batzordeak (2003) aldeko txostenak egin izan. Foru Aldundiko Garraio eta Errepide Sailaren txosten bat da bertan behera utzi izanaren arrazoia, Herriondoko Plan Berezia eta N-1 errepideren ordezkoi saihesbide bat egiteko aztertutako trazadura bateraezinak direla baitio; trazadura horrek Plan Bereziak ordenatutako azalerari eragiten dio, baina ez da txosten horretan ageri.

Lezoko Udalak Plana onartzeko eskatu du hainbatetan, 2007ko azaroaren 26an azkenekoz.


❖ **EAEko Korridore Ekologikoen Sarearen Azterketa**

2005. korridore ekologikoen sare baten inguruko proposamen teknikoa egin zen Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren eskariz; horren helburu nagusia da Natura 2000 Sarearen lotura eta koherentzia ekologikoa sustatzea (92/43 EEE Zuzentarauaren 10. art.). Arau izaera ez badu ere, azterketako zonabanatze proposamena garrantzitsua dela Lezoren antolamendua zehazteko.

Azterketa horrek korridore eskema bat proposatzen du, eta honako unitate hauek biltzen ditu:

- *Lotu beharreko gune nagusiak:* Zatiketaren eragina jasan dezaketen habitat edota espezieak dituzten Natura 2000 Sareko guneak ere agertzen dira.
- *Lotura korridoreak:* korridore naturalak dira, eta distantzia, orografia, iragazkortasuna eta beste hainbat irizpide hartzen dira kontuan.
- *Lotura eremuak:* lotura korridoreko bitarteko habitatak dira.
- *Indargetze eremuak:* inpaktu negatiboen aurkako babes-zerrendak dira, eta lotura korridoreen eta lotura eremuen artean daude.
- *Lotura interes berezia duten ibai-tarteak,* ingurukoak.
- *Ekologia leheneratzeko eremuak:* leheneratze-jarduerak behar dituzten korridoreko eremuak dira.

7. irudia. EAEko Korridore Ekologikoen Sarearen egituraren eskema.



Color	Elementos estructurales		
Green	Espacios-núcleo a conectar		
Light Green	Áreas de Enlace	Corredores Ecológicos	
Dark Blue	Corredores de Enlace		
Red	Áreas de Restauración Ecológica		
Orange	Áreas de Amortiguación		
Light Blue	Tramos fluviales de especial interés conector		
Yellow	Matriz territorial		
			Red de conservación interconectada

Iturria: EAEko Korridore Ekologikoen Sarea, 2005. Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila. . Eusko Jaurlaritza.

Azterketa esparruari dagokionez, proposamen honek Jaizkibelgo GKL eta Aiako Harriko GKL (lotu beharreko gune nagusiak) arteko eskualdeko korridore ekologikoa hartzen du, Gaintxurizketa inguruan dagoena (ikus 3. *Planoa, Ingurumen baldintzatzaileak III*). Lezon, 297,2 hektareako eremu zabal bat mugatu da -korridore horretako indargetze eremua da; bat dator udalerraren landa eremuarekin eta landazabaleko larreek eta zuhaitziek osatzen dute-, bai eta lotu beharreko gune nagusia ere, Jaizkibelgo GKLak osatzen duena. Lotura korridorea Hondarribitik eta Irundik barrena doa, eta ez dio Lezori eragiten.

Korridore horrek hiru presio-faktore ditu, bide-azpiegiturak (Irungo A-8 errepidea), hiri eta industria asentamenduak (Irungo eta Oiartzungo industrialdeak) eta azpiegitura handien proiektuak (Abiadura Handiko Trenaren trazadura) direla eta. Hiri eta industria asentamenduen ondoriozko eremu kritikoa Lezoraino iristen da, Gaintxurizketako industrialdeetako proiektuak direla eta.

Sare horren kontserbazioa bermatzeko, zonabanatzearen araberako helburu orokor eta estruktural batzuk ezarri ditu proposamen honek, honako hauek:

- Gune nagusiak: horien osotasun ekologikoa eta habitat eta xede-espezieen babesleku funtzioari eustea edota hobetzea. GKL eta HBBE gune nagusiei dagokienez, Natura 2000 Sareko guneetarako egin beharreko kudeaketa planei dagokie horiek antolatzea.
- Lotura korridoreak eta indargetze eremuak:
 - Inpaktuak prebenitzea
 - Landare naturalak babestea edota leheneratzea
 - Nekazaritza, basogintza eta abeltzaintza aprobetxamenduen eta aprobetxamendu zinegetikoen ustiaketa iraunkorra.

Korridore Ekologikoen Sare hau ez ezik, tokiko eremuarekin lotzeko moduko paisaia-elementuak bereizteko beharra ere adierazten du txostenak, korridore

ekologikoen sare eskalaniztuna garatzeko. Proposamen honen arabera, landa lurzoruko lurralde matrizean identifikatu beharreko tokiko korridoreen helburuak lotura intereseko paisaia elementuak identifikatu eta babestea, horien gaineko inpaktuak prebenitzea eta horien arteko lotura hobetzea dira.

Hala, honako hauek dira tokiko landa lurzoruan identifikatu beharreko paisaia elementuak:

- Landaredi espontaneoko heskai eta ezpondak
- Zuhaixka eta zuhaixka azpiko landaredi autoktonoak
- Zuhaitz autoktonoen oin bakartuak
- Fruta arbola eta zuhaixken oin bakartu eta unadak
- Zuhaitz lerro sinpleak
- Ur guneak: iturriak, iturburuak, putzuak eta abar
- Baso eta zuhaitzi autoktonoko unadak
- Ibaiertzeko eta hezeguneetako landaredia autoktonoa
- Harrizko hormak

Plan Orokorrean proposatutako Lurzoru Ez Urbanizatailearen ordenazioan gaineko baldintzatzaile bezala Jaizkibel-Aiako Harria korridore ekologikoaren indargetze eremua barneratzen da, beste korridore bat ere gehituz, zeinak eremu hau udalerraren hegoaldearekin lotzen duen.

❖ **Pasaialdea eskualdeko airearen kalitatearen ekintza plana**

Azken urteetan izan diren aire kalitate mailak hobetzeko asmoz, 2005eko udaberrian Pasaialdea eskualdeko airearen kalitatearen ekintza plana lantzen hasi zen. Indarrean dagoen legediak dio kutsadura maila muga gainditzen den zonaldeetan derrigorrezkoa dela airearen kalitatearen jardura planak garatzea (R.D. 1073/2002). Plan hauek giza osasunerako onuragarriak diren balioetara murriztu ditzakete kutsadura maila.

Egoeraren arazoen diagnostia egin ondoren – PM/PM₁₀ eta NO_x isurketetan zentratua – (ikus 1 Eranskinaren 9.1 atalean dauden airearen kalitatearen datuak), ekintza plana osatzen duten ekintza multzo bat proposatzen da. Dokumentu honetan adierazten den bezala, neurri hauek ezartzea "derrigorrezkoa da, gaur egungo airearen kalitatea hobetzeko eta etorkizunean legedia betetzen dela ziurtatzeko."

Lezoko udalerrari dagokionez, Diagnostiak dio:

"PM₁₀-en maila altuagoa da Lezon, EAeko hirigune askotan baino. Hirigune horietan, zirkulazioak edota industriak eragin dezake. Pasaiaiko Portuko mendebaldeko (W) norabideari dagokionez, ekialdeko (E) norabidean biano PM₁₀ kontzentrazio altuagoa du. Aurkeztutako emaitzek erakusten dute **portuko jardueraren eragina altuagoa dela Lezoko estazioan, Erreterriako kabinan baino.** Nahiz eta PM₁₀-en mailan eragin handiena **portuko jarduerarekin zerikusia duen material partikulatuaren esekitzeak** izan, ez da baztertu behar trafikoak izan dezakeen eragina"

Diagnostiaren ondoren, 2007an Ekintza Zuzentzaileen Proposamenen dokumentua egiten da, Lezorentzat hurrengo hauek adieraziz:

Ekintza zehatzak	Epea/Lehentasuna	Ardura
HIRI TRAFIKOA		
1. Ibilgailuen gaineko udal zergak	3 urte/Txikia	Udaletxea
2. Udal zerbitzuetako ibilgailuen emisioak murriztea	2 urte/Ertaina	Udaletxea
3. Udaletxeak eragile pribatuekin duen harremanetan, ingurumen teknologia hoberenak dituzten ibilgailue erabilera bultzatuko du	1 urte/Ertaina	Udaletxea
4. Herriko trafikoaren antolakuntza egokia	2 urte/Ertaina	Udaletxea
5. Emisio txikiko eremuak ezartzea	1 urte/Ertaina	Udaletxea
6. Ibilgailu pribatuen benetako ordezkari den garraio publikoaren garapena eta sustapena	1 urte/Handia	Udaletxea, Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza
7. Herritarrei bideratutako informazio kanpainak	1 urte/Handia	Udaletxea, Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza
HIRI-ARTEKO TRAFIKO		
8. Zirkulazioaren hobekuntza eta optimizazioa, errepide bitarteko merkantzien garraioari benetako alternatibak eskainiz	3 urte/Handia	Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza
PASAIKO PORTUAREN JARDUERA		
9. Portuaren jarduerak sortzen dituen partikulen isurketak murrizteko ekintza desberdinak	1 urte/Handia	Pasaiaiko Portu Agintaritza
ERREPIDE TRAFIKOZ KANPOKO MOTORRAK		
10. Nekazal makinaria eta errepide trafikoz kanpoko beste batzuen isurketak murrizteko neurri teknologikoak ezartzeko diru-laguntzak	2 urte/Txikia	Udaletxea, Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza
EGOITZA ETA ZERBITZU SEKTOREA		
11. Berogailuen galdaretan ingurumen hobekuntzak egiteko diru-laguntzak	1 urte/Ertaina	Udaletxea, Eusko Jaurlaritza
HERRI-LANAK ETA KALEEN GARBIKETA		
12. Herri-lanetarako jardunbide egokien ordenantza ezarri	1 urte/Handia	Udaletxea
13. Herri-lanen garbiketaren kontrola egin: udal arduradun bat izendatu	1 urte/Handia	Udaletxea
14. Kaleen garbiketeta hezea	1 urte/Handia	Udaletxea
INDUSTRIA		
15. Indarrean dagoen araudia betetzea	Etengabekoa / Ertaina	Udaletxea, Eusko Jaurlaritza

❖ **Lezoko udalerriko Zarataren Eraginaren Azterketa Plana**

Ikus I. Eranskinaren 9.2 atala.

❖ **Gipuzkoko Uraren Erabilera Iraunkorrerako Jarraibideak**

2007ko otsailan, Gipuzkoako Foru Aldundiak "Helburu, jarduera eta adierazleak" dokumentua argitaratu zuen, aurreko urteetan egindako diagnosi eta analisisetan antzemandako erronkak eta gabeziak betetzeko asmoarekin.

Dokumentu honen helburu nagusia "Ura ondasun natural, mugatu eta berriztagarritzat hartuko duen eta urari atxikitutako ekosistemak zaintzea eta hobetzea bermatuko duen kultura berria garatzea" da.

Horretarako honako helburuak proposatzen dira:

- Urak bizi-baliabide gisa eta gizarte- eta ingurumen-ondasun gisa duen garrantziari dagokionez Gipuzkoako gizartearen parte- hartzea eta konzientziazioa sustatzea.
- Gipuzkoako ibai, estuario, kosta eta lurpeko uren egoera-ekologiko ona lortzea, beren ekosistemak babestuz edo egoera txarrean daudenak hobetuz.
- Uraren eskaria modu iraunkorrean kudeatzea, uraren erabileraren kontrol eta aurrezte politiken alde eginez, baliabide abiltzeko dauden beharrak murrizteko xedearekin.
- Iraunkortasun-irizpideak eta ingurumena hobetzekoak aplikatuz, Gipuzkoako biztanleria osoarentzat egungo eta etorkizuneko ur-hornidura, kopuruari eta kalitateari dagokionez bermatzea.
- Gipuzkoako biztanleria osoari uholdeen ondorioen aurren gutxieneko babesa bermatzea, ingurune urtarra errespetatuko duten irizpideekin.
- Ikerketa-, garapen- eta berrikuntza-programak sustatzea, informazioa trukatzearen eta ingurumen hobekuntzaren alde eginez.
- Kostuak, ingurumen kostuak barne, berreskuratzeko politika bat lortzeko lan egitea, uraren erabilera egokia errazteko.
- Biztanleria sistema urtarretara gerturatzearen alde egiteabere segurtasuna eta kontserbazioa arriskuan jarri gabe, bere aberastasun historikoa mantenduz.

Helburu bakoitza garatzeko, ekintza desberdinak proposatzen dira.

❖ **Klima Aldaketaren aurkako Euskal Plana, 2008-2012**

Plan hau Klima Aldaketaren Euskal Bulegoak egindako dokumentua da. Bertan, Eusko Jaurlaritzako sei sailek hartzen dute parte, eta klima aldaketa murrizteko eta egokitze 120 ekintza konkretu zehazten dira hainbat sektoreetan; hala nola, energia, industrian, garraioan eta etxebizitza sektorean.

Tokiko administrazioak garatu ditzaketen ekintzei dagokionez, "Herritarrak eta administrazio eredugarria" izeneko 4. Programan hurrengo ekintzak barneratzen dira:

SEKTOREA: TOKIKO ADMINISTRAZIOA	
EKINTZA-ZKIA.	LERROA: JARDUERA OROKORRAK ETA EROSKETA BERDEA
101	Hauen plangintza sustatzea: <ul style="list-style-type: none"> • Klima-aldaketara egokitzen eta hura arintzen, hiri trinkoen ereduak diseinatzen eta ingurumena errespetatzen lagunduko duten irizpideak eta estandarrak ezartzea udal-plangintzentzat, nahitaez bete ditzaten. • Lehendik zegoen hiria hirigintza-garapen berrien aurrean birgaitzea, birsortzea eta mantentzea, egokitzapenaren eta emisioen murrizketaren funtsezko faktore gisa.
102	Klima-aldaketaren irizpideak EAeko hamar udalen ordenantzetan sartzea.
103	10.000 biztanle baino gehiago dituzten EAeko udalerrietan BEGen inbentarioak egitea.
104	20.000 biztanle baino gehiago dituzten udalerrietako Tokiko Agenda 21en prozesuetan klima-aldaketaren tokiko programak diseinatzea eta ezartzea.
105	Udaleko ibilgailuen erosketa eta kontratazioan eta zerbitzuen azpikontratazioan, batez ere, BEGak murrizteko irizpideak sartzea (20.000 biztanle baino gehiagoko herrietan) eta karbonoz neutroak diren udal-jarduerak sustatzea..
106	Klima-aldaketaren ordenantza bat bost udalerritan onartzea.
EKINTZA-ZKIA.	LERROA: AURREZPENA ETA ERAGINKORTASUNA LANTOKIAN ETA MUGIKORTASUNEAN
107	Udal-erakinetan, energia-aurrezkia eta -eraginkortasuna lortzeko neurriak bultzatzea.
108	Mugikortasun iraunkor eta seguruaren planak sartzea 5.000 biztanle baino gehiagoko herrietan eta eskualdeetan, BEGen murrizketa kontuan izanik.
109	20.000 biztanle baino gehiagoko herrietan trakzio mekanikoko ibilgailuen udal-zerga aldatzea, BEGen emisioak/egindako km-ekiko proportzioan..
EKINTZA-ZKIA.	LERROA: HEZKUNTZA ETA TREBAKUNTZA
110	Tokiko Agenda 21 eta Eskolako Agenda 21 garatzea gizarteko eragileen eta inplikaturako gainerako sail eta administrazioekin lankidetzan, eta jarduteko eta herritarrekin komunikatzeko protokolo batzuk ezartzea.
111	Tokiko Administrazioiko langile teknikariei emisioak murrizteko jardunbide egokiei buruzko trebakuntza ematea..

Plan Orokorraren Memoriaren txostenean udalerriarren bidegorri sarea osatzea prosatzen da, II.3.7 Komunikabide Sistemaren Antolaketa atalean adierazten den bezala.

3 PLAN OROKORRAREN ERAGINA DUEN INGURUMEN ESPARRUAREN AZTERKETA, DIAGNOSTIKOA ETA BALORAZIOA

Atal hau egiteko, ONDOAN, S.Coop-ek 2005eko maiatzean egindako Lezoko Arau Subsidiarioek Ingurumenean duten Eraginaren Ebaluazio Bateratuan bildutako informazioa erabili da, besteak beste.

3.1 AZTERKETA-EREMUAREN DEFINIZIOA

Azterketa-eremuak Lezo osoa hartzen du; Udal planeamenduko arau subsidiarioek antolatutako eremua, eta horren gainean egin da Lezoko Plan Orokorren Ingurumenean duten Eraginaren Ebaluazio Bateratua hau.

Lezo Gipuzkoako Lurralde Historikoaren ipar-ekialdean dago; iparraldean Jaizkibel mendiarekin egiten du muga, mendebaldean Pasaiaiko portuarekin, ekialdean Gaintzurizketako gainarekin eta hegoaldean, berriz, Oiartzun ibaiarekin eta Errenteriarekin. Oarsoaldeko eskualdean dago, Donostialdea-Bidasoa Beherea Eremu Funtzionala.

8,5 km² ditu, eta erliebea, berriz, aldatu egiten da, Jaizkibel mendiaren 543 metrotik itsas mailaraino; itsas mailan daude, hain zuzen, Pasaiaiko portuko kaiak. Hirigunea itsas mailatik 18 metrora dago.

Ondorengo irudian agertzen da azterketa-eremua.

8. irudia: azterketa-eremua



Iturria: Geoeuskadi (Eusko Jaurlaritza)

3.2 NATUR BALIABIDEEN APROBETXAMENDUAREN ETA LURZORUAREN GAUR EGUNGO ERABILEREN DESKRIPZIOA

Lezoko lurzoruen gaur egungo erabilerak deskribatzeko, Basoen 2005eko inbentarioa hartu da oinarri.


1go taula: Lezoko lurzoruen erabilerak (2005)

Erabilera	Azalera (ha)	%
Basoa	131	15,4
Baso landatuak	204	24,0
Menditik kanpoko zuhaitzak (Erriberak)	2	0,2
Sastrakadia	56	6,6
Belardia	6	0,7
Nekazaritza	1	0,1
Artifiziala	109	12,8
Autopista eta autobideak	10	1,2
Eroapeneko azpiegiturak	2	0,2
Meatze-hondakindegia	1	0,1
Belardi heskaidunak	4	0,5
Belardia	322	37,9
GUZTIRA	849	100

Iturria: Basoen 2005eko inbentarioa. Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Saila


Azterketa-eremuaren ezaugarria da horren zatirik handiena abeltzaintzarako larrez beteta egotea; udalerraren Gaintzurizketako gaineko mugatik Lezoko hiriguneraino iristen dira horiek. Zuhaitzi handiak ere badaude: batez ere basoko landatuak Jaizkibel mendiaren hegalean, eta baso naturalak haranera jaisten diren ibarbideetan. Eremu artifizialduetan (udalerraren azaleraren %13 inguru) bizitegitarako lurzoruak -udalerraren mendebaldeko muturrean batik bat- eta industria-lurzoruak -GI-2638 errepidean eta Pasaiaiko portuan- daude batik bat. Sastrakadi ugari ere bada, eremu osoan sakabanatuta.

9. irudia: Lezoko lurzoruen erabileren banaketa



Iturria: guk geuk egina, basoen 2005eko inbentarioko datuetan oinarrituta

10. irudia: Lurzoruaren erabileren mapa.



Iturria: Basoen 2005eko inbentarioa. Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Saila.

Datu hauek Basoen 1996ko inbentariokoekin alderatuta, azalera ez-emankorra (artifiziala, autopista eta autobideak, eroapeneko azpiegiturak eta meatze-hondakindegia) handitu egin dela, eta belardiz osatutako azalera, berriz, txikitu (408 hektarea zituen lehen, eta orain 322). Basoek udalerrriaren azaleraren %26 hartzen zuten 1996an, eta 2005ean, berriz, %40.

2. taula. Lezoko lurzorua erabileren banaketa (hektareak) 1996

Erailea	Azalera	%
Ez-emankorra	106	12,7
Belardiak	408	48,8
Sastrakadiak	102	12,2
Baso trinkoa	176	21,1
Baso soila	42	5,0
Ustiapen intentsiboa	2	0,2
Guztira	836	100,0

Iturria: Basoen 1996ko inbentarioa.

Basoen azalera (basoa eta baso landatua) gehiena hostozabalez (%75) osatuta dago; koniferak %25 baino ez dira. Koniferen artean, itsas pinua (*Pinus pinaster*) da nagusi, eta intsinis pinua (*Pinus radiata*) ondoren; gehiena haga-basoa da (20 cm-ko diametro abatez beste). Orain 20-30 urte egindako landaketak dira; beraz, txandatzetik hurbil daude, Jaizkibel mendiaren goiko aldeko eta dentsitate handiko orain gutxiko landaketa batzuk salbu.

Hostozabalen artean hostozabal gazteak dira nagusi (%29,3), baina ez da horien osaera zehaztu. Baso atlantiko mistoak (%21,5) eta haritz kandudunak (*Quercus robur*) (%17) dira hurrenak. Gainerako landaredia naturala (*Quercus pyrenaica* eta ibarbasoa) escasa da (%0,6). Hostozabal aloktonoak (*Eucalyptus globulus*, *Robinia pseudoacacia*, *Quercus rubra*, *Platanus hispanica*, *Castanea sativa*) basoen azaleraren %6,3 osatzen dute.

3. taula. Basoko espezieen banaketa (ha)

Espeziea	Birp/ MB	Haga- basoa	Tantai- basoa	Guztira	%
<i>Pinus nigra</i>	1	0	0	1	0,3
<i>Pinus pinaster</i>	2	43	3	48	14,3
<i>Pinus radiata</i>	5	10	6	21	6,3
Bestelako koniferak	13	0	0	13	3,9
Koniferak guztira	21	53	9	83	24,8
<i>Quercus robur</i>	0	23	35	57	17,0
<i>Quercus pyrenaica</i>	1	0	0	2	0,6
Ibarbasoa	0	2	0	2	0,6
Hostozabalak	88	8	2	98	29,3
<i>Eucalyptus globulus</i>	0	2	0	2	0,6
<i>Robinia pseudoacacia</i>	0	4	0	4	1,2
<i>Quercus rubra</i>	11	1	0	12	3,6
<i>Platanus hispanica</i>	0	0	2	2	0,6
<i>Castanea sativa</i>	0	1	0	1	0,3
Harizti misto atlantiarra	3	63	6	72	21,5
Hostozabalak guztira	104	104	46	252	75,2
Espezieak guztira	126	157	55	335	100,0

Iturria: EAEko basoen 2005eko inbentarioa. Eusko Jaurlaritzak.

Haranaren atzeko aldean dauden belardiz abalak abeltzaintzarako erabiltzen dira batez ere. 1999ko nekazaritza eroldaren arabera, 97 ustiategi zeuden Lezon, eta 678 hektarea hartzen zituzten; udalerraren %79,76 da hori. Ustiategi guztien %73,2 abeltzaintzarako erabiltzen dira; beraz, lur gehienak horretarako erabiltzen direla esan daiteke.

4. taula: Lezoko nekazaritza-abeltzaintza ustiategiak eta horien azalera (1999).

Ustiategiak	Ustiategi kopurua	ha
<i>Abeltzaintzakoak</i>		
Ganaduarekin	71	369
Ganadu gabe	25	309
Lurrik gabeko ustiategiak	1	
Guztira	97	678

Iturria: EUSTAT

Abeltzaintza ustiategi gehienak txikiak dira, eta udaleko landa eremuan sakabanatuta daude; eta horietarako erabiltzen da sega-belardi zabaletako belardia. 1999ko nekazaritza eroldaren arabera, honako hauek dira Lezoko abeltzaintzaren inguruko datuak:

5. taula: Lezoko abeltzaintza ustiategi motak

Mota	Ustiategiak	Buruak
Behi aziendak	44	669
Ardi aziendak	14	1209
Ahuntz aziendak	2	5
Zerri aziendak	1	2
Zaldi aziendak	13	27
Hegaztitegiak	35	3 (milakoak)
Untxi-amak	9	294

Iturria: Nekazaritza errolda (1999)

3.3 PLAN OROKORRAREN ERAGINA IZAN DEZAKETEN INGURUMEN ALDAGAIK

Atal honetan, udalerriko Plan Orokorraren eragina izan dezaketen ingurumen aldagaiak bereizi dira. Hori egiteko, ONDOAN, S.Coop-ek 2005eko Lezoko Arau Subsidiarioak Berrikusteko egindako diagnostikoa erabili da, besteak beste.

Hona hemen ingurumen aldagaiak; 1.go eranskinean dago horien analisisa:

- Klima
- Geologia, litologia eta erliebea
- Edafologia eta agrologia erabilera
- Hidrologia
- Landaredia
 - o Landaredi potentziala
 - o Gaur egungo landaredia
 - o Interes Komunitarioko Habitatak (92/43/EE Zuzentaraua)
 - o Espezie sailkatuak
- Fauna
 - o Biotopoen araberako espezieak
 - o Espezie sailkatuak
- Paisaia
- Prozesu eta arrisku naturalak
 - o Grabitazio-prozesuekin lotutako arriskuak
 - o Akuiferoen urrakortasuna
 - o Uholde arriskua
 - o Suteak
 - o Sismo arriskua
 - o Arrisku teknologikoak: merkantzia arriskutsuen garraioa
- Inguruaren kontrako kalte antropogenikoak
 - o Airearen kalitatea
 - o Soinuaren kalitatea
 - o Uren kalitatea
 - o Lurzoru kutsatuak
- Inguru sozioekonomikoak
- Mugikortasuna
- Kultur ondarea

3.4 INGURUKO INGURUMEN BALIABIDE BALIOTSUAK

Azterketa-eremuaren ingurumen-ikuspegitik baliotsuak diren eremuak bereizteko, honako irizpide hauek eduki dira kontuan:

- Ahultasuna: baso edo habitat zehatz bat hondatzeko arriskua.
- Berezitasuna: baso edo habitat jakin baten berezitasuna, eta bertako faunarentzat, florarentzat eta espezie berezi edo babestuentzat duen garrantzi ekologikoa.
- Osorik edo partzialki eremu babestuak direnak
- Kontserbazioaren ikuspegitik garrantzitsuak diren eremuak

Hona hemen parametro horiek hautatzeko erabilitako irizpideak:

- Habitat interesgarriak dituzten eremuak (Interes komunitariokoak, autonomikokoak)
- Espezie interesgarrien banaketa-eremuak (Interes komunitariokoak, autonomikokoak)
- Eremu babestuak (Natura 2000 Sarea, EAEko Naturgune babestuak eta abar)
- Osorik edo partzialki korridore naturalak diren eremuak
- Nekazaritza intereseko eremuak
- Kultur intereseko elementuak

Horretarako, honako zerrenda eta erreferentzia hauek izan dira kontuan:

- LAA Lurzorua Antolatzeko Artezpideetako natur intereseko eremuen zerrenda irekia
- EAEko korridore ekologikoen zerrenda
- Natura 2000 Sarerako proposatutako eremuak
- Interes komunitarioko habitatzen kartografia
- Landarediaren kartografia
- Lurzorua keta gaitasun agrolotikoa
- Kultur ondarea

Horren arabera, natur intereseko honako eremu hauek ditu Lezok:

3.4.1 Jaizkibel mendia

LAAetako Natur Intereseko Eremuen Zerrenda Irekian agertzen da, eta Garrantzi Komunitarioko Leku (GKL) izendatu zuten 2004ko abenduan; 2.434 hektarea ditu, eta horietatik 140 inguru Lezon daude, horren iparraldeko mugan, eta izen bereko Erabilera Publikoko Mendiko udalaren lurak hartzen ditu.

Hona hemen interes komunitarioko habitat eta espezieak:

6. taula: Jaizkibelgo GKLko habitat eta espezieak

Jaizkibelgo GKL – ES2120017			
	Eremuak		Azalera (Ha)
	Jaizkibelgo EPM, Hondarribia, Lezo eta Pasaiarena		2.434
Espezieak	Mota-Zuzentaraua		Espezie kopurua
	Hegaztiak – 79/409 EEE Zuzentarauaren I. eranskina		17
	Hegazti migratzaileak		20
	Anfibio eta narrastiak –92/43 EEE Zuzentarauaren II. eranskina		1
	Ornogabeak – 92/73 EEE Zuzentarauaren II. eranskina		2
	Landareak – 92/73 EEE Zuzentarauaren II. eranskina		2
Habitatak (*Iehentasunezko habitatak)	CORINE kodea	Habitat mota (Habitaten Zuzentarauaren I. eranskina)	Estaldura (%)
	1230	Itsasertzeko labarretako landaredia	2,2
	3110	Landare anfibioak dituzten ur oligotrofikoak	-
	4020*	Europako hegoaldeko txilardi hezeak	0,3
	4020*	<i>Molinia caerulea</i> duten txilardi hezeak	0,4
	4030	<i>Ulex europaeus</i> otadiak	21,5
	4040*	<i>Erica vagans</i> ipar txilardiak (itsasertzeko txilardiak)	14,5
	6230*	<i>Deschampsia flexuosa</i> belardiak	4,0
	6410	<i>Molinia caerulea</i> belardiak eta horiekin loturikoak	9,8
	6510	Belar ondu belardi atlantiarrek	2,5
	7150	<i>Rhynchosporion</i> turba substratu gaineko depresioak	0,2
	8220	Landaredi kasmofitikoak duten harkaizti silizeoak	-
	8310	Turismoak ustiatu gabeko kobak	-
91E0*	Ibaitako haltzadi-lizardiak, hezeak ibaiak hazten direnean	0,1	
9230	Amezti kantauriarrak	5,1	

Iturria: guk geuk egina

Jaizkibelgo GKLAN, horren iparraldeko mendi-hegalaren bakantasuna azpimarratu behar da; labar bertikalak ditu Pasaiako sektorean, eta belardi gozoak, berriz, Hondarribian. Larreak, landak eta itsasertzeko txilardiak dira nagusi bi aldeetan, zuzenean itsasora jaisten diren ibarbide estuetan izan ezik; azken horietan, natur interes handiko flora espezieak gordetzen dituzten baso txiki hezeak mantendu dira. Zohi eta erreka txikiak ere azpimarratu behar dira. Hegoaldeko hegalean basoak dira nagusi, eta landaredi potentziala (amezti eta harizti azidofiloak) ordezkatzen duten baso landaketa ugari daude.

Habitat askotarikotasun honek landare espezie interesgarriak ikusteko modua ematen du, garo subtropikalak (*Trichomanes specisum*, *Woodwardia radicans*) eta zohikaztegi eta esfagnaletako landaren txikiak (*Spiranthes aestivalis*, *Sphagnum spp.*) besteak beste. Labarretan, EAeko itsasertzeko espezie endemiko bat ere badago, *Armeria euskadiensis*.

Lezoko sektorean, basoko landaketetako habitatak dira nagusi; hala, konifera espezieak (*Pinus pinaster*) eta hostozabal exotikoak (*Quercus rubra*) azpimarratu behar dira. Jaizkibelgo gailurrean, udalerraren mugan, eta landatutako landareekin nahastuta, *Quercus pyrenaica* ale batzuk aurki daitezke, eremu horretako landaredia potentziala.

Fauna interesgarriari dagokionez, Schreiber muskerra (*Lacerta schreiberi*), ferra-

saguzarra (*Rhinolopus ferrumequinum*) eta bi ornogabe espezie (*Lucanus cervus*, *Eurodryas aurinia*) aurki ditzakegu, habitaten Zuzentarauaren II. eranskinean agertzen direnak, bai eta Hegaztien Zuzentarauaren I. eranskineko 17 hegazti espezie ere.

Eremu hau GKL denez, 92/43 EE Zuzentarauaren 6. artikuluko 2, 3, eta 4 atalek, eta 1997/1995 Errege Dekretuaren 6. artikulua diotena aplikatu behar da; beraz, habitat naturalak eta mendiko fauna eta flora babestuta bioaniztasuna bermatzen laguntzeko neurriak ezarri dira. Hala, bertan edozein jarduera egiteko, jarduera horrek leku horretan izango duen eragina aztertu beharko da, estatu eta erkidego mailako indarreko araudiaren arabera.

Ikus Jaizkibel GKLaren eremua Lezoko udalerrian, *Ingurumen baldintzatzaileak III 3. Planoan*.

3.4.2 Lehentasunezko intereseko habitatak

- Haltzadi kantauriarra

Udalerriko haltzadi onena Luberri inguruan dago, Apaizartza errekaen ertzetan, eta Itturringo industrialdean lurpean sartzen da. Ibaiertzeko baso txiki bat da, eta nahiko ongi kontserbatuta dago, nahiz eta leku askotan haltz lerro estuak baino ez izan.

1go argazkia: Apaizartza errekaen ertzeko haltzadia



Fuente: gu geuk egina

92/43 EE Zuzentarauaren arabera lehentasunezko komunitate intereseko habitata delako da interesgarria (91E0* habitata – *Alnus glutinosa* eta *Fraxinus excelsior* baso alubialak). Gainera, azterketa-eremu honetako baso alubial bakarra da.

- Sastrakadiak eta orkideak dituzten larre lehorrak

Habitat hau udalerriko hainbat lekutan aurki daiteke: Teñelu inguruan, eta Apaiztiartza errekan, Ameztiako errekan eta Arriandiko errekan. Baso edo sastrakadietako ordezeko larrea da, eta belar espezie ugari ditu, gramineak batik bat. Hainbat orkidea espezie dituelako da interesgarria habitat hau.

Lehentasunezko garrantzi komunitarioko habitata da 92/43 EE Zuzentarauaren arabera (6210 habitatak, belardi lehor erdinaturalak eta sastrakafaziesak kare-substratuen gainean, garrantzitsuak dituzten parajeak).

Ingurumen baldintzatzaileak I, 1. Planoan, lehentasunezko garrantzi komunitarioko habitaten kokapena adierazten da.

3.4.3 Hostozabal zuhaiztiak (haritz kandudun basoak, baso mistoak eta ameztiak)

Harizti azidofiloz eta harizti mistoz estalita egon behar luke azterketa-eremuaren zatirik handienak, baina nekazaritzarako erabiltzeko lur horiek belardi eta soro bihurtu direnez, ibarbasoen atzealdean baino ez daude halakoak; dena dela, baso handiagoak ere badira leku batzuetan.

Espezie nagusia *Quercus robur* (haritz kanduduna) da, bai eta *Fraxinus excelsior* (lizar arrunta) eta *Alnus glutinosa* (haltz beltza) -putzuak dauden guneak ageri da batik bat- eta *Castanea sativa* (gaztainondo arrunta) ere. Lezoko erreka behienetan landare horiek osatzen dute ibaiertzeko basoa.

Zuhaizti horiek oso zeregin garrantzitsua dute landazabal atlantiarreko ekosisteman; izan ere, belardi artean daude, eta korridore ekologiko eta babesleku dira espezie askorentzat: arkanbelearentzat (*Lucanus cervus*) -92/43 EE Zuzentarauaren II. eranskinean ageri da-, muxar grisarentzat (*Glis glis*) – Mehaxuan dauden EAEko espezieen katalogoan zaugarri gisa ageri da-, eta basoetako hainbat hegaztarentzat, argi-oilarrarentzat eta saguzar espezieentzat, adibidez. Esan behar da, halaber, landazabala intereseko hainbat fauna espezieren bazkaleku dela, ferra-saguzarrarena (*Rhinolophus ferrumequinum*) eta hainbat hegaztirena, esaterako.

Lurzoru pobreenetan eta aldapa handikoetan, *Quercus pyrenaica* eta *Quercus robur* ameztiak ordezkatu du harizti azidofiloa; gehienetan silize-haitzetik eratorritako lurzoruen gainean daude, elementu mineraletan eta azidoetan pobreak direnetan. Itsasertzeko estazioetan ametz arrunta (*Q. pyrenaica*) ikustea interesgarria da fitosozioologiaren aldetik; izan ere, glaziarren arteko edo sasoi lehor eta nahiko beroen arteko garaian heldu zelako hipotesia dago, eta harrezkero harizti hostoerokorrak errekueratzeke zailak diren estazioetan geratu dela. Azterketa-eremuan oso gutxi ikusten dira, Jaizkibelgo gailurreko zerrenda estu batzuetan baino ez.

Ingurumen baldintzatzaileak I, 1. Planoan, hostozabal basoen kokapena adierazten da.

3.4.4 Ingurumenaren aldetik sentikorrek diren eremuak

EAEko Ingurumena babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Legearen 51. artikulua arabera, "Ingurugiro-zona sentikortzat hartuko dira dauzkaten ingurugiro-balio eta beren hauskortasuneko ezaugarri bereziengatik ingurugiroa gehiago kaltetzeko modua dagoeneko". Eremu horien katalogorik ez dagoenez (egiten ari dira), eta artikulua horren 2. puntuak xedatutakoa aintzat hartuta, honako eremu hauek izango dira ingurugiroaren aldetik sentikorrek diren Lezoko eremuak:

- Udalerritik igarotzen diren etengabeko korronteko ur-ibilgu natural guztien jabari publiko hidraulikoa.
- Ondare artistikoaren zati izateagatik katalogatu edo inbentariatutako eremu eta lekuak, horien ingurua barne.

Azken kasu horretan, EAEko monumentu multzo izendatutako Donejakue Bidea eta Jaizkibelgo dorreak azpimarratu behar dira.

Donejakue Bidea Jaizkibel mendiaren gailurretik igarotzen da, dorreen ondotik, eta Zaskuna inguruan hasten da Lezoko hirigunerantz jaisten.

Trazadu hau paisaia eta kultur interes handikoa da, Jaizkibelgo goiko aldetik hirigunera arteko bidea egiteko modua ematen baitu, haranaren bista zoragarriak ikusiz; mendi hegalaren erdiko aldeko basoa eta landazabaleko paisaia ere zeharkatzen ditu.

Ingurumen baldintzatzaileak I, 1. planoan, udalerriko ubide garrantzitsuenak eta interes kulturala duten elementuen kokapena azaltzen da.

3.5 INGURUAREN KALITATEAREN HAINBAT ALDERDIREN BALORAZIOA

Udalerria ardatz baten inguruan egituratuta dago, lurzorua erabileren morfologiaren eta lurraldearen okupazioaren ikuspegitik. Lezoko haranaren depresioan bildu izan dira nekazaritza erabilerak, belardi eta soroetarako moduko lurzoru ugari baitaude, kalitate handikoak. Erabilera horiek eman diote itxura paisaiari, eta horren askotarikotasuna ere aldatu dute, landaredi eta fauna potentzialaren kalterako; dena dela, aberastasun biologiko handia edukitzen lagundu duen faktore bat ere erantsi dio: landazabala.

Ardatz aho da, era berean, hiria hedatzeko eremua, eta balio handieneko nekazaritza lurra hartzen joan da hori, bai eta bere morfologia aldatzen ere, paisaiaren kalitatearen eta landazabalaren berezko egituraren kalterako. Gaur egun, larre eta baso zabalak daude, oraindik, paisaia eta ekologia balio handikoak, baina kutsadura arazoak ere badituzte errekek, eta hirigintza-presio izugarria ere bai. Balio handieneko eremu horien artean, Herriondo eta Gaintzurizketako landazabala ditugu, mendebaldean eta ekialdean, hurrenez hurren.

Jaizkibelgo hegoaldeko hegalaren morfologia, erabilera eta bilakaera bestelakoak dira: hirigintza hedatzeko muga geotekniko gaindiezinak ditu. Hala, baso gisa eta natur baliabideen aprobetxamendu gisa erabili izan da, eta, horrek ondorioz, duen kalitate ekologikoari eutsi dio orain arte. Sua nolahi erabiltzearen, abeltzaintzaren presioaren, egurra lortzeko baso-soiltzearen eta basoko laboreen

ondorioz, hondatu itxura izan du eremu horrek urte askoan. Hala ere, bere landaredi potentzialari eta bioaniztasunari eutsi dio; gorantz doa egun, eta babestuta dago, Natura 2000 Sareko Interes Komunitarioko Lekua baita. Horregatik, bilakaera ona izango duela aurreikusten da, ingurumenaren biziberritzeari dagokionez.

Lezo itsasertzean egoteak ere, pasaiako portuaren mendebaldeko muturrean, eragin handia du udalerraren hainbat alderditan. Basoko baliabideen aprobetxamendua portuko jardueri lotuta egon da beti, eta udalerraren aberastasuna ere bai. Horrek ospe handiko pertsona ugari ekarri zituen udalerrira, eta ondare interesgarri ugari utzi dituzte horiek: jauretxeak, jauregiak eta baserriak. Jaizkibelgo gailurra estrategikoki kokatuta dago; barnealdea ez ezik, itsasaldea ere ikusten da bertatik, eta talaia ezin hobeia izan da gerra garaian; dorreak ere eraiki zituzten bertan, egun monumentu historiko babestuak direnak.

Gaur egun, industria elementua da portua; udalerrri osora hedatu da, eta industrialdeak ere sorrarazi ditu, landazabala kolonizatuta. Era berean, eskualdea eta udalerraren hainbat zati zeharkatzen duten azpiegitura sareek kontaminazioa eta zarata ekarri dizkiete herritarrei. Hala, industria jarduera eta herritarren bizikaltatea nahiz natur inguruaren kalitate ekologikoa bateragarri egitea da udalerraren erronka.

3.6 LURRALDEKO INGURUMEN UNITATE HOMOGENEOAK

Aurreko ataleko alderdiak aztertuta, lurraldean hainbat ingurumen-unitate daudela ondoriozta daiteke. Unitate horiek ezaugarri jakin batzuk dituzten eremuak dira, bokazio jakin bat ematen diotenak (ikus 5. zbk. *Eremu Homogeneoak*)

Ingurumen unitate homogeneoak bereizteko, honako elementu integratzaile hauen informazio kartografikoa aztertu da:

- Lurzoruaren erabileren mapa
- Lurzoruaren erabileraren gaitasunaren mapa
- Aldapen mapa
- Landare eta habitaten mapa
- Natur eta nekazaritza intereseko eremuak

3.6.1 Hiri-eremua

Mendebaldeko muturreko hirigunearekin, udalerriko trenbide sare osoarekin eta industria eta portu eremuekin dator bat eremu hau. Topografia aldatu egin denez eraikuntza errazteko, %5etik beherako aldapak dira nagusi unitate honetan.

Bizitegi-gunea azterketa-eremuaren mendebaldeko muturrean dago, eta Lezoko hirigunearekin dator bat. Bide-sareak mendebaldetik ekialdera zeharkatzen du azterketa-eremua eta eskualdeko sare nagusiari lotzen zaio. Lau industrialdea daude (Iturrin, Ipintza, Sagasti eta Gaintxurizketa-Errekalde), udalerriko bide-sarearen inguruan sakabanatuta, eta mendebaldeko muturrean portua dago, Pasaiako badiaren ertzean.

Lurzorua erabiltzeko gaitasunik eza, landaredirik eza edo landaredi erruderal-nitrofiloa eta paisaia antropizatua dira unitate honen ezaugarri integratzaileak. Unitate honek hedatzeko joera du, eremu irisgarrienak eta aldapa gutxikoak kolonizatuta, inguruko nekazaritza eremuen kaltetan.

3.6.2 Baso eremua

Aldapa handiak, %30etik gorakoak, eta baso erabilera dira azterketa-eremuko itsas tartearen ezaugarriak. Landarediari dagokionez, zuhaitz espezieak dira nagusi; gehienak landatutakoak dira, eta konifera espeziea keta hostozabal aloktonoak ikus daitezke batez ere; neurri txikiagoan, berriz, ameztiz, harizti azidofiloz eta baso mistoz osatutako landaredi potentzialeko unadak.

Gaitasun ekologiko nahiko uniforme du eremu honek, horren ezaugarri tipografikoek baldintzatua. Lurzorua nekazaritzarako erabiltzeko gaitasuna txikia edo oso txikia da. Hala ere, badira belardi gisa erabiltzen diren eremuak ere, suhesiek irekitako soilguneak aprobetxatuta.

Jaizkibelgo Erabilera Publikoko Mendi eta Interes Komunitarioko Leku gisa sailkatutako eremua sartzan da unitate honetan; beraz, oso balio ekologiko handia du. Antzeko ezaugarriak dituzten eremu mugakideak ere hartzen ditu, eta nekazaritza eta hiri-eremuraino iristen da.

Hortaz, eremu hau babestea eta ingurumena biziberritzea da helburu nagusia.

3.6.3 Landazabal eremua

Azterketa-eremuaren gainerako zatia hartzen du, eta lurzoruaren eta paisaiaren erabilera dira horren ezaugarri homogeen nagusiak. Nekazaritzarako eremua da, erabilera gaitasun nahiko handiko lurzoruak baitira. Paisaia gozoa da, muino txikiak ageri dira ibarbasoen artean, eta baserriak daude sakabanatuta. Lurzoruaren erabilera asentamendu horiekin loturik dago; hala, ganaduarentzako larretarako erabiltzen dira belardiak.

Unitate honetako aldapak %30etik beherakoak dira, eta landarediari dagokionez, belardiak eta labore atlantiarrak eta baso mistoak dira nagusi, bai eta basoak eta ibarbasoak ere ibarbideetan.

Nekazaritzarako erabili izan den eremu honek azpiegitura-sarea eta hiri-eremua ditu inguruan; beraz, tentsio handia dago horien artean.

Paisaia, nekazaritza eta ekologia interes handiko unitatea da. Ibarren atzeko landaredia azpimarratu behar da, ibarbaso eta harizti hondarrak baitaude.

3.7 PLAN OROKORREN XEDE DEN EREMUAREN INGURUMEN DIAGNOSTIKOAREN ONDORIOAK

3.7.1 Aurkitutako arazo nagusiak

Aurreko ataletan egindako analisia, Lezoko ingurumenari eragiten dioten arazo nagusiak bereizi dira:

- Landaredi potentzial eskasa. Giza jarduerarik ez balego udalerrriaren zati handiena estaliko lukeen landaredia apenas ikusten den gaur egun. Gehienez ere ameztia ikus daiteke, tarteka, Jaizkibelen hegoaldeko hegalean eta gailurrean, bai eta haltzadia ere; Apaizartza erreka inguruan dugu

haltzadi bat, hain zuzen. Harizti azidofiloa landazabaleko ibarbasoetan aurki dezakegu, baina horietako asko hondatuta daude.

- Baso landaketa handiak Jaizkibelgo GKLan. Jaizkibelen hegoaldeko hegalarren goiko aldean basolanak egiten ari dira, baso ekoizpenerako eta suteak saihesteko. Natura 2000 Sarean Interes Komunitarioko Leku gisa sartu zutenetik, eremu hori babestea eta bertako landaredi naturala biziberritzea dira helburu nagusiak, bertako erabilera tradizional iraunkorrei eustearekin batera. Landarediaren gaur egungo egoerak erakusten du ez direla bete 92/43 EE Zuzentarauaren helburuak eta jarraibideak, konifera eta hostozabal aloktono landaketen unada handiak baitaude.
- Hirigintzaren presio handiegia landazabaleko sektore emankorrenetan. Udalerriko unitate honek nekazaritzarako ezaugarri onak ditu, baina baita hirigintzarako ere, aldapa txikiko erliebea eta aldeko ezaugarri geoteknikoak baititu. Horren zati batean industrialdeak daude egun, eta horiek presio handia egiten dute eremu honetan. Eremu egokienak okupatzea aurreikusten da, trenbide-sarearen eta beste industrialde batzuen ondoan dago-eta.
- Tentsiogune handiak Jaizkibel-Aiako Harria korridore ekologikoan. Lezoko landazabalaren iparraldea natur interes handiko eremua da, Jaizkibelgo GKLaren eta Aiako Harriko GKLaren arteko indargetze eremua baita. Ezaugarri ezin hobekak ditu landazabalak horretarako, korridore txikiak bezalakoak diren ibar eta zuhaitzi ugari baititu, eta larreek giroak dibertsifikatzen baititu. Hala ere, Gaintzurizketaren gaineko azpiegiturek (bide-sareak, trenbide-sareak, ibaiak eta abar) kalte egiten diote korridore honi, eta, gainera, hori handitzeko asmoa dago, leku ona baita logistika eta industria guneak jartzeko.
- Ingurumenaren kalitatearen gaineko eragina. Oarsoaldeko industria-jarduera handiak, azpiegitura-sare trinkoak eta hiri-aglomerazioak nabarmen eragiten diote Lezoko eguratsaren eta akustikaren kalitateari. Errepideak eta industrialdeak (portuko jarduerak barne) dira zarataren iturburu nagusienak. Atmosferaren kutsadurari dagokionez, portuaren jarduera da, bereziki, eragin handiena duena, ibilgailuen trafikoaz gain. Eragin hauek hiri-gunean ere nabariak dira, ibilgailu handien trafiko garrantzitsuak jasaten dituelako, bai portura bai industrialdeetara joaten direnak.
- Erreka-isurketen arazoa. Nahiz eta azkeneko urteetan udalerriko saneamenduan hobekuntza ugari egin diren, erreka nagusietan (Zubitxo eta Lintzirin) kutsadura nabaria da oraindik, batez ere industria jarduerengatik eragindako.
- Oinezkoentzako mugikortasunaren mugak eta garraio publiko eskasa. Hiri-gunea zeharkatzen duten errepideek jasaten duten trafiko handiek oinezkoen mugikortasuna zailtzen du, herria hiru eremutan zatituz. Garraio publiko murriztak, bereziki industrialdeetara, ibilgailu pribatuaren erabilera areagotu egiten du.

3.7.2 Ingurumena babesteko helburu eta lehentasunak

Laburbilduta, inguruko elementu baliotsuak babestearekin eta prozesu ekologikoekin bateragarria den garapen iraunkorra bultzatzeak izan behar du

Lezoren lurralde-antolamenduaren helburu nagusiak.

Hona hemen helburu berezi nagusiak:

- Natur intereseko eremu nagusiak eta Jaizkibelgo GKLa babestea.
- Habitat potentzialak leheratzea, ibarretako ibarbasoak eta Jaizkibelgo hegoaldeko hegaleko ameztia leheneratzen saiatzea.
- Giza jarduerak egurats, akustika eta hidrologia kalitateari, nahiz kalitate edafikoari egiten dioten kaltea minimizatzea, lurraldea antolatzeko neurri tekniko egokiak aplikatuta.
- Udalerrien beharren arabera hirigintza eta industria hazkundera planifikatzea, tokiko eskaerei kasu eginda, lurzorua artifizializazio-tasa eta natur, geologia eta nekazaritza intereseko eremuen okupazioa arrazionalizatzeko.
- Korridore ekologikoko inpaktuak minimizatzea eta bertako gune sentikorrenak babestu eta biziberritzea.
- Garraio publikoaren erabilera sustatu, maiztasuna eta loturak beste garraio bideekin egokituz (trena, beste autobus zerbitzuak), bereziki industrialdeetara.
- Bidegorri sarea hobetu bizikletaren erabilera sustatzeko, benetako garraio hautagaia izan dadin.
- Hiri-gunean oinezkoen mugikortasuna hobetu.

4	TEKNIKOKI INGURUMEN KONPONBIDEAREN	ARRAZOIZKOAK AZTERKETA. JUSTIFIKAZIOA	DIREN	AUKEREN AURKITUTAKO
----------	---	--	--------------	--------------------------------

4.1 AUKERA BAKOITZEKO JARDUEREN DEFINIZIOA

1.4 eta 1.5 ataletan, Lezoko Plan Orokorren Txosteneko jarduera nagusiak deskribatu dira. Txosten irekia da, eta, bertan, jarduera nagusiak egiteko -bizitegi eta industrialdeak- hainbat aukera ageri dira. Azpiegituren (bide-azpiegiturak batik bat) inguruko proposamenari dagokionez, bi jarduera planteatzen dira; horien helburua da hirigunearen bizigarritasuna hobetzea, zirkulazioak (ibilgailu astunak batez ere) hirigunea zati ez dezan.

Atal honetan, ingurumenaren ikuspegitik aztertu dira alderdi horiek, bai eta aurrerapen txostenaren proposamena ere, oro har.

4.2 "0 AUKERA"

Lezoko planeamendua 1987ko maiatzaren 5koa da; egun horretan onartu zuen Gipuzkoako Diputatu Kontseiluak, behin betiko, Hirigintza Planeamenduko Arau Subsidiarioen proiektua, Juan Díaz Guardamino arkitektoak erredaktatutakoa.

Harrezkero hogeit hamar aldaketa inguru izapidetu dira, bizitegitarako eta industria lurzoru eta ekipamendu beharrak asetzeko, lehendik zetozen arazoak konpontzeko eta ekimen publiko eta pribatuak zuzentzeko; izan ere, udalerrak normal funtzionatzeko eta garatzeko mugak eta hutsune normatiboak ikusi baitziren.

Gainera, udal planeamenduan ez daude sartuta hirigintzari buruzko legeen arau subsidiarioak onartu ondorengo ebazpen eta errekerimenduak, ez eta goragoko mailako lurralde-antolamendu txostenak ere, LAA, LPP eta LPSk besteak beste, ondoren garatutakoak horiek ere. Txosten horiek eta lege-esparru berriak natur baliabideak babesteko eta hirigintza-garapen iraunkorra bultzatzeko kontzeptuak sartzen dituzte planeamenduan, lurzoruaren kontsumoa optimizatuta eta lur-sail artifizializatuaren erabilera lehenetsita.

Lezorako proposatzen den Plan Orokorra datozen urteetarako antolamendu-eredu bat planteatzen dute, iraunkortasun irizpideak erabilita eta lurzoru urbanizaezina horren natur balioren arabera antolatuta, hori babestea sustatzen baitu. Horrekin batera, bestelako behar batzuei ere erantzuten die, etxebizitzarenari -babezia batik batik- eta zuzkidura-ekipamenduenari, adibidez, eta indarreko udal planeamenduak eragindako arazoak konpontzen ditu.

Beraz, "0 aukera" ez da egokia jotzen; egungo Plan Orokorra ez betetzea eta indarreko arau subsidiarioekin jarraitzea suposatuko luke, ez luke lagunduko udalerraren natur baliabide nagusiak babesten, eta ez lituzke lezoarren eskaerak bete.

4.3 AUKERAK BALORATZEKO INGURUMEN IRIZPIDEEN DESKRIPZIOA

Honako adierazleen arabera aztertu dira aukerak:

- Lurzoru ez artifizializatuaren okupazioa
- Natur intereseko baliabideen (GKL, korridore ekologikoa, interes komunitarioko habitatak/lehentasunezkoak, hostozabal basoak, errekek, akuiferoak...) gaineko eragina
- Paisaiaren aurkako kalteak
- Balio agrologiko handiko lurzoruaren okupazioa
- Kultur eta arkeologia ondarearen gaineko eragina
- Garapen berrien kokalekua (bakanduta edo hiri edo industria bilbeetan oinarrituta)
- Lur mugitzeak/ orografiaren aldaketa

Lehentasunezko irizpideak hauek dira:

- Dagoeneko hiritartuta dagoen lurzoruaren erabilera, hiri-ehunetik hurbil egonda ere hiritartu gabeko lurzoruen garapena proposatzen dutenen aurrean.
- Udalerriko ingurumen balioetan eragin txikiena sortu, balio estrategiko handiko nekazaritzarako lurra zaintzen dutenak aukeratuz, batez ere, martxan dauden ustiapenetan eragina badute, eta interes komunitarioko habitatetan eta konektibotasun ekologikoan ahalik eta eragin txikiena dutenak.
- Ahalik eta lur gutxien okupatu, nolahi ere, antzemandako beharrei bakarrik erantzunez.

4.4 AUKERAK ERAGINDAKO INPAKTU NAGUSIEN DESKRIPTIO ETA BALORAZIO OROKORRA

Atal honetan, bizitegitarako eta industria lurzoru berrietarako Aurrerapen fasearen IEBEaren dokumentuan proposatutako hautabideen analisia jasotzen da, aurreko atalean zehaztutako irizpideen arabera, eta bere kontsultarako esandako txostenaren atal berara jotzea gomendatzen da.

Jarduera nagusien inpaktuen analisi xehatua eta inpaktu-taulak txosten honen 5. atalean garatu dira.

4.5 LURZORUEN HARTZE-GAITASUNA GARAPEN URBANISTIKO BERRIENTZAKO

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea garatzeko premiazko neurriei buruzko ekainaren 3ko 105/2008 Dekretuaren 31 artikuluan xedatzen denaren arabera, ingurumenaren iraunkortasunari buruzko txostenak bere baitan izan behar du azterketa-planean jasotzen diren aurreikuspenetarako lurzoruen hartzeko gaitasunari buruzko azterketa, eta kontuan izan beharko ditu ondorengo txosten hauek:

- Administrazio hidraulikoaren txostena eskabide berriak asebetetzeko eta jabari publiko hidraulikoa babesteko, sektorekako arautegiaren arabera nahitaezkoa denean.
- Kostetako administrazioaren txostena itsas lurreko jabari publikoaren mugarrizteari eta babesari buruzkoa, hala balegokio.
- Errepideen eta aurreikusten diren bestelako azpiegituren gaineko administrazio eskudunaren txostena, planean jasotzen diren balizko

afekzioei buruzkoa. Txosten honek hirigintza-jarduerak zerbitzuen gaitasunean duen inpaktua aztertuko du.

Dokumentu hau idazteko orduan, ez da txostenik jaso.

4.6 HAUTATUTAKO KONPONBIDEAREN JUSTIFIKAZIOA. ANTOLAMENDU-EREDUAREN BALORAZIOA

1.3 atalean adierazi den bezala, egoitza eta industria garapen berrietarako hautatu diren alternatibak 2. *Hautabidea (Olatzar)* eta 2. *Hautabidea (Gaintxurizketa)* izan dira.

Ezarritako antolamendu-eredua ingurumenaren ikuspegitik baloratzeko, honako parametro hauek aztertzen dira:

- Lurzoru urbanizaezinaren kontsumoa eta lurzoruaren artifizializatzea
- Sistema orokorren sareko guneez libreen zuzkidura
- Lurzoru urbanizaezinaren eta naturaguneen erabilera
- Mugikortasuna (bide berriak, bidegorriak,...)

❖ Lurzoru urbanizaezinaren kontsumoa eta lurzoruaren artifizializatzea

Lezok 846,55 hektarea ditu, eta horietatik 724,84 lurzoru urbanizaezina dira. Azalera hori udalerraren %86 bada ere, baliabide mugatua da, eta arrazionalizatu egin behar da horren kontsumoa, hirigintza, industria eta azpiegiturak hedatzea planteatzerakoan, Plan Orokorren helburuetan adierazi bezala. Lurzoru urbanizaezinaren kontsumoa da udal planeamenduaren iraunkortasuna baloratzeko erabiltzen den adierazle esanguratsuenetako bat.

Hurrengo taulan, lurzoruaren sailkapenaren egoerak alderatzen dira, oraingo Plan Orokorra idatzi baino lehengo egoera eta honen bidez egindako proposamenak burutu ostean dagoen egoera artean. Lurzoruaren kontsumoari dagokionez, bai urbanizaezinatik urbanora aldatzea eta baita garraio azpiegiturengatik okupatutako lurzoru urbaezina ere kontuan hartzen dira.

7. taula: Lurzoruaren kontsumoa - Azalera (m²)

HIRI ANTOLAMENDU EREMUA	HIRI-LURZORUEN AZALERA / URBANIZAGARRIA / URBANIZAEZINA AZPIEGITURAK SISTEMA OROKORRA	
	AURREKOA	PLAN OROKORRAREN BERRIKUSPENA
H.A.E. 1 ALDE ZAHARRA	38.015	38.015
H.A.E. 2 ALDE ZAHARRAren KANPOALDEA	29.360	29.360
H.A.E. 3 ERDIGUNE	103.595	103.595
H.A.E. 4 KABITTE	27.235	27.235
H.A.E. 5 XOXOLURRA	-	25.412
H.A.E. 6 OLATZAR	-	28.705
H.A.E. 7 FUTBOL ZELAIA	-	11.925
H.A.E. 8 IKASTOLA	-	4.190
H.A.E. 9 HILERRIA	2.990	2.990
H.A.E. 10 SAGARDI MALDA	-	1.500
H.A.E. 11 ISASTI	4.024	4.024
H.A.E. 12 ANTIGUO POLIGONO 7	6.961	6.961
H.A.E. 13 MARRUKENE	15.418	15.418

HIRI ANTOLAMENDU EREMUA	HIRI-LURZORUEN AZALERA / URBANIZAGARRIA / URBANIZAEZINA AZPIEGITURAK SISTEMA OROKORRA	
	AURREKOA	PLAN OROKORRAREN BERRIKUSPENA
H.A.E. 14 ALGEPOSA 1	41.712	41.712
H.A.E. 15 ALGEPOSA 2	111.572	111.572
H.A.E. 16 MAINTZINE ESTE	5.855	5.855
H.A.E. 17 MAINTZINE	1.860	1.860
H.A.E. 18 MAINTZINE OESTE	-	3.235
H.A.E. 19 BAT, BI, HIRU ETXEAK	-	1.857
H.A.E. 20 ALTAMIRA	99.232	99.232
H.A.E. 21 EUSKAL HERRIA	27.423	27.423
H.A.E. 22 BARIANTEA	17.397	17.397
H.A.E. 23 FERROCARRIL	17.642	17.642
H.A.E. 24 N1	13.833	13.833
H.A.E. 25 PAPRESA ²	81.900	81.900
H.A.E. 26 ARRAITOKI	4.763	4.763
H.A.E. 27 LARRAÑAGA	3.202	3.202
H.A.E. 28 ALCOHOLERA	4.212	4.212
H.A.E. 29 VILLAS	3.735	3.735
H.A.E. 30 ALTZATE	11.392	11.392
H.A.E. 31 SAGASTI	151.377	151.377
H.A.E. 32 IPINTZA	129.500	129.500
H.A.E. 33 ITTURRIN	53.101	53.101
H.A.E. 34 SALVA	77.975	77.975
H.A.E. 35 GUIASA	12.185	12.185
H.A.E. 36 GAINXURIZKETA	-	134.104
H.A.E. 37 VIAS URBANAS	12.968	12.968
N1 - GI2638 BIDE-LOTUNEA	-	32.464 *bide azpiegiturek betetako lurzoru urbanizaezina
Portuko Sistema Orokorra	106.663	106.663
GUZTIRA	1.217.097	1.460.489

Beraz, **lurzoruaren kontsumoa**, lehenago adierazi bezala ulertuta, 243.392 m²etan kokatzen da, hau da, **24,34 ha**. Honek esan nahi du gaur egun existitzen den lurzoru urbano eta urbanizatzailea %20 batean handitzen dela, gutxi gorabehera. Hala ere, kontuan izan behar da proposamen hauen parte bat artifizializatutako³ lurzoruen (hiri eta industrialak) gain egiten dela, eta batzuetan ez direla bizitegi garapen berriak proposatzen, existitzen direnen bermatzea baizik. Bestalde, gune libreen sistema orokorraren zuzkiduran azalera handia proposatzen da, bere balio naturalak kontserbatu eta hiritarrentzat eskuragarri egoteko helburuekin, lurzoru artifizializatu gabe. Beraz, azalera hauek deskontatuz, gaur egun ingurune edo landa lurrak diren azalaren benetako okupazio eta artifizializazioa 20 ha besterik ez dira. Egun existitzen den **lurzoru urbanizaezinari** dagokionez, bere osotasunean (724,84 ha), eragina mugatua da, baliabide honen **%2,7aren murriztea** besterik ez suposatuz.

Proposamenen lurzoruaren artifizializazioaren ekarpenari dagokionez, industria-lurzoru berrien garapenak eragiten du kalterik handiena, ia denak egun okupatu gabe dauden lurzoruetan garatzen baitira. Lurzoruaren kontsumoaz eta artifizializazioaz gain, paisaiaren eta natur inguruaren gaineko eragin handia dute garapen horiek.

Bizitegitarako garapenei dagokienez, berriz, Olatzarko sektorea soilik proiektatu da

² Urbanizaezina den lurzoruaren sailkapena aldatzeko AASSen Aldaketa egun bideratzen ari da. Hortaz, lurzoruaren kontsumoari dagokionez, lurzoru hau hiritartutzat jotzen da ("jadanik kontsumitua").

³ Lurzoruaren artifizializazioa, lurzoruaren egoera naturalaren eraldaketa bezala ulertua, etxebizitza, errepede, aparkaleku, industria, etabarren eraikuntzak eragindakoa.

egun "birjina" den lurzoru batean, nahiz eta egungo hiri-bilbearen ondoan egon; izan ere, hirigunean daude bizitegitarako gainerako lurzoruak, lurzoru eraldatueta eta, kasu askotan, industria-lurzoruak (jarduera batzuk lekuz aldatuta) edo bazter geratutakoak biziberritzea suposatzen du. Plan Orokorreko antolamendu-irizpideek eurek mugatzen dute bizitegien ugaltzea Zubitxo errekaen ibarrera, lurzoru artifizializatu eta etxebizitza hutsen biziberritzea lehenetsita eta, horrela, inpaktuak natur eta paisaia balio handiagoko gunetara aldatzea saihestuta.

❖ **Udalerriko sistema orokorren sareko guneez libreen zuzkidura**

Udalerriko sistema orokorren sareko berdegune eta hiri-parkeen falta handi adu Lezok egun. Hain da hala, non gaur egun ez diren betetzen EAeko Lurzoruaren inguruko Legeak ezarritako gutxieneko estandarrak, horrelako lurzoruaren erreserbak biztanleko 5 m²-tik gorakoa izan behar duela baitio horrek.

Alde horretatik, hainbat eremu mugatzen ditu Hasierako Onarpenerako Plan Orokorren Txostenak, eskaera horiek betetzeko. Proposamenik esanguratsuen Xoxolurra eremuko da; 25.412 m² -ko gunea da, eta natur balio handiko inguru batean dago, baita hirigunetik hurbil ere, eta erraz irits daiteke bertara. Olatzar eremuan, bestalde, 8.428 m²ko azalera proposatzen da, Xoxolurraren ondoan, udalerraren eremu berde handiena osatuz.

Guztira, udalerriko sistema orokorren sareko guneez libreetarako 33.840 m²-ko azalera proposatzen du Plan Orokorra (Xoxolurra eta Olatzar), bermatzen denarekin eta jadanik dagoenarekin batera 121.922 m² batzen dutelarik, Memoriaren II.3.8 atalean adierazten den bezala. Nahiz eta Salvaren guneez libreen azalera kendu, kokatzen diren lekua hiritarreatatik erabiliak izan ezin direlako, Plan Orokorrean barneratutako guneez libreen azalera guztia parametro honen inguruko eskaeren bikoitza da, 49.408 m² inguru (egungo populazioa eta garapen berriekin izango dena kontuan hartuta) 2006ko ekainaren 30eko Lurzoru eta Urbanismoaren Legearen 78. artikulua zehazten duenaren arabera.

❖ **Lurzoru urbanizazioaren eta naturguneen erabilera**

IEBE txosten honen 1.5.1 atalean, Plan Orokorren memoriak lurzoru urbanizazioa antolatzeko definitutako kategoriak deskribatu dira.

Antolamendu proposamen honen azterketatik ondoriozta daitekeenez, balio handieneko natur eremu gehienak babestuta geratuko dira, eta udalerraren elementu egituratzaileak izango dira. Horixe da Jaizkibel mendiaren eta korridore ekologikoaren kasua, hain zuzen, garapen berrientzako mugak ezarri eta hirigunearen zati bat inguratuko duen babes-tarte bate zarrri dute, industria eta bizitegi erabilera bereizita eta, aldi berean, udalerriko iparraldeko eta hegoaldeko naturguneen arteko lotura ekologikoa ahalbidetuta.

Lurzoru urbanizazioa antolatuta, halaber, garrantzi handia ematen zaio landazabaleko paisaiari; izan ere, Lezoren ezaugarria denez babestu egin nahi da hori. Paisai ahoi babestuta, lehen sektoreko ekonomia jarduerari ere eman nahi zaio balioa, eta horren kultur garrantzia azpimarratu, udalerraren "nortasun ikur" bihurtuta.

Gaintzurizketako eremuan soilik hausten da jarduera-proposamenen eta natur balio handieneko eremuen babesaren arteko oreka hori. Lehentasunezko interes komunitarioko bi habitat daude eremu horretan, eta proposatutako jarduerak mugatu egiten du horiek babes bereziko eremu gisa babestea.

❖ **Mugikortasuna (bide berriak, bidegorriak,...)**

Mugikortasunaren ikuspegitik, Plan Orokorraren Memoriaren Txostenak zirkulazioak -ibilgailu astunek batik bat-, eta Donibanerako (GI-3440) eta Gaintxurizketarako (GI-2638) errepideek eragindako hirigunearen zatitzearen arazoak jorratzen ditu. Arazo horiek konpontzeko, bide-eskema berri bat proposatzen du; batetik, Lanbarrengo biratokiaren parean industrialdeen eta CN-1en arteko lotura zuzena hobetzeko beharra planteatzen da (N.1-GI.2638 Bide-lotunea); bestetik, berriz, portutik saihezbide bat egitea, Donibaneko errepidetik (GI-3440) doan zirkulazioarentzat.

Lehen proposamenak abantaila ugari ditu Lezoko hiri-eremuarentzat, ingurumenaren ikuspegitik, eta beste hiri-eremuei ez die kalterik egiten; gainera, eragin txikiagoa edukiko luke inguru fisikoaren eta paisaiaren gainean, azkenean tunel bat egingo balitz.

GI-3440 saihezbidearen inguruko proposamenari dagokionez, Jaizkibel etorbideko eta Elias Salaberria kaleko kutsadura atmosferiko eta akustikoa nabarmen gutxitzea ekarriko luke horrek, eta hirigunearekiko zatiketa ere txikitu egingo litzateke. Hala ere, eta behin betiko diseinuaren, lur gaineko kotaren eta soinu-inpaktuak minimizatzeko sistemen arabera, kalte egin liezaioke Polentzarrene kaleari. Dagokion fitxan adierazten den bezala (H.A.E. 2 Bariantea), eskudun den erakundeak zehaztuko du hautabide egokiena eta bere ingurugiroarekiko eraginak.

Hiriguneko zirkulazioa kentzea ona izango litzateke oinezkoentzat eta egun sakabanatuta dauden eremuak komunikatzeko.

Bestalde, bidegorri baten bidez Lezo Errenteriarekin eta Donibanerekin lotzea proposatzen du Memoriaren txostenak; proposamen positiboa da, bai eta beharrezkoa ere. Gaintxurizketarako errepidearen iparraldean ere proposatzen da bidegorri bat; GI-2638 errepidearekin mugan egongo litzateke hori. Bide horren dohainik handiena da bide horretako lantokietara joateko komunikazio bide izatea.

5 JARDUEREN ERAGINEN IDENTIFIKAZIO ETA BALORAZIOA

5.1 PLAN OROKORRAK HELBURUEK INGURUMENEAN IZAN DITZAKETEN ERAGINEN AZTERKETA

Plan Orokorren helburuak hirigintzari aplikatutako iraunkortasunarekin loturiko kontzeptuak sartu dituzte, lurzoruaren okupazioaren arrazionalizazioa eta behar egiaztagarrien arabeko okupazioa, besteak beste. Hiri eta natur ingurumenaren kalitatearekin eta babesarekin loturiko helburuak ere sartu dira, bai eta ondare kultural eta historikoaren babesarekin ere. Helburu horiek bateragarriak dira udalerriz gaindiko arteztarauekin eta EAEko Lurzoruari buruzko Legearen irizpideekin.

5.2 PLAN OROKORRAREN JARDUERAK IZAN DITZAKETEN ERAGINEN IDENTIFIKAZIOA ETA BALORAZIOA

Atal honetan, Plan Orokorrean proposatutako jarduerak –eragin nabarmena dutenak eta 1.6 atalean definitu direnak- ingurumenari eragin diezaioketen kalteak baloratuko dira. Horretarako, Ingurumen Inpaktuari buruzko 1131/1988 Errege Dekretuaren I. eranskinean definitutako kontzeptu teknikoak erabili dira.

Ikertzen diren eremuak hauek dira:

- Gaintxurizketako eremua. Lurzoru industrail berria (H.A.E. 36 Abendaño, H.A.E. 38 Gaintxurizketa) eta bidea (N1-GI2638 Bide-lotunea).
- Olatzar eremua. Egoitza garapen berria (H.A.E. 6 Olatzar), azpiestazio elektrikoa (H.A.E. 10 Sagardi Malda), gune libreen sistema orokorraren zuzkidura (H.A.E. 5 Xoxolura) eta ekipamendu komunitarioen bermatzea (H.A.E. 7 Futbol Zelaia, H.A.E. 8 Ikastola).
- Hiri-guneko eremua. Egoitza garapen berria (H.A.E. 11 Isasti, H.A.E. 13 Marrukene, H.A.E. 14 Algeposa 1, H.A.E. 17 Maintzine, H.A.E. 26 Arraitoki), ekipamendu ornidura (H.A.E. 7 Futbol Zelaia, H.A.E. 8 Ikastola), eta erabileraren bermatzea (H.A.E. 18 Maintzine Oeste, H.A.E. 19 Bat, Bi, Hiru Etxeak)

5.2.1 **Gaintxurizketa eremua**

Industria garapen berrien (H.A.E. 36 Gaintxurizketa) eraginak ikertzen dira, eta baita N-1 eta GI-2638 arteko komunikazio bidearen (H.A.E. 37 N1 – GI2638 Bide-lotunea) eraikuntzarenak ere.

A) Ingurumena baldintzatzen duten faktoreak

- Lehentasunezko interes komunitarioko habitatak: Haltz beltz (*Alnus glutifolia*) eta lizar arrunt (*Fraxinus excelsior*) baso alubialak (91E0* kodea) eta kare-substratuen gainean larre lehor seminaturalak –orkidea garrantzitsuak dituzten parajeak- (6210* kodea) daude.
- Hostozabalen basoak
- Interes komunitarioko habitata: Segar-belardi pobreak (6510 kodea).
- Balio agrologikoa: balio Estrategiko Handiko lurzorua, Nekazaritza eta Basogintza LPSaren arabera.
- Ingurumen aldetik sentikorrek diren eremuak: Apaizartza eta Batxillerborda errekek eta Juanotene erreka Sagastiren ondoan.
- Akuiferoen kutsadurarekiko zaurgarritasuna: EAEko Ingurumen Kartografia Sistemaren arabera, jardun-eremua zaurgarritasun eskaseko eremu batean dago.
- Aldapak: EAEko Ingurumen Kartografia Sistemaren arabera, %5-10eko aldapak daude jardun-eremuan.
- Kultur ondarea: EAEko Balizko Arkeologia Guneak daude jardun-eremutik hurbil (Santiagoko ermita, Apaizartza, Itsua Bekoa eta Itsua Goikoa baserriak), eta horien elementuak eta ingurua sentikorrek dira ingurumen aldetik.
- Zarata: Zarata Maparen arabera, 60 dB-tik gorako (A) zarata du jardun-eremuaren zati handi batek.

B) Eraginaren identifikazio eta balorazioa

- Natur baliabideen galera

Jarduera nagusia (H.A.E. 36 Gaintxurizketa) interes komunitarioko belardi-eremu batzuetan izango da, baina baliabide hori ugaria da udalerrian. Industrialdea hartuko duen eremurako sartzeko natur balio handiko eremu bat zeharkatzea proposatzen da, lehentasunezko interes komunitarioko bi habitat baititu. Apaizartza eta Batxillerborda erreketako haltzadiak (*Baso alubiala*, 91E0* kodea) balio berezia du; ongi kontserbatuta dago eta udalerriko lehentasunezko intereseko eremu bakarra da. Interes komunitarioko *larre lehor seminaturalen* (6210* kodea) habitatari ere eragingo lioke. Proposatutako sarbideak nabarmen eragin liezaiokete habitat horien osotasun eta kalitateari.

Bidearen handitzea eta biribilgunea Gaintxurizketa-Lezo errepidean, Altitude txikiko segar-belardi pobreak (6510 kodea) habitatari eragiten dio, halaber Juanotene erreka eta bere ibaiertzeko landarediari (hostozabal basoa, altza, lizar eta haritzez osatua). Saihesbidea aldatzea edo luraren egoerari moldatzeak (balio handiena duten eremuak ahal den gutxien erabiltzen), eragina nabarmenki murriztea lortuko lukete.

Faunari dagokionez, belardiekin eta landazabalarrekin lotutako espezieei eragingo lieke batik bat, eta higikortasun txikikoak izango lirateke kalteberenak. Ibaiertzeko

ekosistemari eta basotxoei loturiko faunari ere eragin liezaioke jarduerak.

- Ingurumen aldetik sentikorrek diren eremuen gaineko eragina

Apaizartza eta Batxillerborda erreken bilguari eragin liezaioke jarduerak, industrialdera sartzeko bideak zeharkatuko bailituzke horiek, halaber Juanotene erreka, biribilgunearen eraikuntzagatik. Balizko arkeologia guneei dagokienez, sailkatutako elementuak jardun-eremu honetatik kanpo daude, baina horrekin mugan; beraz, eragin zuzena izango luke jarduerak horien inguruan, batez ere Itsua Goikoa eta Apaiziarza baserrietan.

- Estetika-kultur edo paisaia baliabideen gaineko eragina

Gaintxurizketako triangelua deitutakoa landazabal paisaia duen eremua da, muino txikiak ditu, eta belardi eta baserriak dira horietan nagusi, bai eta ibaiertzeko landaredi ongi kontserbatua duten bi erreka ere. Paisaia kalitate handiko ingurua da. Proposatutako jarduerak nabarmen aldatuko luke paisaia, industria ezarriko bailitzateke landa eremu horretan.

Lezo-Gaintxurizketa errepidearen biribilgunearen eraikuntzak Juanotene errekaaren basoaren ezabatzea suposatuko luke, balio paisajistikoa duen elementu baten gaineko eragin handia izanik.

- Baliabide berriztagarri eta ez-berriztagarrien gaineko eragina

Lurzoru urbanizaezineko 134.104 m² kontsumitzea suposatzen du jarduera honek, industrial urbanizagarrian eraldatzen dena eta H.A.E. 36 Gaintxurizketa garapen industrial berrira dagokio guztiz. Azalera honi lurzoru urbanizaezina gehitu beharko litzaioke, N-1 eta GI-2638 errepideen arteko lotuneak beteko duena, eta 32.464 m² lurzoruaren artifizializazioa suposatuko duena.

Lurrazpiko uren kalitateari ez dio eragingo, akuiferoen kutsadurarekiko zaurgarritasuna txikiko eremua baita.

Lanen faserako aurreikusitako lur-mugitzeak eta sarbidea eraikitzeak Apaizartza eta Batxillerborda erreketako uraren kalitateari eragin liezaiekete. Ustiapen fasean, erreken gaineko biaduktuak eragin negatiboa izan lezake elementu horrengan, noizbehinkako isuriengatik. Juanotene erreka dagokionez, biribilgunea planteatua dagoen moduan ubidearen lurperatzea suposatuko luke.

- Hondakin-sortzea eta kutsaduraren areagotzea

Lanek iraun bitartean hondakinak sortuko dira eta kutsadura atmosferiko eta akustikoa areagotuko, lur-mugitzearen eta kamioien ondorioz batik bat.

Ustiapen fasean, hondakin-sortzea eta kutsadura atmosferiko eta akustikoa eremu horretako industria-jardueraren arabera izango da. Memoriaren txostenean aurreikusi bezala, Algeposaren zati bat eta hiri-gunetik gertu dauden beste enpresa batzuk bertan ezartzeak atmosferaren eta akustikaren kalitateari eragin liezaieke; beraz, beharrezko neurriak hartuko dira.

- Giza osasuna, lasaitasuna eta hiriko ingurumenaren kalitatea

Lanek iraun bitartean enbarazu egingo zaie inguruko bizilagunei, eta zirkulazio arazoak ere izango dira, zarataren, lur-mugitzeen eta kamioien ondorioz. Fase hori amaitutakoan, instalazio berriak nabarmen aldatuko du lanen aurreko lasaitasuna; beraz, eta bertan ezartzen diren jardueren arabera, giza osasunari ere eragin liezaioke.

- Ekologia eta nekazaritza produktibitatearen galera

Jarduerak Nekazaritza Balio Estrategikoko 14 hektarea inguru galtzea suposatuko du.

- Kultur ondarearen galera

Hasiera batean, ez da kultur intereseko elementuen galerarik aurreikusten, jardun-eremutik kanpo baitaude horiek. Hala ere, oso hurbil. Jardun-eremuarekin mugan ia, balizko arkeologia guneak daudenez, elementu horien inguruari eragitea aurreikusten da.

- Mugaz gaindiko eragin posibleak

Ez da halakorik aurreikusten.

- Arrisku eratorriak

Ez da halakorik aurreikusten.

GAINTXURIZKETA EREMUAREN GAINKO ERAGINEN MATRIZEA

ERAGINAK		TAMAINA		ZEINUA		EKINTZA MOTA		SINERGIA			EPEA			IRAUPE-NA		ITZULGARRI-TASUNA		BERRESKURAGARRITASUNA		AGERRALDIA		IRAUNKORTASUNA		ERAGINAREN IZAERA *				
ALDAGAI	ERAGINA	HANDIA	MINIMO	POSITIBOA	NEGATIBOA	ZUZENA	ZEHARKAKO	SINPLEA	METAGARRIA	SINERGIKO	LABURRA	ERTAINA	LUZEA	BEHIN-BEHINEKOA	BEHIN BETIKO	ITZULGARRIA	ITZULEZINA	BERRESKURAGARRIA	BERRESKURAEZINA	ALDIZKAKO	IRREGULARRA	JARRAITUA	ETENDUNA	BATERAGARRIA	MODERATUA	HANDIA	KRITIKO	
Natur baliabideak	Landareen gaineko eragina	X			X	X				X	X				X		X	X					X			X		
	Animalien gaineko eragina	X			X	X		X			X				X	X		X					X			X		
	Ekosistema interesgarrien gaineko eragina	X			X	X		X			X				X		X	X					X				X	
Eremu sentiberak, ingurumenari dagokionez	Ingurumenari dagokionez sentiberak diren eremuen gaineko eragina	X			X	X		X			X				X		X	X					X			X		
Estetika, kultur edo paisaia baliabideak	Paisaiaren gaineko eragina	X			X	X		X			X				X		X	X					X				X	
Baliabide berriztagarri eta ez-berriztagarrien gaineko eragina	Lurzoru kontsumoa	X			X	X				X	X				X		X		X				X			X		
	Lur gaineko uraren kalitatea	X			X		X		X			X			X	X		X						X		X		
	Lur azpiko uraren kalitatea																											
Hondakinak eta kutsadura	Hondakin kopurua eta kutsadura handitzea	X			X	X		X			X				X	X		X					X			X		
Giza osasuna, lasaitasuna eta hiriko ingurumenaren kalitatea	Hiriko ingurumenaren kalitatearen gaineko eragina	X			X		X	X			X				X	X		X					X			X		
Ekologia eta nekazaritza produktibitatea	Nekazaritza balio handiko lurzorua galtzea	X			X	X		X			X				X		X		X				X				X	
Kultur ondarea	Kultur ondarearen gaineko eragina		X		X	X		X			X				X	X		X					X		X			
Mugaz gairik eraginak	Mugaz gairik eraginak sortzea																											
Proposamenaren ondoriozko arriskuak	Arriskuak sortzea																											

* Eraginaren indarra txosten honetako babeste, zuzentze eta konpentsatze neurrien arabera txikituko da.

5.2.2 Olatzar eremua

Egoitza garapen berrien (H.A.E. 6 Olatzar), azpi-estazio elektrikoaren instalazioaren (H.A.E. 10 Sagardi Malda), gune libreen sistema orokorraren zuzkiduraren (H.A.E. 5 Xoxolurra) eta ekimpamendu komunitarioaren bermatzearen (H.A.E. 7 Futbol Zelaia, H.A.E. 8 Ikastola) eraginak aztertzen dira.

A) *Ingurumena baldintzatzen duten faktoreak*

- Interes komunitarioko habitatak: Habitaten Maparen (Goeuskadi, Eusko Jaurlaritza) arabera, *Sega-belardi pobre baxuak* (6510 kodea) habitata dago jardun-eremu honetan.
- Landaredi interesgarria: H.A.E. 6 Olatzar-en zati batek baso misto eta ibaiertzeko landaredia masa txiki bati eragiten dio.
- Balio agrologikoa: Nekazaritza eta Basogintza LPSaren arabera, balio estrategiko handiko lurzoruan egingo da jarduera.
- Akuiferoen kutsadurarekiko zaurgarritasuna: EAeko Ingurumen Kartografia Sistemaren arabera, jardun-eremua zaurgarritasun eskaseko eremu batean dago.
- Aldapak: EAeko Ingurumen Kartografia Sistemaren arabera, %5-10eko aldapak daude jardun-eremuan.
- Ingurumen aldetik sentikorrek diren eremuak: eremu honek Olatzar errekarerkin muga egiten du ekialdean eta Donejakue Bidearekin mendebaldean.
- Zarata: Zarata Maparen arabera, 50-55 dB-ko (A) eremu batean dago jardun-eremua.

B) *Eraginen identifikazio eta balorazioa*

- Natur baliabideen galera

Hirigintza-jarduerarako eremu mugatu osoan interes komunitarioko habitatak diren belardiak daude egun; beraz, lur-mugitze eta horien ondorengo eraikuntzek (eraikinak, bideak) habitatak horiek galaraziko dituzte. Olatzar errekarerako baso misto eta ibaiertzeko landarediak ere kalteak izan ditzakete, baina ez da kalte handirik aurreikusten; izan ere, lanak muinoaren goiko aldean izango dira, eta zuhaitziaren zatirik handiena ibarrean dago.

Belardiekin lotutako faunak izango du eraginik handiena; mugikortasun eskaseko espezieak dira bereziki kalteberak, anfibioak, narrastiak eta mikrougatzunak, besteak beste.

- Ingurumen aldetik sentikorrek diren eremuen gaineko eragina

Nahiz eta H.A.E. 6 Olatzar errekarerako ertzaraino hedatzen den, bizitegi eraikin berriak eta urbanizazioa errekareratik 25 metro aldentzen dira. Lurzoru urbanizaezineko "Lurrazaleko uren babes eremua"ren babes-tartea ur-ibilguaren alde bakoitzean 10 metrokoa dela kontuan hartuta, 25 metroko distantzia nahikoa da errekareratik kalterik ez egiteko.

Jardun-eremuaren mendebaldeko aldearekin mugan, Donejakue Bidea dago (ikus "Kultur ondarearen galera" atala).

- Estetika-kultur edo paisaia baliabideen gaineko eragina

Egoitza garapen berria (H.A.E. 6 Olatzar) eta azpiestzio elektriko (H.A.E. 10 Sagardi Malda) muinoaren goiko aldean daude, hilerriaren eta futbol zelaiaren ondoan, Lezoko hirigunearen alboan dagoen eremu batean; beraz, lehendik dagoen bizitegiaren jarraipentzat hartu daitezke.

Proposamen hauen kokapena hirigunearen eremu altu batean dela eta, udalerriko leku askotatik ikus daitezke, eta kalte egiten dio, nolabait, paisaiari. Eraikin berriak eta urbanizazioa diseinatzeko orduan kontuan izan beharko dute hori, eragin hori ahalik eta gehien txikitzeko.

- Baliabide berriztagarri eta ez-berriztagarrien gaineko eragina

Lurzoru urbanizaezineko 71.732 m² kontsumitzea suposatzen du jarduerak. Hala ere, bertatik 33.840 m² espazio libreen sistema orokorrean barneratzen dira (H.A.E. 5 Xoxolurra eta H.A.E. 6 Olatzar-en 8.428 m²) eta H.A.E. 7 Futbol Zelaia-ren azalera (11.925 me) gaur egun instalazio desberdinez beteta aurkitzen da. Beraz, artifizializatzen den lurzoru azalera txikiagoa izango da.

Lurrazpiko uren kalitateari ez dio eragingo, akuiferoen kutsadurarekiko zaugarritasuna txikiko eremua baita.

Lanen faserako aurreikusitako lur-mugitzeek Olatzar erreka uraren kalitateari eragin diezaioke, baina eragin hori lanak bukatu ahala desagertuko da.

- Hondakin-sortzea eta kutsaduraren areagotzea

Lanek iraun bitartean hondakinak sortuko dira eta kutsadura atmosferiko eta akustikoa areagotuko, lur-mugitzearen eta kamioien ondorioz batik bat.

Ustiapen fasean, populazio handitzeak hiri-hondakinen ugaritzea ekarriko du, bai eta zirkulazioarena ere, eta litekeena da zarata eta kutsadura ere areagotzea. Bizitegi berrian 120 etxebizitza berri egitea aurreikusten da; udalerriko eremurik jendeztatuenaren hiri-eremuaren ondoan egongo dira eta, hortaz, onartzeko modukoa da eragin hori.

- Giza osasuna, lasaitasuna eta hiriko ingurumenaren kalitatea

Lanek iraun bitartean enbarazu egingo zaie inguruko bizilagunei, eta zirkulazio arazoak ere izango dira, zarataren, lur-mugitzeen eta kamioien ondorioz.

Fase hori amaitutakoan, sarbide berriak erraztu egingo du bizitegi berriko eta lehendik dauden etxebizitzetako zirkulazioa, eta aparkaleku gehiago egongo dira. Gune publiko libre urbanoen zuzkidura garrantzitsuak (zentzu honetan Plan Orokorrek egindako proposamen garrantzitsuena), eta ekipamendu komunitarioen bermatzeak, biztanleen bizi kalitatean eragin positiboa izango dute. Hala ere, biztanleriaren hazkundeak zirkulazioa eta zarata areagotu dezake, eta eraikin berriek paisaiaren eraldatzea. Azkenik, H.A.E. 8 Ikastola-n aurreikusitako ekipamenduak eremu berde baten galera ekarriko du, baina dimentsio txikikoa.

- Ekologia eta nekazaritza produktibitatearen galera

Jardueraren zatirik handiena Nekazaritza Balio Estrategikoko lurzoruan egingo da.

Hala ere, H.A.E. 7 Futbol Zelaia eta H.A.E. 8 Ikastola-ren azalerak egun artifizializatuak edo betelanek eragindako eremuetan garatzen dira.

- Kultur ondarearen galera

Hirigintza-jarduerarako eremuaren mendebaldean eta horrekin mugan Donejakue Bidearen zati bat dago, Jaizkibeldik datorrena. Bidetik hurbilen dagoen eremua hiri-gune libreterako da; hortaz, jarduerak ez lieke gehiegi eragin behar horren orografiari eta paisaiari. Dena dela, eremu honetarako proposatutako edozein jarduerak kontuan eduki beharko du halako kultur elementu baliotsuaren hurbiltasuna.

- Mugaz gaindiko eragin posibleak

Ez da halakorik aurreikusten.

- Arrisku eratorriak

Ez da halakorik aurreikusten.

OLATZAR EREMUAREN GAINKO ERAGINEN MATRIZEA

ERAGINAK		TAMAINA		ZEINUA		EKINTZA MOTA		SINERGIA			EPEA			IRAUPE-NA		ITZULGARRI-TASUNA		BERRESKURAGARRITASUNA		AGERRALDIA		IRAUNKOR-TASUNA		ERAGINAREN IZAERA *				
ALDAGAI	ERAGINA	HANDIA	MINIMOA	POSITIBOA	NEGATIBOA	ZUZENA	ZEHARKAKOAKO	SINPLEA	METAGARRIA	SINERGIAKOAKO	LABURRA	ERTAINA	LUZEA	BEHIN-BEHINEKOAKO	BEHIN BETIKOAKO	ITZULGARRIA	ITZULEZINA	BERRESKURAGARRIA	BERRESKURAEZINA	ALDIZKAKOAKO	IRREGULARRA	JARRAITUA	ETENDUNA	BATERAGARRIA	MODERATUA	HANDIA	KRITIKOAKO	
Natur baliabideak	Landareen gaineko eragina	X			X	X				X	X				X		X	X					X			X		
	Animalien gaineko eragina		X		X	X		X			X				X	X		X					X		X			
	Ekosistema interesgarrien gaineko eragina	X			X	X		X			X				X		X	X					X		X			
Eremu sentiberak, ingurumenari dagokionez	Ingurumenari dagokionez sentiberak diren eremuen gaineko eragina		X		X	X		X			X				X		X	X					X		X			
Estetika, kultur edo paisaia baliabideak	Paisaiaren gaineko eragina	X			X	X		X			X				X		X	X					X			X		
Baliabide berriztagarri eta ez-berriztagarrien gaineko eragina	Lurzoru kontsumoa	X			X	X				X	X				X		X		X				X			X		
	Lur gaineko uraren kalitatea		X		X		X		X		X				X	X		X						X		X		
	Lur azpiko uraren kalitatea																											
Hondakinak eta kutsadura	Hondakin kopurua eta kutsadura handitzea		X		X	X			X			X			X	X		X					X		X			
Giza osasuna, lasaitasuna eta hiriko ingurumenaren kalitatea	Hiriko ingurumenaren kalitatearen gaineko eragina		X		X		X		X		X				X	X		X					X		X			
Ekologia eta nekazaritza produktibitatea	Nekazaritza balio handiko lurzorua galtzea	X			X	X		X			X				X		X		X				X			X		
Kultur ondarea	Kultur ondarearen gaineko eragina		X		X	X		X			X				X	X		X					X		X			
Mugaz gairako eraginak	Mugaz gairako eraginak sortzea																											
Proposamenaren ondoriozko arriskuak	Arriskuak sortzea																											

* Eraginaren indarra txosten honetako babeste, zuzentze eta konpentsatze neurrien arabera txikituko da.

5.2.3 Hirigunearen eremua

Hiruguenan bizitoki garapen berrien (H.A.E. 11 Isasti, H.A.E. 13 Marrukene, H.A.E. 17 Maintzine, H.A.E. 26 Arraitoki), ekipamendu zuzkidura (H.A.E. 7 Futbol Zelaia, H.A.E. 8 Ikastola) eta erabileren bermatzearen (H.A.E. 18 Maintzine Mendebaldea, H.A.E. 19 Bat, Bi, Hiru Etxeak) eraginak aztertzen dira.

A) *Ingurumena baldintzatzen duten faktoreak*

- Interes komunitarioko habitatak: *Sega-belardi pobre baxuak* (6510 kodea) habitataren azalera txikiak daude.
- Landaredi interesgarria: Marrukene eremuaren ekialdean hostozabalen basotxoak.
- Ingurumen aldetik sentikorrek diren eremuak: Zubitxo erreka Arraitoki eta Ikastola eremuetan, Minkura erreka Marrukenen eta Mukitar erreka Algeposan.
- Balio agrologikoa: Nekazaritza eta Basogintza LPSaren arabera, Ikastola eta Futbol Zelaia eremuak balio estrategiko handiko lurzoruan kokatzen dira, baina egun urbanizatuak edo betelanengatik eraginak daude.
- Akuiferoen kutsadurarekiko zaurgarritasuna: EAEko Ingurumen Kartografia Sistemaren arabera, jardun-eremua zaurgarritasun eskasa edo oso-eskaseko eremu batean dago.
- Aldapak: EAEko Ingurumen Kartografia Sistemaren arabera, %5 baino gutxiago aldapak daude jardun-eremuan.
- Zarata: Zarata Maparen arabera, 60-70 dB-ko (A) eremu batean dago jardun-eremua.
- Kutsatutako lurzorua: kutsatuak egon daitezkeen lurzorua Algeposa, Marrukene, Arraitoki eta Maintzine Mendebaldean.

B) *Eraginen identifikazio eta balorazioa*

- Natur baliabideen galera

Jarduera gehienak jadanik eraldatutako lurzoruetan kokatzen dira, landaredirik gabekoak. Hala ere, Interes komunitarioa duten habitata diren belardi (*Sega-belardi pobreak*) azalera txiki batzuk aurkitzen dira, baita landaredi orbanak (zuhaitz eta zuhaiztiak) jarduerengatik eraginak izango diren parke txiki batzuetan.

Marrukene eremutik mendebaldera kokatzen den hostozabalen basotxo eremuaren kanpo geratzen da, eta ez da jarduerengatik zuzenean eragina egongo. Hala ere, jarduera garatzeko orduan kontuan izan behar da basotxo honen gertutasuna, zeharkako eraginak saihestu eta integratzen ahalegintzeko.

- Ingurumen aldetik sentikorrek diren eremuen gaineko eragina

Marrukene eremuan Minkura erreka kokatzenda, zeina puntu honetatik aurrera lurperatua dagoen. Hemen egingo den jarduera urbanizatzailerak, erreka honen parte baten berreskurapena barneratu behar luke, balioa duen osagai naturala delarik.

Algeposako eremuan Mukitar erreka kokatzen da, egun eremu guztian lurperatua dagoena. Urbanizazio proiektuan osagai hau barneratu behar da eta bere berreskurapena eta integrazioarako neurriak azaldu.

Zubitxo errekarari dagokionez Arraitoki eremuan, proposatutako jarduera eragin positiboa izan dezake, indarrean dagoen araudiak zehaztutako gutxieneko erretiroak gordetzen badira eta ezker aldeko ingurumen-berreskuratzea proposatzen bada.

- Estetika-kultur edo paisaia baliabideen gaineko eragina

Proposatzen diren jarduerak hiri-eremuan kokatzen dira, eta bizitoki garapenak eta ekipamendu zuzkidura berriak hiri-paisaiarekin bat egin beharko dute.

Jarduera batzuk industrialdeen edo bizitegi eta ekipamendu eremu marginalen (Algeposa, Marrukene, Larrañaga, Arraitoki) eraldatzea suposatzen dute, hiri-paisaiarekiko eragina positiboa izango delakoan. Hala ere, beste kasu batzuetan, jarduera berriek gune berdeen ezabatzea suposatuko dute (Isasti), paisaiaren gaineko eragina negatiboa izanik.

- Baliabide berriztagarri eta ez-berriztagarrien gaineko eragina

Nahiz eta lurzoru gehiena artifizializatua eta hiri-gunean barneratua dagoen, jarduera batzuk urbanizaezina zen lurzoruan kokatzen diren erabileren bermatzea suposatzen du. Guztira, 5.092 m² lurzoru urbanizaezina kontsumitzen dira, H.A.E. Maintzine Mendebaldea eta Bat, Bi, Hiru Etxeak-i dagokiena.

Lurrazpiko uren kalitatea ez da eragingo, akuiferoen kutsadurarekiko zaugarritasun eskasa edo oso eskasa duen eremu batean kokatzen baitira.

Marrukene, Arraitoki eta Algeposa eremuen obra-fasean egingo diren lur-mugimenduek Zubitxo, Minkura eta Mukitar erreken ur kalitatean eragina izan dezakete, beraz, beharrezko prebentzio-neurriak ezarri beharko dira. Behin lanak bukatzen diren, zati batzuetan integrazioa eta ingurumen-berreskurapen jarduerak aurrera eramatea eragin positiboa izan dezakete.

- Hondakin-sortzea eta kutsaduraren areagotzea

Obra-fasean zehar, lur-mugimenduak eta kamioien trafikoak, hondakin-sortzean eta kutsaduraren areagotzean eragina izango dute, beharrezkoak diren neurri aproposak ezarri behar direlarik.

Ustiapen-fasean, eta bereziki H.A.E. 14 Algeposa 1 bizitegi garapenarekin, populazioaren hazkunde garrantzitsua aurreikusten da, hiri-gunean proposatu diren 517 etxebizitza berriak kontuan hartuta. Populazioaren hazkunde honek, hondakin-sortzearen eta ibilgailuen kopuruaren handitzea suposatuko du, ondoriozko kutsaduraren areagotzearekin batera. Hortaz, eragin hauek murrizteko neurri egokiak aurreikusi beharko dira.

- Giza osasuna, lasaitasuna eta hiriko ingurumenaren kalitatea

Lanak iraun bitartean, eragozpenak sortuko dira, baita hiri-ingurumenaren kalitatearen okerragotzea ere, zaratak, lanetako berebilen zirkulazioa eta atmosferara partikulen isurketarengatik. Hala ere, behin lanak bukatuta, eragin positiboak aurreikusten dira, batez ere hiri-guneetan eraldatutako industrialdeetan, eta baita ekipamenduen zuzkidura proposatzen diren eremu degradatuetan.

Bestalde, gune berde txikien ezabatzea eta populazioaren handitzeak (500 etxebizitza berri baino gehiago proposatzen dira) lasaitasunean eta hiri-ingurumenaren kalitatean eragin negatiboa izan dezaketela uste da.

Zaratari dagokionez, eremu batzuetan maila altuak antzematen dira (Arraitoki, Larrañaga, Maintzine, Marrukene, Algeposa), hiri-bideetatik urbil daudelako. Zentzu honetan, eremu hauen hiritartze lanetan beharrezkoak diren neurriak ipini beharko dira, araudiak ezarritako kalitate akustikoaren helburuan betetzeko.

- Ekologia eta nekazaritza produktibitatearen galera

Ez dira nekazal-balioa duten lurzoruak eragiten.

- Kultur ondarearen galera

Ez da halakorik aurreikusten.

- Mugaz gaindiko eragin posibleak

Ez da halakorik aurreikusten.

- Arrisku eratorriak

H.A.E. 14 Algeposa 1, H.A.E. 13 Marrukene, H.A.E. 26 Arraitoki, H.A.E. 27 Larrañaga, eta H.A.E. 18 Maintzine Mendebaldean *Lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak izan dituzten edo dituzten lurzoruen inbentarioan (165/2008 Dekretua, irailaren 30ekoa)* dauden lurzoruak aurkitu dira.

HIRIGUNE EREMUAREN GAINKO ERAGINEN MATRIZEA

ERAGINAK		TAMAINA		ZEINUA		EKINTZA MOTA		SINERGIA			EPEA			IRAUPE-NA		ITZULGARRI-TASUNA		BERRESKURAGARRITASUNA		AGERRALDIA		IRAUNKOR-TASUNA		ERAGINAREN IZAERA *				
ALDAGAI	ERAGINA	HANDIA	MINIMOA	POSITIBOA	NEGATIBOA	ZUZENA	ZEHARKAKOAK	SINPLEA	METAGARRIA	SINERGIKOAK	LABURRA	ERTAINA	LUZEA	BEHIN-BEHINEKOAK	BEHIN BETIKOAK	ITZULGARRIA	ITZULEZINA	BERRESKURAGARRIA	BERRESKURAEZINA	ALDIZKAKOAK	IRREGULARRA	JARRAITUA	ETENDUNA	BATERAGARRIA	MODERATUA	HANDIA	KRITIKOAK	
																												Natur baliabideak
Animalien gaineko eragina		X		X	X		X			X				X	X		X					X		X				
Ekosistema interesgarrien gaineko eragina		X		X	X		X			X				X		X	X					X		X				
Eremu sentiberak, ingurumenari dagokionez	Ingurumenari dagokionez sentiberak diren eremuen gaineko eragina		X		X	X		X			X				X		X	X					X		X			
Estetika, kultur edo paisaia baliabideak	Paisaiaren gaineko eragina	X			X	X		X			X				X		X	X					X			X		
Baliabide berriztagarri eta ez-berriztagarrien gaineko eragina	Lurzoru kontsumoa	X			X	X				X	X				X		X		X				X		X			
	Lur gaineko uraren kalitatea		X		X		X		X		X				X	X		X						X		X		
	Lur azpiko uraren kalitatea																											
Hondakinak eta kutsadura	Hondakin kopurua eta kutsadura handitzea	X			X	X			X			X			X	X		X					X			X		
Giza osasuna, lasaitasuna eta hiriko ingurumenaren kalitatea	Hiriko ingurumenaren kalitatearen gaineko eragina	X		X	X		X		X		X				X	X		X					X			X		
Ekologia eta nekazaritza produktibitatea	Nekazaritza balio handiko lurzorua galtzea																											
Kultur ondarea	Kultur ondarearen gaineko eragina																											
Mugaz gairik eraginak	Mugaz gairik eraginak sortzea																											
Proposamenaren ondoriozko arriskuak	Arriskuak sortzea	X			X	X				X		X			X	X			X				X			X		

* Eraginaren indarra txosten honetako babeste, zuzentze eta konpentsatze neurrien arabera txikituko da.

6 NEURRI BABESLE, ZUZENTZAILE ETA KONPENTSATZAILEEN INGURUKO PROPOSAMENA

6.1 UDALERRIZ GAINDIKO PLANEN NEURRI BABESLE, ZUZENTZAILE ETA KONPENTSATZAILEAK

Ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluazioaren prozedura arautzen duen uztailaren 22ko 183/2003 Dekretua udalaz gaindiko zenbait txosten onartu ondoren onartu zen; beraz, Dekretuaren aurretik onartutako txostenek ez dute neurri babesle, zuzentzaile eta konpentsatzaileak biltzen dituzten ingurumenaren gainerako eraginaren ebaluaziorik.

Beste kasu batzuetan, udalaz gaindiko txosten horiek eta horien baterako ebaluazioak betetze eta izapidetze prozesuan daude.

Lezori dagokionez, Ingurumenaren gaineko Eraginaren Baterako Ebaluazio txostenak aztertu dira, eta honako LPS hauetako neurri babesle, zuzentzaile eta konpentsatzaileak bildu:

- Nekazaritza eta Basogintza LPS

Nekazaritza eta Basogintza LPSaren helburuetako bat da nekazaritza eta basogintza iraunaraztea. Kontuan eduki behar da nekazaritza eta basogintza intentsibo eta desordenatuak kalte larriak eragin diezazkiola ingurumenari. Eragin horiek ahal den neurrian arintzeko, "Erabilerak ezartzeko irizpide orokorrak" ezarri ditu LPSak, bai eta Garapen Iraunkorreko Programetako "Nekazaritza eta Ingurumen neurriak" onartu eta sustatu ere.

Gainera, nekazaritzaren balizko eragin negatiboa neurri handi batean arin daiteke horren lurralde antolamendua egiten bada: higadura arrisku handia duten eremuetan zuhaitzak babesteko erabili, Akuiferoen kutsadurarako zaurgarritasun handieneko eremuetan abeltzaintza intentsiboa ekidin, eta abar. Lurralde eredia eta, bereziki, "Nekazaritza eta basogintza erabileretarako ñabardurak" eta "Gainjarritako faktore baldintzatzaileak" arduratzen dira halako inpaktuak minimizatzeaz.

- Itsasertza babestu eta antolatzeko Lurralde Plan Sektoriala

Beheragoko mailako planak edo programak diseinatzeko irizpide eta jarraibide orokorrak

Beheragoko mailako planak edo programak diseinatzeko aplikatu beharreko irizpide eta jarraibide orokorren oinarriak horien araudia aplikatzea izan behar du. Esan behar da, halere, hauxe izango dela lurraldea egitura iraunkorren bidez okupatzea ekarriko duten jarduerak, eta batez ere urbanismo berriak diseinatzeko irizpide orokorrak: eraikin berriak itsasertzeko marrik urrun egitea, ahal den neurrian; itsasertzean edo ibaiertzetan.

Ingurumenaren gaineko eraginaren baterako edo bakarkako ebaluazioetan sartzeko irizpideak

Plan honen ondoko hirigintza planeamendua garatzen duten tresnen baterako ebaluazioetan honako alderdi hauek justifikatu eta baloratu behar dira:

- Plan honen antolamendu-kategoriak hiri-lurren edo lurzoru urbanizagarrien bidez okupatzeko proposamena.*
- Itsasertzeko murrarainoko gutxienezko distantziak, itsasertzetan eta ibaiertzetan, hiri-lurra okupatzeko proposamenetan.*
- Hiri-lurra okupatzeko proposatutako eremuak babesteko balioa.*
- Udal planeamenduan LAAen 3. eranskineko natur intereseko eremuak sartzeko kontrola.*

6.2 PROPOSATUTAKO JARDUERAK INGURUMENEAN DUTEN ERAGINA SAIHESTEKO EDO GUTXITZEKO NEURRI ZEHATZAK

Atal honetan, eragin esanguratsuak antzeman diren eremuetan ezartzeko berariazko neurriak azaltzen dira.

6.2.1 Gaintxurizketa eremua

- *Paisaia integratzea*

Industria garapen berria (H.A.E. 36 Gaintxurizketa) paisaia balio handiko landazabal eremu batean dago; nekazaritza da bertan nagusi, eta baserriak eta zuhaitziak daude muino eta ibarretan, hurrenez hurren. Eremu horretan industrialde bat jartzeak nabarmen aldatuko du paisaia, eta neurri zuzentzaileak ezarri beharko dira eragin hori gutxitzeko.

Urbanizazioa eta eremurako sarbideak lursail horren orografiara egokitu beharko dira ahal den neurrian, ibarra keta erreka ibilguak errespetatuta eta horiek betetzea saihestuta. Landare pantailak ezarriko dira eremu urbanizatuaren inguruan, epe ertainera horren eragin atxikitzeko; horretarako, zuhaixka eta zuhaitz autoktonoak erabiliko dira.

- *Gune libreak balio handieneko elementu naturalak babesteko erabiltzea*

Jardun-eremuko gune libreak lehentasunezko interes komunitarioko habitatak eta Apaizartza errekakoak euren berezko egoeran kontserbatzeko erabiliko dira.

- *Ezarri beharreko jarduerak ingurumenera egokitzea*

Inguruko ingurumenaren gainean eragin dezaketen jardueri neurri zuzentzaileak aplikatuko zaizkiela bermatu beharko da; lekualdatzeetan eta jarduera berrietan aplikatu beharko lirake halakoak. Izapideak egiterakoan ikusitako neurriak egongo lirake horien artean, MINP erregelamenduari buruzkoak, alegia.

- *Sarbidearen trazaduraren egokitzea, Juanotene erreken eta horren ibarbazoaren gaineko eragina minimizatzeke*

Errotondaren (H.A.E. 36 N1-GI2638 Bide-lotunea) diseinuaren xehetasunak doitu egin behar dira, lurzorura eta balio naturaletara egokituta Juanotene erreken eta horren ibarbazoaren -haltza, lizar eta haritz ederreko ongi kontserbatutako zuhaitzi batek osatzen du hori- gaineko eragina minimizatzeke.

6.2.2 Olatzar eremua

- *Paisaia integratzea*

Nahiz eta hiri-eremuaren alboan egon, futbol zelaiaren eta hilerriaren ondoan, landa inguruan daude bai bizitegi garapen berriak bai azpi-estazio elektrikoa,

eta erraz ikusten dira, muino batean baitaude; beraz, eremu horren zaugarritasun hartu beharko da kontuan eraikin berriak eta urbanizazio eremua diseinatzerako orduan.

Paisaian integratzeko hartu beharreko neurrien artean, lur-mugitzeak ahalik eta gehien murriztea proposatzen da, eraikin eta bide berriak bertako orografiara egokituta. Eraikinen dagokienez, aintzat hartu beharko da horien altuera eta tipologia, hiri-ingurua gehiegi alda ez dezaten.

Azpi-estazio elektrikoari lotuta dauden dorre eta linea elektrikoari dagokienez, paisaian izan dezaketen eragina murrizten saiatuko da, lineak lur azpitik eramaten eta, ahal den neurrian, dorreak paisai hauskorra duten eremuetan kokatzen saihestuz.

- **Olatzar erreka eta horren ibaiertzeko landarediaren babestea**

Olatzarko bizitegi berrirako definitutako eremua erreka eta horren landarediari ez eragiteko bezain bereizita badago ere, komenigarria da elementu natural horien babestearen garrantzia azpimarratzea. Horrela, hurrengo faseetan proposa litezkeen eremu edo jarduera aldaketek erreka eta horren landarediaren gainean eraginik ez izatea lortu nahi da; dena dela, babestu beharreko natur baliotzat jo behar dira elementu horiek beti.

6.2.3 Hirigunearen eremua

- **Zarata-eraginaren murriztea**

Zarata maila altuek gehien eragiten duten garapen berriko eremuak Arraitoki, Larrañaga, Maintzine, Marrukene eta Algeposa dira, 60 eta 70 dB arteko mailekin, zarataren maparen arabera. Eragile hau kontuan hartu beharko da urbanizazio berriak egiteko momentuan, bai bizitegikoak bai ekipamendukoak, legediak ezarritako kalitate akustiko maila egokiak lortzearren.

Ezarri daitezkeen neurrien artean, prebentzio-izaera dutenak indartuko dira, urbanizazioen diseinu fasean ezarri beharko direnak: eraikin desberdinen kokapen eta antolaketa (pantaila moduan), erabileren antolaketa zarata maila desberdinean duten tolerantziaren arabera, bai urbanizazioan (egoitza, jarduera ekonomikoak, ekipamenduak,...) bai etxebizitza barruko banaketan (logelak, jangela,...), etxaurre eta leihoen isolamendua,...

Neurri hauek nahikoak ez badira, zarataren kontrako babes sistemak ezartzea ikertuko da, pantaila akustikoak edo bestelako gailuaren modukoak.

Orobat, zehaztasun handiagoko ikerketak akustikoa egitea gomendatzen da, garapen berrien diseinu fasean beharrezko neurriak ezartzea ahalbidetuko duena.

- **Zubitxo erreka integrazioa eta horren ibaiertzaren biziberritzea**

H.A.E. 26 Arraitoki eremua Lezoko hiri-eremuan integratuta badago ere, Zubitxo erreka berritu egiten du muga iparraldean, badien itsasoratu aurretik lur gainean geratzen den azken zatiarekin. Ibaiertzak eta Errekaertzak Antolatzeke Lurralde Plan Sektorialaren arabera, 0 mailakoa da erreka hori;

beraz, 10 m-ko babes-tartea ezarri behar da eraikin berrietara arte. LPSean adierazten da, halaber, babes-tarte horrek gunen ahiko zabala bermatu behar duela eraikinaren eta ibaiaren artean.

LPSak esandakoa aintzat hartuta, Zubitxo erreka eta horren ertza Arraitokirako diseinatuko den hirigintza proposamenean sartzeari proposatzen da, jarduera horrek eragin positiboa izango bailuke errekan, eta erabilera eta gozamen publikoko elementua izango bailitzateke.

- **Basotxoaren kontserbazioa eta Minkura erreka integrazioa Marrukene eremuan**

Nahiz eta H.A.E. 13 Marrukene eremuaren kanpo kokatzen den, hostozabalen basotxoak ekialdean eta Minkura erreka hegoaldean, ingurumen- interesa duten osagaiak dira, eta urbanizazio berria diseinatzeko garaian kontuan izan behar dira.

Minkura erreka kasuan, eraikin berriak eta erreka arteko tartek behar adinako zabalera izaten saiatuko da, ertzen babesa ziurtatzeko eta landaredia naturalaren berreskuratzea ahalbidetuz.

Basotxoari dagokionez, urbanizazio berriaren lan-fasean bereziki, landarediari eragin dakioken kalteak saihestuko dira. Horretarako, lanetik urbilan dagoen basotxoak era egoki batean mugatuko da, eta, behar izanez gero, zuhaitz ale kalteberenak babestuko dira. Urbanizazio diseinuan basotxo hau kontuan hartu beharko da, bere integrazioa eta hiri-eremutik balio naturala duen enklabe honetarako transizio egoki baten diseinua egiten saiatuz.

- **Kutsatuak egon daitezkeen lurzoruetan ezarri beharreko neurriak**

H.A.E. 14 Algeposa 1, H.A.E. 13 Marrukene, H.A.E. 26 Arraitoki, H.A.E. 27 Larrañaga eta H.A.E. 18 Maintzine Mendebalde eremuetan *Lurzorua kutsa dezaketan jarduerak edo instalazioak izan dituzten edo dituzten lurzoru inbentarioan (165/2008 Dekretua, irailaren 30ekoa)* dauden lurzoruak aurkitu dira.

Lurzoru hauetan, beraz, *Lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko otsailaren 4ko 1/2005 Legean* adierazitako ezarri beharko da. Besteak beste, lurzoruaren sailkapenean aldaketarik planteatzen bada, honen kalitatearen adierazpena egin beharko da, esandako Legearen 17.5 artikuluan azaldu bezala, sailkapen berriaren behin-betiko onarpena baino lehen.

6.3 BALIO HANDIENEN NATUR BALIABIDEAK BABESTEKO NEURRI BABESLE ETA ZUZENTZAILEAK

Proposatutako babes eta zuzenketa neurri nagusienak honako hauek dira:

- Lurzorua gorde beharra, lurzoru urbanizaezina babestu eta zaintzeko, Udalaren lurzoru ondarearentzat garrantzi berezia duten lursailak atxikiz (erosketa, lagapena, desjabetzapena).
- Ordenantzak egitea, lurzoru urbanizaezinean onargarriak diren jarduerak kokatzeko eta garatzeko baldintzak ezartzearren.

- Habitatak lehengoratzea, garrantzi berezia emanez ibarretako erribera basoei eta Jaizkibelgo hegoaldeko magalean dagoen ameztiari.
- Korridore ekologikoan izan daitezkeen eraginak gutxitzea eta korridora horretako gune hondaberenak berreskuratu eta babestea.
- Paisaian eragin esanguratsua duten proiektuetarako, oro har, baimena emateko moduak direnean, lehengoratze programak gehitu beharra eskatuko da, dagokion lizentzia eman ahal izateko.
- Hondatutako guneak (harrobiak, zaborteziak, hondakindegia, etab.) lehengoratzeko eta egokitzeko sustapena egitea.

Ingurumenaren gaineko eraginak konpentsatzeko neurri bezala hurrengoak proposatzen dira:

- Gaur egun iragazgaitzak diren azalerak naturalizatzea, hiritartu bitartean azalera iragazgaitzak sortzea konpentsatzeko.
- Ubideen ibilgu tartek naturalizatzea, ubideen bideratze edo aldatze lanak konpentsatzeko.
- Lehengoratzeko neurriak hartzea hondatutako guneetan, HAPOn onorio diren jarduketek intereseko habitatetan duten eragina konpentsatzeko.
- Korridore biologikoak edo loturazko intereseko elementuak berreskuratu edo sortzea, azpiegitura linealak egiteak sortzen duen zatiketa konpentsatzeko.

II. Eranskinean, bestalde, neurri orokor gehiago erantsen dira.

6.4 BIZITEGI BERRIETAKO HIRI-INGURUMENA HOBETZEKO NEURRIAK

Oro har, urbanizazioari, espazioaren antolamenduari eta eraikinen baldintzei buruzko honako iraukortasun irizpide hauek edukiko dira kontuan Plan Orokor honen ondorioz garatzen diren jarduerak guztietan.

- Eremuak urbanizatzerakoan, eremu zolagarri iragazgaitzak ekiditen saiatu beharko da, lurzoruaren iragazpen lamena naturala mantentzeko. Oionekoentzako eta ibilgailuentzako eremuetan, euriarekiko iragazkorak diren materialak erabiltzea planteatuko da.
- Erabilera eta jarduerak baimentzeko araudia idazterakoan kontuan hartuko da udalerraren zarata-mapan egindako zona banaketa.
- Zarata-maila handiak egonez gero, hirigintza-antolamenduan, eraikinek izango duten erabilera araberako antolatze aukera aztertu beharko da. Hala, gutxien erabilitakoak (industria, zerbitzuak) pantaila akustikoak izango dira zarata gutxien behar duten eraikinentzat (etxebizitzak, eskolak eta osasun ekipamenduak).
- Zirkulazio gehieneko bideen ondoan dauden eraikinetan, eraikinek fatxada lasaia eduki dezaten lagunduko da. Bide horietako erabilera

publikoko eremuek isolamendu akustiko handiena edukitzea ere aurreikusiko da, eta eraikinak pantaila gisa erabiliko dira.

- Eremuetako espazio publikoetan eta eraikin berrietako eremu komunetan, kontsumo apaleko argiztapen sistemak erabiliko dira, baita argi kutsadura ekiditen dutenak ere.
- Hiri hondakinak gaika biltzeko eremu egokiak pentsatuko dira.
- Tokiko ingurumen ezaugarriak kontuan hartuta, eta eraikuntzak eremuko paisaietan ikusmena urratu gabe ezartzeko, hainbat eraikuntza-baldintza ezarriko dira (materialak, koloreak, morfologia, altuerak, bolumenak, etab.), udalerriko eraikuntza eta estetika tipologiarekin bat egiteko.
- Inguruetan eguzkia nola jasotzen den kontuan hartu beharko da, eraikin berrien orientazioa aukeratzeko, beren energia-portaera hobetzeko (batez besteko tenperatura altuagoa, berogailu kontsumo gutxiago, etab.), eta eguzkiaren argia hobe baliatzeko (elektrizitate gutxiago kontsumitzeko).
- Eraikinetako aurrealdeak ezberdin tratatuko dira orientazioaren arabera: iparraldean itxiagoak eta isolatuagoak beharko dira, eta hegoaldean, berriz, irekiagoak eta beiraz hornituagoak.
- Eraikuntzarako erabiliko diren materialek isolamendu termiko handia izateko ahaleginak egin beharko dira, ahal bezain iraunkorrak izan beharko dira, eta ahal bezain gutxi kutsatzen dutenak.
- Gela erabilienetan argiztapen onena izateko eta eguzkia ahal bezain bat baliatzeko moduan antolatuko da eraikinen barnealdea. Behar izanez gero, barne antolamenduak egon daitezken zarata arazoak kontuan hartuko ditu, zarata gutxien behar duten eremuak (logelak, egongela, etab.) zarata iturrietatik ahalik eta urrutien egon daitezzen.
- Eraikinetan, ura eta energia kontsumoa aurrezteko sistemak ezarriko dira, eta etxeko ur beroarentzat sistema mistoak erabiltzeko aukera aztertu beharko da, eguzki-atzitzailak eta metagailuak erabiliz.
- Eremu urbanizatuetako gune berdeetan, uraren berrerabilpena erabiltzen duten ureztatze sistemak bultzatuko dira eta baldintza bioklimatikoei egokituak dauden espezieak erabiliko dira. Era berean, maila anitzetako eremu ireki berdeen sistema koherente bat finkatuko da.
- Uraren arazketa sistema autonomoak finkatuko dira saneamuendu-sarera konexio buruko ez daiteken kasuetan.
- Udalerraren Irisgarritasun Planean aurreikusitako ekintza guztien burutzea bultzatuko da.

7 PLAN OROKORRAREN EFEKTUAK IKUSKATZEKO PROGRAMA

Jarraian zehaztuko dugun Ikuskatze Programaren helburu nagusia da Plan Orokorra zuzen aplikatu izana, eta inpaktuak arintzeko eta zuzentzeko proposatutako neurriak aintzat hartu izana egiaztatzea. Azken batean, Arauak abian jartzeak aurreikusitako eta onartutako ingurumenaren gaineko eraginez kanpokorik eragiten ez duela ikustea.

Ikuskatze Programa hau Plan Orokorra garatzeko faseek (plan partzialak, plan bereziak, urbanizazio eta eraikuntza proiektuak...) iraun bitartean egongo da indarrean, eta kasu bakoitzean aurreikusi beharko da horren aplikazioa bermatzeko beharrezko aurrekontua.

7.1 KONTROLAREN HELBURUAK

Hauek dira Ikuskatze Programaren helburuak:

- *Lezoko Plan Orokorraren helburu eta ebazpenak betetzen direla bermatzea.*

Natur eta landa ingurua babesteko duten garrantzia dela-eta, lurzoru urbanizaezinerako ebazpen idatziak eta proposatutako ordenazioa aplikatzearen garrantzia azpimarratu behar da. Arreta berezia merezi dute, halaber, eremu degradatuak edo bizitegitarako erabilerarekin bateraezinak diren jarduerak egiten dituzten industriek okupatutakoak biziberritzeko jarduerak, garrantzitsuak baitira hiri inguruaren kalitatea hobetzeko. Azkenik, gune libreen estandarrak beteko direla bermatu behar da, herritarren gozamenerako et ahiri inguruko natur elementu baliotsuenak babesteko.

- *Neurri zuzentzaileak beteko direla bermatzea, eta horien eraginkortasunaren jarraipena egitea, emaitzak aurreikuspenetatik urrunduz gero beharrezko neurriak hartu ahal izateko.*

Neurri zuzentzaileak aplikatu izanaren egiaztapena hurrengo atalean deskribatutako ingurumen aldagaien bidez egiten da.

7.2 INGURUMEN ALDAGAIEN IDENTIFIKAZIOA ETA JARRAIPEN METODOLOGIAREN DESKRIPZIOA

7.2.1 Lurzoru kontsumoa

Lurzoru kontsumoaren jarraipen zehatza egiten da, bai hiri-lurrarena eta urbanizagarriarena, bai eta azpiegituretako lurzoruarena ere. Honako adierazle hauek erabiltzen dira horretarako:

- Lurzoru urbanizaezinen kontsumoa

(Lurzoru kontsumitua/ udalerraren azalera osoa) X 100

Kalkulu hori bera egingo da balio agrologiko handiko lurzoruaren azaleraren gainean, lurzoru urbanizaezina baino baliabide mugatuagoa baita hori.

- Lurzoruaren erabileraren intentsitatea

Jardun-eremuetako etxebizitza edo industria-aprobetxamenduen dentsitatea kalkulatu da. Legeak ezarritako gehienezko okupazioaren indizeak betetzen direla egiaztatuko da.

(Udalerriko biztanle kopurua/lurzoru kontsumitua) X 100

7.2.2 Mugikortasun iraunkorra

Garraio publikorako eta oinezkoentzako azaleraren jarraipena egingo da, Plan Orokorren helburuak bete diren edo ez ikusteko. Horretarako, honako adierazle hau kalkulatu da:

(Bidegorri azalera/garraio azpiegiturarako udal azalera) X 100

7.2.3 Landaredia autoktonoa eta habitat naturalak

Jardun-eremuko landaredi autoktonoa identifikatu da. Horien gaineko kaltearen jarraipena egingo da, eta aurrez eremu bakoitzerako identifikatutako interes handiagoko masei (lehentasuneko interes komunitarioko habitatak, hostozabal basoak, ibarbasoak...) ez zaiela eragiten ikusiko da. 6. atalean deskribatutako landaredi autoktonoaren eta habitat naturalen inguruko neurri zuzentzaile eta kontentsatzaileak aplikatu izana egiaztatuko da.

7.2.4 Ibaietako habitaten kalitatea

Ibai-ibilguen jarraipen berezia egingo da, uren kalitate fisiko-kimikoa eta ibaiertzen kalitate ekologikoa konprobatuta. Horretarako, EAeko Lur Azaleko Uren Kalitatearen Jarraipena egiteko Sarean erabilitako Eusko Jaurlaritzaren indize eta parametroak (BMWP indizea) erabiliko da.

7.2.5 Korridore ekologikoa

Korridore ekologikoko lur artifizializatuaren azalera kuantifikatu da, eta jardun-eremuetako gunek libreak eremu hori babesteko erabiltzen direla egiaztatuko da.

7.2.6 Paisaia

Paisaiari dagozkion neurri zuzentzaileak aplikatzen direla egiaztatuko da, landare pantailak jartzen direla batik bat. Eremuko urbanizazioa orografiara egokitu ote den ere ikusiko da.

7.2.7 Airearen kalitatea

Airearen kalitate neurtuko da; bai lanak hasia urretik, bai eta horiek iraun bitartean eta horiek amaitutakoan ere. Fase guztietan kalitate optimoko parametroak betetzen direla egiaztatuko da, eta hala ez balitz, beharrezko neurriak aplikatuko dira.

(Elementu kutsagarrien maila altua jasaten duen populazioa/populazioa guztira) X 100

7.2.8 Zarata

Jardun-eremuetako zarata-mailaren jarraipena egingo da, eta arlo horretako legedia betetzen den edo ez egiaztatuko. Jarraipen berezia egingo da lurraldeko eremu sentikorrenetan, bizitegietan eta naturgune interesgarrietan, besteak beste.

“Lezoko zarata ebaluatzeko plana” erabiliko da oinarri gisa, eta aldagaiak alderatuko dira; batez ere, ibilgailuen zirkulazioaren eragin gehien duten eremuetan, edo Plan Orokorrean edo bestelakoetan proposatutako jardueren ondorioz eragin hori izan dezaketenetan.

Adierazle hau erabiliko da:

(Gomendatutakoak baino soinu handiagoak jasaten dituen populazioa /populazioa guztira) X 100

7.2.9 Hondakin-sortzea

Lanek iraun bitartean nahiz ustiapen fasean sortutako hondakin kopurua kuantifikatuko da. teko Bi aldi horietan gaikako bilketa egiteko sistemak jarri izana egiaztatuko da, eta kontrolik gabeko isurketarik agertzen ez dela konprobatuko da.

Honako adierazle hau erabiliko da:

Sortutako hiri-hondakinak/ biztanle eta eguneko (kg/biz./egun)

7.3 IKUSKATZE, ZAINZA ETA INFORMAZIO PROGRAMEN DISEINUA

Ikuskatze Plana teknikari eta ingurumenean espezializatutako organo batek egin beharko dute, kanpoko aholkularitza-bulego batek edo Udalaren baliabide propioen bidez. Lezoko Plan Orokorraren ebazpenak, eta txosten honetan nahiz dagokin Administrazioak erredaktatuko dituen ingurumenaren gaineko eraginari buruzko alde zuzentzaileak zuzen aplikatzea ziurtatzeaz arduratuko da organo hori. Ikuskatze Plana gauzatzeko, Tokiko Agenda 21ean ezarritako parametroekin bat egitea gomendatzen da, bikoizketak saihestu eta mekanismo hauen eraginkotasuna haunditzeko.

Komenigarria da Ikuskatze Plana egingo duen organoak garatze-tresnak (plan partzialak, plan bereziak, urbanizazio eta eraikuntza proiektuak..) erredaktatzeko fasean, lanen fasean eta funtzionamendu fasean parte hartzea, tresna horiek eranskin bat eduki dezaten eta, bertan, ingurumenari buruzko aholkularitza-bulegoak edo teknikariak txosten horietan hitzartutako neurri babesle eta zuzentzaileak bildu izana ziurtatzeko. Eremuetako urbanizazio lanak amaitutakoan, beste txosten bat egingo da eta, hor, neurri babesle eta zuzentzaileak eta ingurumena ikuskatzeko programa zuzen ezarri eta bete izana islatuko da.

8 LABURPEN DOKUMENTUA

8.1 PLAN OROKORRAREN HELBURU ESTRATEGIKOEN ETA HELBURU HORIEK LORTZEKO AUKEREN DESKRIPZIOA

8.1.1 Plan Orokorraren jardun-eremua eta helburuak

Lezoko Plan Orokorraren **jarduera eremuak** udalerrri osoa hartzen du. Planeamendu hau zortzi urtean egongo da indarrean.

Hona hemen Plan Orokorraren aurrerapenean proposatutako **helburuak**:

- Antolaketa urbanistikoak energia berriztagarrien erabilera eta ustiapena, eraginkortasun energetikoa, hondakinen produkzioaren murrizketa eta natur baliabideen aurrezpena bultzatuko ditu.
- Lurzoruaren natur baliabideak babestuko dira, bai produkzio balioarengatik bai hiri-garapen sostengarriaren tokiko estrategiarentzako erreferentzia direlako, lurzoruaren okupazioa murriztuz eta urbanizazioaren hedapena inguru naturalean saihestuz.
- Motordun ibilgailuen erabilera behartua eta beharrezkoa ez dena murriztuko da, hala nola ingurugiroarekin bateragarriagoak diren garraiobideengatik aldatuz, eta erabilera konbinatuaren plangintza sustatuz (oinezkoa, bizikletaz, garraio publikoa).
- Hazkunde ez garapengarria eta sustatzailearen hipotesiak bultzatuko dira, egiazkoak diren eskatutako beharrei erantzuna emanez, aldeztu aurretik erabiliak dauden lurzoruak berreskuratzen hiri-birgaitze jardueren bidez, hiri-segregazio eta sakabanatzea eragotziz.
- Hutsik dagoen bizitegitarako ondarea berreskuratzea eta merkaturatzea, eta dauden eraikinen birgaitzea lehenestera joko da.
- Lezori Donostialdea- Bidasoa Beherea Eremu Funtzionalean emandako udalez gaindikoko plangintzaren rola muga batzuekin onartzea.
- Ekimen publikoari lehentasuna ematea, etxebizitzaren sustapenari eta jarduera ekonomikoetarako lurzoruari dagokienez
- Defizitak berrekipatzea eta orekatzea, hornidura gaietan.

8.1.2 Plan Orokorraren proposameneren laburpena

Memoriaren txostenean jasotako proposamen nagusienak hauek dira:

- Bizitegi garapenak, kokapen hauetan: Zubitxo errekarren arroan, H.A.E. Isasti (16 etxebizitza), Marrukene (176 etxebizitza), Maintzine (26 etxebizitza) eta Algeposa 1ean (300 etxebizitza) jadanik artifizializatuak dauden lurzoruetan, eta

H.A.E. 6 Olatzar-en (120 etxebizitza) hirigunearen ondoko landa lurretan.

- Jarduera ekonomikoaren garapenak: H.A.E. 27 Larrañaga (hirigunean erabilera tertziarioak), H.A.E. 25 Papresa (egun tramitazioan dagoen industri-gunearen handitzea) eta H.A.E. 36 Gaintxurizketa (landa-lurretan kokatzen den industrialde berria).
- Komunikabide sistema: N1 eta GI2638 errepideen arteko bide-lotunea, eta Donibaneko errepidearen desbideratzea portuan zehar, hiriguneko trafikoa murrizteko. Bidegorri sarearen indartzea.
- Ekipamendu komunitarioren hobekuntza eta handitzea. Kultura, kirol, hezkuntza eta osasun zuzkidura.

8.1.3 Ingurumenaren inguruko proposamenak

❖ Lurzoru urbanizaezina

Honako hauek dira lurzoru urbanizaezina antolatzeke zehaztutako kategoriak:

- **Babes Berezia**: udalerriko natur balio handiena duten eremuak hartzen ditu.
 - Jaizkibelgo erabilera publikoko mendiak (EPM)
 - Apaizartza erreka eta Batxillerbordako erreka haltzadia (lehentasunezko bi habitat daude bertan)
 - Hariztiak eta baso mistoa (Xoroxolur eta Bakarraigetikoko ibarbideak)
- **Basoa**: Nekazaritzarako balio gutxien duten lurrak eta Nekazaritza eta Basogintza LPSean "baso" gisa agertzen diren eremuak hartzen ditu. Bi azpikategoria bereizten dira:
 - Kontserbazio Basoa: Jaizkibel mendiaren hegoaldeko magalean dauden %50 baino malda handiago duten lurzoruak hartzen ditu.
 - Baso Ekoizlea:
 - Jaizkibel mendiaren hegoaldeko hegala, %50 baino malda txikiagoekin
 - Gaintxurizketa Errekaldeko baso-eremua
- **Nekazaritza-Abeltzaintza eta landazabala**: bi azpikategoria bereizten dira, Nekazaritza eta Basoak Antolatzeke LAPak adierazitako zonifikazioa ezarritz:
 - Balio Estrategiko Altua: azpikategoria honen barne Nekazaritza ekologikorako eremua hartzen da, Lezoko hirigunea Algeposaren eta Sagasti industrialdearen artean kokatzen dena.
 - Transiziozko Landa Paisaia
- **Ingurumen Hobekuntza**: Jaizkibelen hegoaldeko magalean kokatzen den amezti (*Quercus pyrenaica*) hondatu eremu bat barneratzen da
- **Lurrazaleko uren babes eremua**: lurzoru urbanizaezineko erreketako ibai-ibilgu eta ibaiertz guztiak sartzten dira, eta ibilguaren alde banatan 10 metroko babes-eremua ezarri da.

Honako faktore baldintzatzaile hauek ere badituzte kategoria hauek: Jaizkibel GKL, korridore ekologikoa, akuiferoen kutsadura jasan dezaketen eremuak, %30etik gorako aldapa duten eremuak eta eremu akustikoak.

❖ **Eremu eta habitat naturalak**

Plan Orokorrek Jaizkibel GKL Garrantzi Komunitarioko Lekuaren mugak eta Natura 2000 Sarearen ondorioz dagokion babesak bildu ditu Memorian eta grafikoetan. Lurzoru urbanizaezina antolatzeke kategoriei erantsitako faktore baldintzatzaile gisa ageri da gainera, Sare horretan sartzeko aintzat hartutako natur balioak babestuko direla ziurtatzeko.

GKLaz gain, balio handiagoko habitatak ere babesten dira, 92/43 EEE Zuzentarauak Lehenetsunezko Interes Komunitariokotzat hartzen dituenak, besteak beste. Lezok halako bi habitat ditu: Haltz beltz (*Alnus glutinosa*) eta lizar arrunt (*Fraxinus excelsior*) baso alubialak (91E0* kodea) eta larre lehor seminaturalak (6210* kodea). Habitat horietako asko Babes Berezikoko Lurzoru Urbanizaezin kategorian daude.

Udalerriko 2 baso misto nagusiak ere babesten dira Babes Berezikoko Lurzoru Urbanizaezin kategorian horren bitartez, Xoroxolur eta Bakarraitzege ibarbideetakoak.

❖ **Korridore ekologikoak**

Plan Orokorrek udalerriko korridore ekologikoaren zati handi bat babesten dute, eta udalerriarekin muga egiten duten bi naturgune handiak (Jaizkibel eta Aiako Harria) eta tokiko naturguneak lotzeko funtzioa ematen dio horri.

Korridore hori Eusko Jaurlaritzak Jaizkibel-Aiako Harria korridoreko indargetze eremu deitutakoarekin egiten du bat, hein batean, eta udalerraren hegoalderantz hedatzen du Altamirako bizkarretan barrena.

❖ **Landazabala**

Plan Orokorren proposamenean garrantzi handia ematen zaio Lezoko landa-paisaia babesteari, udalerraren nortasunaren ezaugarri baita. Lurzoru urbanizaezina antolatuta, "Nekazaritza-Abeltzaintza eta Landazabala kategorian" ezarri da, eta Lezoko landa eremua osatzen duten ibarbide eta bizkarrak barnehartuz.

❖ **Ibai-ibilguak**

Udalerriko erreketako ibilgu eta ibaiertz guztiak hartu dira aintzat, eta lurzoru urbanizaezineko "Lurrazaleko uren babes eremu" kategorian ezarri da horientzat.

Ibilguaren alde bakoitzean 10 metroko babes-eremua ezarri da, eta, bertan, ibaiertzen berezko baldintzak eta ibaiertzeko landaredia zaindu, eta hondatutako ibaiertzen biziberritzea sutatu beharko da.

❖ **Mugikortasun iraunkorra**

Memoriaren txostenak bidegorri sare bat osatzea proposatzen du, Lezoko herritarrak udalerrian eta inguruko herrietan oinez edo bizikletaz ibil daitezten. Batetik, Lezo Errenterierekin eta Pasai Donibanerekin lotzea planteatzen da;

bestetik, berriz, espaloi eta bidegorri bat ezartzea Lezo-Gaintxurizketa errepidearen iparraldetik CN-1eraino, hortik hegoaldera desbideratuta Gaintxurizketako leporaino iritsiko litzatekeena.

❖ **Gune librean sistema**

Proposamenik esanguratsuen H.A.E. 5 Xoxolurra eremuaren (25.570 m²) definizioa da. Balio "estrategikoko" lekua da, hirigunearen eta Jaizkibelgo babes handieneko eremuen artean baitago. Xoxolurreko eremu horrekin mugan, hain zuzen ere, Babes Bereziko Lurzoru Urbanizaezin kategoriko baso misto bat dago.

❖ **Natur eta landa inguruarekin zerikusia duten beste hainbat proposamen**

Landa eremuarekin lotuta, udalerrian nekazaritza-produktu ekologikoak ekoizteko eta saltzeko, horien inguruan prestatzeko eta nekazaritza ekologikoa dinamizatzeko leku bat sortzea proposatu du Plan Orokorrak. Nekazaritza ekologikoko parke bat izango litzateke, eta Urrulloko eremuan egongo litzateke; topografia ona du, eta bertako uzten produktibitate eta kalitateak egin dute ezagun. Jarduera hori bultzatu eta sustatzeaz gain, Nekazaritza ekologikoko parkea hartuko duen lekuaren ingurumena eta natur balioa aintzat hartuta egingo da; soroz eta naturgunez osatutako mosaiko bat izango da, eta kontuan hartuko dira bioeraikuntza-irizpideak eta energia berriztagarriak, instalazioak egiteko.

8.1.4 Kalteak eragin ditzaketen jarduerak

Ingurumenari kalte nabarmena egin diezaioketen jarduerak bereizteko, honako faktore baldintzatzaile hauek izan dira kontuan:

- Lurzoruaren erabilera aldaketak
- Natur intereseko leku eta elementuen kontrako kaltea
- Lur mugitze eta erauzteak
- Begi, paisaia eta soinu inpaktua
- Mugikortasuna eta hiri-ingurumena

Memoriaren txostenean planteatutako jarduera gehienak hirigunean egingo dira, tartek aprobetxatuta, eremu hondatuak biziberrituta eta bizitegitarako eremuarekin bateraezinak diren industriak lekualdatuta. Gizarte eta ingurumen arloko proposamenak ere badaude. Jarduera hauek eragin positiboak eragiten dituzte askotan herritarrengan, bazter-eremuak biziberrituta, erabilera publikoko lekuak sortuta eta herritarren bizi-kalitatea hobetuta. Ez da ahaztu behar, alabaina, proposamen hauek eragin negatiboak ere eragin ditzazketela hiri ingurumenean, biztanleriaren handiagotzeagatik, zarata sorkuntzagatik eta herri eremu berdeen desagarpengatik. Bestalde, artifizializatu gabeko lurzoruen gain ere jarduerak proposatzen dira, ingurumenean eragin anitzak sortu daitezkelarik.

Gorago adierazitako irizpideetan oinarrituta, hurrengo eremu hauetan (ikus 1. irudia) ingurumen eragin adierazgarriak eman daitezke:

- Gaintxurizketa eremua. Lurzoru industrial (H.A.E. 26 Abendaño, H.A.E. 38 Gaintxurizketa) eta bide berria (N1 – GI2638 Bide-lotunea). Lehentasunezko interes komunitarioa duten bi habitat eta baso hostozabaletan eragina, eta lurzorua erabileraren aldaketa.
- Olatzar eremua. Egoitza garapen berria (H.A.E. 6 Olatzar) eta azpi-estazio elektrikoa (H.A.E. 10 Sagardi Malda). Lurzorua erabilera aldatzea suposatzen du, eta litekeena da Olatzarko errekarari ere eragitea.
- Hirigunearen eremua. Egoitza garapen berriak (H.A.E. 11 Isasti, H.A.E. 13 Marrukene, H.A.E. 14 Algeposa 1, H.A.E. 17 Maintzine, H.A.E. 26 Arraitoki), ekipamendu hornidura (H.A.E. 7 Futbol Zelaia, H.A.E. 8 Ikastola) eta erabileren bermatzea (H.A.E. 18 Maintzinea Mendebaldea, H.A.E. 19 Bat, Bi, Hiru Etxeak). Hiri ingurumenaren kalitatearen gain eraginak izan daitezke.

8.2 BESTE PLAN EDO PROGRAMEN LOTUREN AZTERKETA

8.2.1 EAEko Lurralde Antolakuntzari buruzko 4/1990 Legearen ondoriozko txostenak

EAEko **LAA Lurzorua Antolatzeko Artezpideak** dira gainerako txostenak dokumentatzeko eta idazteko erreferentzia.

Behin betiko onartutako txostenak

- *262/2004 DEKRETUA, abenduaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Jarduera Ekonomikoetarako Lurzorua Sortzeko eta Saltoki Handiak Antolatzeko Lurralde Plan Sektoriala onartzekoa, 2005eko urtarrilaren 28ko EHAren 19. zenbakian argitaratua.*
- *EAEko Trenbide Sarearen Lurralde Plan Sektoriala. Behin betiko maiatzaren 14ko 41/2002 Dekretuaren bidez onartua.*
- *Kantauriko Isurialdeko Ibaiertzak eta Errekaertzak Antolatzeko Lurralde Plan Sektoriala. Behin betiko abenduaren 22ko 415/1998 Dekretuaren bidez onartua. 1999ko otsailaren 18ko EHAAn argitaratua.*
- *Euskal Autonomia Erkidegoko Itsasertza babestu eta antolatzeko Lurralde Plan Sektoriala. Behin betiko martxoaren 13ko 43/2007 Dekretuaren bidez onartua, 2007ko apirilaren 2an EHAren 65. zenbakian argitaratua.*

Izapidetze fasean dauden txostenak

- *Donostiako Eremu Funtzionalaren Lurraldearen Zatiko Plana (Donostialdea Bidasoa Behea). 2003ko ekainaren 4an argitaratutako aurrerapen txostena.*
- *Garraioaren Sare Intermodala eta Logistikoa Antolatzeko Lurralde Plan Sektorialaren aurrerapen txostena. 2003ko uztailearen 24koa.*
- *Etxebizitzaren Sustapen Publikorako Lurzorua Lurralde Plan Sektoriala. Aurrerapen txostena, 2000ko ekainaren 29koa.*

- *Nekazaritza, Basozaintza eta Natura Ingurunea Antolatzeko Lurralde Plan Sektoriala*. Hasierako onarpena abenduaren 28ko 277/2004 Dekretuaren bidez egina. EHAAn 2005eko otsailaren 16ko 32. zenbakian argitaratua.
- *EAEko kultura-ondarea Antolatzeko Lurralde Plan Sektoriala*. Aurrerapen txostena, 2001eko uztailaren 6an onartua.
- *Kantauriko Isurialdeko Ibaiertzak eta Errekaertzak Antolatzeko Lurralde Plan Sektorialaren 1. Aldaketa*. Hasierako onarpena 2008ko urtarrilaren 21eko EHAAn argitaratua. Jendaurreko aldia, 45 lanegun argitaratze egunetik kontatzen hasita.
- *EAEko Errepide Plan Orokorra eta Gipuzkoako Errepideen Lurralde Plana*
- *Garapen Jasangarriaren Euskal Ingurumen Estrategia 2002-2020 eta Ingurumen Programa Markoa 2007-2010*
- *Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurraldeko Sektorez Sekoreko Plana (aurrerapena)*

8.2.2 Beste hainbat txosten

Lehen aipatutako txosten horiz gain, Lezoko hirigintza planeamenduan honako hauek ere hartu behar dira kontuan:

- *Pasaiko Portua antolatzeko Plan Berezia*. Izapidetze bidean.
- *Oarsoaldeko Eskualdeko Plan Estrategikoa*. 1994
- *Jaizkibel Kudeatzeko Plana. Europako Natura 2000 Sareko ES1210017 gunea*. 03 zirriborroa. Gipuzkoako Foru Aldundia.
- *Lezoren Iraunkortasunerako Ekintza Plana. Lezoko Tokiko Agenda 21*. 2006ko martxoa. Oarsoaldea SA, Eskualdearen Garapenerako Agentzia.
- *Herriondoko Plan Berezia*. Lezoko eta Oiartzungo udalak (2001eko abendua). Gipuzkoako Foru Aldundiak onartzeko.
- *EAEko Korridore Ekologikoen Sarearen Azterketa*, Eusko Jaurlaritza (2005).
- *Pasaialdea eskualdeko airearen kalitatearen ekintza plana*. Labein. Eusko Jaurlaritza. 2005-2007.
- *Lezoko udalerriko Zarataren Eraginaren Azterketa Plana*. AAC, Lezoko Udala.
- *Gipuzkoko Uraren Erabilera Iraunkorrerako Jarraibideak*. Gipuzkoako Foru Aldundia.
- *Klima Aldaketaren aurkako Euskal Plana, 2008-2012*. Eusko Jaurlaritza.

8.3 UDALERRIAREN AZTERKETA, DIAGNOSTIKOA ETA BALORAZIOA

8.3.1 Inguruko ingurumen baliabide baliotsuak

❖ *Jaizkibel mendia*

LAAetako Natur Intereseko Eremuen Zerrenda Irekian agertzen da, eta Garrantzi Komunitarioko Leku (GKL) izendatu zuten 2004ko abenduan; 2.434 hektarea ditu, eta horietatik 140 inguru Lezon daude, horren iparraldeko mugan, eta izen bereko Erabilera Publikoko Mendiko udalaren lurak hartzen ditu.

Lezoko sektorean, basoko landaketetako habitatak dira nagusi; hala, konifera espezieak (*Pinus pinaster*) eta hostozabal exotikoak (*Quercus rubra*) azpimarratu behar dira. Jaizkibelgo gailurrean, udalerrriaren mugan, eta landatutako landareekin nahastuta, *Quercus pyrenaica* ale batzuk aurki daitezke, eremu horretako landaredia potentziala.

Eremu hau GKL denez, 92/43 EE Zuzentarauaren 6. artikuluko 2, 3, eta 4 atalek, eta 1997/1995 Errege Dekretuaren 6. artikuluko diotena aplikatu behar da; beraz, habitat naturalak eta mendiko fauna eta flora babestuta bioaniztasuna bermatzen laguntzeko neurriak ezarri dira. Hala, bertan edozein jarduera egiteko, jarduera horrek leku horretan izango duen eragina aztertu beharko da, estatu eta erkidego mailako indarreko araudiaren arabera.

❖ *Lehentasunezko intereseko habitatak*

- Haltzadi kantauriarra

Udalerriko haltzadi onena Luberri inguruan dago, Apaizartza errekan ertzetan, eta Itturringo industrialdean lurpean sartzen da. Ibaiertzeko baso txiki bat da, eta nahiko ongi kontserbatuta dago, nahiz eta leku askotan haltz lerro estuak baino ez izan.

92/43 EE Zuzentarauaren arabera lehentasunezko komunitate intereseko habitata delako da interesgarria (91E0* habitata – *Alnus glutinosa* eta *Fraxinus excelsior* baso alubialak). Gainera, azterketa-eremu honetako baso alubial bakarra da.

- Sastrakadiak eta orkideak dituzten larre lehorrak

Habitat hau udalerriko hainbat lekutan aurki daiteke: Teñelu inguruan, eta Apaizartza errekan, Ameztiko errekan eta Arriandiko errekan. Baso edo sastrakadietako ordezko larrea da, eta belar espezie ugari ditu, gramineak batik bat. Hainbat orkidea espezie dituelako da interesgarria habitat hau.

Lehentasunezko garrantzi komunitarioko habitata da 92/43 EE Zuzentarauaren arabera (6210 habitatak, belardi lehor erdinaturalak eta sastrakafaziesak kare-substratuen gainean, garrantzitsuak dituzten parajeak).

❖ **Hostozabal zuhaiztiak (haritz kandudun basoak, baso mistoak eta ameztiak)**

Harizti azidofiloz eta harizti mistoz estalita egon behar luke azterketa-eremuaren zatirik handienak, baina nekazaritzarako erabiltzeko lur horiek belardi eta soro bihurtu direnez, ibarbasoen atzealdean baino ez daude halakoak; dena dela, baso handiagoak ere badira leku batzuetan.

Espezie nagusia *Quercus robur* (haritz kanduduna) da, bai eta *Fraxinus excelsior* (lizar arrunta) eta *Alnus glutinosa* (haltz beltza) -putzuak dauden gunek ageri da batik bat- eta *Castanea sativa* (gaztainondo arrunta) ere. Lezoko erreka behienetan landare horiek osatzen dute ibaiertzeko basoa.

Lurzoru pobreenetan eta aldapa handikoetan, *Quercus pyrenaica* eta *Quercus robur* ameztiak ordezkatu du harizti azidofiloa; gehienetan silize-haitzetik eratorritako lurzoruen gainean daude, elementu mineraletan eta azidoetan pobreak direnetan. Itsasertzeko estazioetan ametz arrunta (*Q. pyrenaica*) ikustea interesgarria da fitosozilogiaren aldetik; izan ere, glaziarren arteko edo sasoi lehor eta nahiko beroen arteko garaian heldu zelako hipotesia dago, eta harrezkero harizti hostoerokorrak errekuaratzeko zailak diren estazioetan geratu dela. Azterketa-eremuan oso gutxi ikusten dira, Jaizkibelgo gailurreko zerrenda estu batzuetan baino ez.

❖ **Ingurumeraen aldetik sentikorrek diren eremuak**

- Udalerritik igarotzen diren etengabeko korronteko ur-ibilgu natural guztien jabari publiko hidraulikoa.
- Ondare artistikoaren zati izateagatik katalogatu edo inbentariatutako eremu eta lekuak, horien ingurua barne.

Azken kasu horretan, EAEko monumentu multzo izendatutako Donejakue Bidea eta Jaizkibelgo dorreak azpimarratu behar dira. Donejakue Bidea Jaizkibel mendia gailurretik igarotzen da, dorreen ondotik, eta Zaskuna inguruan hasten da Lezoko hirigunerantz jaisten.

8.3.2 Ingurumena babesteko helburu eta lehentasunak

Laburbilduta, inguruko elementu baliotsuak babestearekin eta prozesu ekologikoekin bateragarria den garapen iraunkorra bultzatzeak izan behar du Lezoren lurralde-antolamenduaren helburu nagusiak.

Hona hemen helburu berezi nagusiak:

- Natur intereseko eremu nagusiak eta Jaizkibelgo GKLa babestea.
- Habitat potentzialak leheratzea, ibarretako ibarbasoak eta Jaizkibelgo hegoaldeko hegaleko ameztia leheneratzen saiatzea.
- Giza jarduerak egurats, akustika eta hidrologia kalitateari, nahiz kalitate edafikoari egiten dioten kaltea minimizatzea, lurraldea antolatzeke neurri tekniko egokiak aplikatuta.
- Udalerraren beharren arabera hirigintza eta industria hazkundera

planifikatzea, tokiko eskaerei kasu eginda, lurzoruaren artifizializazio-tasa eta natur, geologia eta nekazaritza intereseko eremuen okupazioa arrazionalizatzeko.

- Korridore ekologikoko inpaktuak minimizatzea eta bertako gune sentikorrenak babestu eta biziberritzea.
- Garraio publikoaren erabilera sustatu, batez ere industrialdeetara.
- Bizikletaren erabilera sustatu, benetako garraio-hautabide bezala.
- Hirigunean oinezkoen mugimendua hobetu.

8.4 TEKNIKOKI ARRAZOIZKOAK DIREN AUKEREN INGURUMEN AZTERKETA. AURKITUTAKO KONPONBIDEAREN JUSTIFIKAZIOA

8.4.1 Aukera desberdinen balorazioa

Atal honetan, bizitegitarako eta industria lurzoru berrietarako Aurrerapen fasearen IEBEaren dokumentuan proposatutako hautabideen analisia jasotzen da, aurreko atalean zehaztutako irizpideen arabera, eta bere kontsultarako esandako txostenaren atal berara jotzea gomendatzen da.

8.4.2 Antolamendu-ereduaren balorazioa.

Ezarritako antolamendu-eredua ingurumenaren ikuspegitik baloratzeko, honako parametro hauek aztertzen dira:

- Lurzoru urbanizaezinaren kontsumoa eta lurzoruaren artifizializatzea
- Sistema orokorren sareko gune libreen zuzkidura
- Lurzoru urbanizaezinaren eta naturguneen erabilera
- Mugikortasuna (bide berriak, bidegorriak,...)

❖ Lurzoru urbanizaezinaren kontsumoa eta lurzoruaren artifizializatzea

Lezoko udalerririk 846,55 hektarea ditu, eta horietatik 724,84 lurzoru urbanizaezina dira. Azalera hori udalerririkaren %86 bada ere, baliabide mugatua da, eta arrazionalizatu egin behar da horren kontsumoa, hirigintza, industria eta azpiegiturak hedatzea planteatzerakoan, Plan Orokorraren helburuetan adierazi bezala. Lurzoru urbanizaezinaren kontsumoa da udal planeamenduaren iraunkortasuna baloratzeko erabiltzen den adierazle esanguratsuenetako bat.

7. taulan, lurzoruaren sailkapenaren egoerak alderatzen dira, oraingo Plan Orokorra idatzi baino lehengo egoera eta honen bidez egindako proposamenak burutu ostean dagoen egorea artean. Lurzoruaren kontsumoari dagokionez, bai urbanizaezinatik urbanora aldatzea eta baita garraio azpiegiturengatik okupatutako lurzoru urbaezina ere kontuan hartzen dira.

Beraz, **lurzoruaren kontsumoa**, lehenago adierazi bezala ulertuta, 243.392 m²etan kokatzen da, hau da, **24,34 ha**. Honek esan nahi du gaur egun existitzen

den lurzoru urbano eta urbanizatzailea %20 batean handitzen dela, gutxi gorabehera. Hala ere, kontuan izan behar da proposamen hauen parte bat artifizializatutako⁴ lurzoruen (hiri eta industrialak) gain egiten dela, eta batzuetan ez direla bizitegi garapen berriak proposatzen, existitzen direnen bermatzea baizik. Bestalde, gunee libreen sistema orokorraren zuzkiduran azalera handia proposatzen da, bere balio naturalak kontserbatu eta hiritarrentzat eskuragarri egoteko helburuekin, lurzoru artifizializatu gabe. Beraz, azalera hauek deskontatuz, gaur egun ingurune edo landa lurrak diren azalaren benetako okupazio eta artifizializazioa 20 ha besterik ez dira. Egun existitzen den **lurzoru urbanizaezinari** dagokionez, bere osotasunean (724,84 ha), eragina mugatua da, baliabide honen **%2,7aren murriztea** besterik ez suposatuz.

Proposamenen lurzoruaren artifizializazioaren ekarpenari dagokionez, industria-lurzoru berrien eta hauen errepideen garapenak eragiten dute kalterik handiena, ia denak egun okupatu gabe dauden lurzorueta garatzen baitira. Lurzoruaren kontsumoaz eta artifizializazioaz gain, paisaiaren eta natur inguruaren gaineko eragin handia dute garapen horiek.

Bizitegitarako garapenei dagokionez, berriz, Olatzarko sektorea soilik proiektatu da egun "birjina" den lurzoru batean, nahiz eta egungo hiri-bilbearen ondoan egon; izan ere, hirigunean daude bizitegitarako gainerako lurzoruak, lurzoru eraldatueta eta, kasu askotan, industria-lurzoruak (jarduera batzuk lekuz aldatuta) edo bazter geratutakoak biziberritzea suposatzen du. Plan Orokorreko antolamendu-irizpideek eurek mugatzen dute bizitegien ugaltzea Zubitxo errekaen ibarrera, lurzoru artifizializatueta eta etxebizitza hutsen biziberritzea lehenetsita eta, horrela, inpaktuak natur eta paisaia balio handiagoko gunee tara aldatzea saihestuta.

❖ **Udalerriko sistema orokorren sareko gunee libreen zuzkidura**

Udalerriko sistema orokorren sareko berdegune eta hiri-parkeen falta handia du Lezok egun. Hain da hala, non gaur egun ez diren betetzen EAEko Lurzoruaren inguruko Legeak ezarritako gutxieneko estandarrak, horrelako lurzoruaren erreserbak biztanleko 5 m²-tik gorakoa izan behar duela baitio horrek.

Alde horretatik, hainbat eremu mugatzen ditu Plan Orokorren Hasierako Onarpenerako Txostenak, eskaera horiek betetzeko. Proposamenik esanguratsuen Xoxolurra eremukoa da; 25.412 m² -ko gunea da, eta natur balio handiko inguru batean dago, baita hirigunetik hurbil ere, eta erraz irits daiteke bertara. Gainera, Olatzar eremuan 8.428 m²ko azalera proposatzen da, Xoxolurraren ondoan, udalerriko berdegunerik handien osatuz.

Guztira, udalerriko sistema orokorren sareko gunee libreetarako 33.840 m²-ko azalera proposatzen du Plan Orokorrak (Xoxolurra eta Olatzar), bermatzen denarekin eta jadanik dagoenarekin batera 121.922 m² batzen dutelarik, Memoriaren II.3.8 atalean adierazten den bezala. Nahiz eta Salvaren gunee libreen azalera kendu, kokatzen diren lekua hiritarrentatik erabiliak izan ezin direlako, Plan Orokorrean barneratutako gunee libreen azalera guztia parametro honen inguruko eskaeren bikoitza da, 49.408 m² inguru (egungo populazioa eta garapen berriekin izango dena kontuan hartuta) 2006ko ekainaren 30eko Lurzoru eta Urbanismoaren Legearen 78. artikulua zehazten duenaren areabera.

⁴ Lurzoruaren artifizializazioa, lurzoruaren egoera naturalaren aldaketa bezala ulertua, etxebizitza, errepide, aparkaleku, industrialde, etab. desberdinen eraikuntzagatik.

❖ **Lurzoru urbanizaezinaren eta naturguneen erabilera**

IEBE txosten honen 1.5.1 atalean, Arau Subsidiarioek lurzoru urbanizaezina antolatzeke definitutako kategoriak deskribatu dira.

Antolamendu proposamen honen azterketatik ondoriozta daitekeenez, balio handieneko natur eremu gehienak babestuta geratuko dira, eta udalerraren elementu egituratzaileak izango dira. Horixe da Jaizkibel mendiaren eta korridore ekologikoaren kasua, hain zuzen, garapen berrientzako mugak ezarri eta hirigunearen zati bat inguratuko duen babes-tarte bate zarri dute, industria eta bizitegi erabilerak bereizita eta, aldi berean, udalerriko iparraldeko eta hegoaldeko naturguneen arteko lotura ekologikoa ahalbidetuta.

Lurzoru urbanizaezina antolatuta, halaber, garrantzi handia ematen zaio landazabaleko paisaiari; izan ere, Lezoren ezaugarria denez babestu egin nahi da hori. Paisai ahori babestuta, lehen sektoreko ekonomia jarduerari ere eman nahi zaio balioa, eta horren kultur garrantzia azpimarratu, udalerraren "nortasun ikur" bihurtuta.

Gaintxurizketako eremuan soilik hausten da jarduera-proposamenen eta natur balio handieneko eremuen babesaren arteko oreka hori. Industrialdeak ezartzeko aukeretako bat den arren, lehentasunezko interes komunitarioko bi habitat daude eremu horretan, eta proposatutako jarduerak mugatu egiten du horiek babes bereziko eremu gisa babestea.

❖ **Mugikortasuna (bide berriak, bidegorriak,...)**

Mugikortasunaren ikuspegitik, Plan Orokorren Memoriak, zirkulazioak –ibilgailu astunek batik bat-, eta Donibanerako (GI-3440) eta Gaintxurizketarako (GI-2638) errepideek eragindako hirigunearen zatitzearen arazoak jorratzen ditu. Arazo horiek konpontzeko, bide-eskema berri bat proposatzen du; batetik, Lanbarrengo biratokiaren (N.1 – GI.2638 Bide-lotunea) parean; bestetik, berriz, portutik saihezbide bat egitea, Donibanera doan errepidearen (GI-3440) zirkulazioarentzat.

Lehen proposamenak abantaila ugari ditu Lezoko hiri-eremuarentzat, ingurumenaren ikuspegitik, eta beste hiri-eremuei ez die kalterik egiten; gainera, eragin txikiagoa edukiko luke inguru fisikoaren eta paisaiaren gainean, azkenean tunel bat egingo balitz.

GI-3440 saihezbidearen inguruko proposamenari dagokionez, Jaizkibel etorbideko eta Elias Salaberria kaleko kutsadura atmosferiko eta akustikoa nabarmen gutxitzea ekarriko luke horrek, eta hirigunearekiko zatiketa ere txikitu egingo litzateke. Hala ere, eta behin betiko diseinuaren, lur gaineko kotaren eta soinu-inpaktuak minimizatzeke sistemen arabera, kalte egin liezaioke Polentzarrene kaleari. Dagokion fitxan azaltzen den bezala (H.A.E. 22 Bariantea), eskudun den erakundeak erabaki beharko du hautabide egokiena, eta baita bere ingurumen-eragina ere.

Hiriguneko zirkulazioa kentzea ona izango litzateke oinezkoentzat eta egun sakabanatuta dauden eremuak komunikatzeko.

Bestalde, bidegorri baten bidez Lezo Errenteriarekin eta Donibanerekin lotzea proposatzen du Memoriaren txostenak; proposamen positiboa da, bai eta beharrezkoa ere. Gaintxurizketarako errepidearen iparraldean ere proposatzen da bidegorri bat; GI-2638 errepidearekin mugan egongo litzateke hori. Bide horren dohainik handiena da bide horretako lantokietara joateko komunikazio bide izatea.

8.5 PLAN OROKORRAREN JARDUEREN ERAGINEN IDENTIFIKAZIO ETA BOLORAZIOA

Atal honetan, Plan Orokorrean proposatutako jarduerak –eragin nabarmena dutenak eta 1.6 atalean definitu direnak- ingurumenari eragin diezaioketen kalteak baloratuko dira. Horretarako, Ingurumen Inpaktuari buruzko 1131/1988 Errege Dekretuaren I . eranskinean definitutako kontzeptu teknikoak erabili dira.

Honako eremu hauek aztertuko ditugu jarraian:

- Gaintzurizketa eremua
- Olatzar eremua
- Hirigunearen eremua

8.5.1 Gaintxurizketa eremua

ALDAGAI	ERAGINA	ERAGINAREN IZAERA
Natur baliabideak	Larre eta ibarbasoan kalteak	MODERATUA
	Landazabal eta ibarbasoekin lotutako faunan eragina.	MODERATUA
	Baso alubiala (91E0* kodea) eta Larre lehor seminaturalak (6210*) Interes Komunitarioko Habitatetan eragina. Proposatutako sarbideak nabarmen eragin liezaioke habitat horien osotasun eta kalitateari	HANDIA
Eremu sentiberak, ingurumenari dagokionez	Apaizartza eta Batxillerborda erreken bilguari eta Juanotene errekarari eragina	MODERATUA
Estetika, kultur edo paisaia baliabideak	Landazabal paisaia duen eremua da, muino txikiak ditu, eta belardi eta baserriak dira horietan nagusi, bai eta ibaiertzeko landaredi ongi kontserbatua duten bi erreka ere. Paisaia kalitate handiko ingurua da. Proposatutako jarduerak nabarmen aldatuko luke paisaia, industria jarduera eta bide-azpiegiturak ezarriko bailizateke landa eremu horretan	HANDIA
Baliabide berriztagarri eta ez-berriztagarriak	Lurzoru urbanizaezineko 134.104 m ² kontsumitzea suposatzen du jarduerak, eta 32.464 m ² ko okupazioa, N-1 eta GI-2638 errepideak lotzeko bidea eta biribilgunearen eraikuntzarekin	MODERATUA
	Lanen faserako aurreikusitako lur-mugitzeak eta sarbidea eraikitzeak Apaizartza eta Batxillerborda erreketako uraren kalitateari eragin liezaioke. GI-2638 errepidean biribilgunearen eraikuntzak Juanotene erreken lurperatza suposatuko luke.	MODERATUA
	Akuiferoen kutsadurarekiko zaurgarritasuna txikiko eremua	-
Hondakinak eta kutsadura	Hondakin-sortzea eta kutsadura atmosferiko eta akustikoa eremu horretako industria-jardueraren arabera izango da. Memorian aurreikusi bezala, Algeposaren zati bat bertan ezartzeak atmosferaren eta akustikaren kalitateari eragin liezaioke; beraz, beharrezko neurriak hartuko dira.	MODERATUA
Giza osasuna, lasaitasuna eta hiriko ingurumenaren kalitatea	Instalazio berriak nabarmen aldatuko du lanen aurreko lasaitasuna eta bertan ezartzen diren jardueren arabera, giza osasunari ere eragin liezaioke. N.1 - GI.2638 bide-lotuneak hirigunearen biztanleen bizikaltatearen hobekuntza suposatuko luke.	MODERATUA
Ekologia eta nekazaritza produktibitatea	Jarduerak Nekazaritza Balio Estrategikoko 14 ha inguruko galtzea suposatuko du.	HANDIA
Kultur ondarea	Jardun-eremuarekin mugan ia, balizko arkeologia guneak daudenez, elementu horien inguruari eragitea aurreikusten da.	BATERAGARRIA

8.5.2 Olatzar eremua

ALDAGAI	ERAGINA	ERAGINAREN IZAERA
Natur baliabideak	Larre eta baso mistoetan kalteak	MODERATUA
	Belardiekin lotutako faunan eragina	BATERAGARRIA
	<i>Sega-belardi pobre baxuak</i> (6510 kodea) Interes Komunitarioko Habitategen eragina	BATERAGARRIA
Eremu sentiberak, ingurumenari dagokionez	Jardun-eremua Olatzar errekatik 25 metro ingurura dago	BATERAGARRIA
Estetika, kultur edo paisaia baliabideak	Hirigunearen goiko aldean dagoenez, udalerriko leku askotatik ikus daiteke, eta kalte egiten dio, nolabait, paisaiari. Eraikin berriak eta urbanizazioa diseinatzeko orduan kontuan izan beharko dute hori, eragin hori ahalik eta gehien txikitzeko.	MODERATUA
Baliabide berriztagarri eta ez-berriztagarriak	Lurzoru urbanizaezineko 71.732 m ² kontsumitzea suposatzen du jarduerak, baina horietatik parte handi bat gune libreterako izango da eta beste parte bat jadanik artifizializatua dago.	MODERATUA
	Lanen faserako aurreikusitako lur-mugitzeek Olatzar errekatiko uraren kalitateari eragin diezaioke, baina eragin hori lanak bukatu ahala desagertuko da.	MODERATUA
	Akuiferoen kutsadurarekiko zaurgarritasuna txikiko eremua	-
Hondakinak eta kutsadura	Ustiapen fasean, populazio handitzeak hiri-hondakinen ugaritzea ekarriko du, bai eta zirkulazioarena ere, eta litekeena da zarata eta kutsadura ere areagotzea. Bizitegi berrian 120 etxebizitza berri egitea aurreikusten da; udalerriko eremurik jendeztatuenaren hiri-eremuaren ondoan egongo dira eta, hortaz, onartzeko modukoa da eragin hori.	BATERAGARRIA
Giza osasuna, lasaitasuna eta hiriko ingurumenaren kalitatea	Lanek iraun bitartean enbarazu egingo zaie inguruko bizilagunei, eta zirkulazio arazoak ere izango dira, zarataren, lur-mugitzeen eta kamioien ondorioz. Fase hori amaitutakoan, sarbide berriak erraztu egingo du bizitegi berriko eta lehendik dauden etxebizitzetako zirkulazioa, eta aparkaleku gehiago egongo dira. Atsedeneku publikoak sortzea ere positiboa izan daiteke.	BATERAGARRIA
Ekologia eta nekazaritza produktibitatea	Jardueraren zatirik handiena Nekazaritza Balio Estrategikoko lurzoruan egingo da.	MODERATUA
Kultur ondarea	Hirigintza-jarduerarako eremuaren mendebaldean eta horrekin mugan Donejakue Bidearen zati bat dago, Jaizkibeldik datorrena. Bidetik hurbilen dagoen eremua hiri-gune libreterako da; hortaz, jarduerak ez lieke gehiegi eragin behar horren orografiari eta paisaiari. Dena dela, eremu honetarako proposatutako edozein jarduerak kontuan eduki beharko du halako kultur elementu baliotsuaren hurbiltasuna.	BATERAGARRIA

8.5.3 Hirigunearen eremua

ALDAGAI	ERAGINA	ERAGINAREN IZAERA
Natur baliabideak	Orokorrean jadanik eraldatuak dauden lurzoruak. Belardi azalera txikiei eragina. Basotxoak daude.	BATERAGARRIA
	Oso murriztua	BATERAGARRIA
	Sega-belardi pobrek (6510 kodea) Interes Komunitarioko Habitategen eragina.	BATERAGARRIA
Eremu sentiberak, ingurumenari dagokionez	Minkura, Mukitar eta Zubitxo erreak eremuaren barruan edo ondoan daude. Urbanizazioetan berreskuratzeko eta integrazteko aukera.	BATERAGARRIA
Estetika, kultur edo paisaia baliabideak	Jarduerak hiri-gunean aurkitzen dira. Industrialde eta eremu marginalak egoitza, jarduera ekonomiko eta ekipamendu eremuetan birmoldatzea suposatzen dute. Beraz, hiri-paisaiaren gaineko eragina positiboa izango litzateke.	MODERATUA
Baliabide berriztagarri eta ez-berriztagarriak	Lurzoru urbanizaezineko 5.092 m ² kontsumitzea suposatzen du jarduerak.	BATERAGARRIA
	Lanen fasean aurreikusitako lur-mugitzeek Zubitxo, Minkura eta Mukitar erreketako uren kalitateari eragin liezaioke, batez ere lur azpian edo bideratuta badago	BATERAGARRIA
	Akuiferoen kutsadurarekiko zaurgarritasuna eskasa edo oso eskaseko eremua	-
Hondakinak eta kutsadura	H.A.E. 14 Algeposa 1 bizitegiaren garapenarekin, pulazioaren handitze garrantzitsu bat espero da, hirigunearen osotasunean proposatzen diren 517 etxebizitzengatik. Honek hondakinen sorkuntza handiagoa eta ibilgailu kopuruaren handitzea ekarriko du, eta ondorioz kutsadura areagotuko da. Eragin hauek gutxitzeko neurri egokiak aurreikusi beharko dira.	MODERATUA
Giza osasuna, lasaitasuna eta hiriko ingurumenaren kalitatea	Eragin positiboak espero dira, bereziki hiri-eremuetan eraldatutako eremu industrialetan, eta baita ekipamendu komunitarioak eta jarduera terziarioak proposatu diren eremu degradatuetan. Berdeguneen ezabatzea eta populazioaren hazkuntzak (500 etxebizitza berri baino gehiago) lasaitasunean eta hiri-ingurumenean eragin negatiboak izan ditzakete. Zaratari dagokionez, eremu batzuetan maila altuak antzeman dira (Arraitoki, Larrañaga, Maintzine, Marrukene, Algeposa) errepedeenganako gertutasunarengatik, eta, beraz, beharrezkoak diren neurriak ezarri beharko dira eremu hauen urbanizazioan, araudiak ezarritako kalitate akustikoa betearren.	MODERATUA
Proposamenaren ondoriozko arriskuak	H.A.E. 14 Algeposa 1n, H.A.E. 13 Marrukenen, H.A.E. 26 Arraitokin, H.A.E. 27 Larrañagan eta H.A.E. 18 Maintzine Mendebaldean <i>Lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak izan dituzten edo dituzten lurzoruen inbentarioan (165/2008 Dekretua, irailaren 30ekoa)</i> dauden lurzoruak aurkitu dira.	MODERATUA

8.6 NEURRI BABESLE, ZUZENTZAILE ETA KOMPENSATZAILEEN INGURUKO PROPOSAMENA

8.6.1 Proposatutako jarduerak ingurumenean duten eragina saihesteko edo gutxitzeko neurri zehatzak

Atal honetan, eragin esanguratsuak antzeman diren eremuetan aplikatzeko neurri zehatzak adierazten dira.

❖ Gaintzurizketa eremua

- Paisaian integratzea

Industria garapen berria paisaia balio handiko landazabal eremu batean kokatzen da; nekazaritza da bertan nagusi, eta baserriak eta zuhaitziak daude muino eta ibarretan, hurrenez hurren. Eremu horretan industrialde bat jartzeak nabarmen aldatuko du paisaia, eta neurri zuzentzaileak ezarri beharko dira eragin hori gutxitzeko.

Urbanizazioa eta eremurako sarbideak lursail horren orografiara egokitu beharko dira ahal den neurrian, ibarra keta erreka ibilguak errespetatuta eta horiek betetzea saihestuta. Landare pantailak ezarriko dira eremu urbanizatuaren inguruan, epe ertainera horren eragin atxikitzeko; horretarako, zuhaixka eta zuhaitz autoktonoak erabiliko dira.

- Gune libreak balio handieneko elementu naturalak babesteko erabiltzea

Jardun-eremuko gune libreak lehentasunezko interes komunitarioko habitatak eta Apaizartza errekaok euren berezko egoeran kontserbatzeko erabiliko dira.

- Ezarri beharreko jarduerak ingurumenera egokitzea

Inguruko ingurumenaren gainean eragin dezaketen jarduerari neurri zuzentzaileak aplikatuko zaizkiela bermatu beharko da; lekualdatzeetan eta jarduera berrietan aplikatu beharko lirateke halakoak. Izapideak egiterakoan ikusitako neurriak egongo lirateke horien artean, MINP erregelamenduari buruzkoak, alegia.

- Sarbidearen trazaduraren egokitzea, Juanotene errekaen eta horren ibarbasoaren gaineko eragina minimizatzeke

Errotondaren (N1-GI2638 Bide-lotunea) diseinuaren xehetasunak doitu egin behar dira, lurzorura eta balio naturaletara egokituta Juanotene errekaen eta horren ibarbasoaren -haltza, lizar eta haritz ederreko ongi kontserbatutako zuhaitzi batek osatzen du hori- gaineko eragina minimizatzeke.

❖ **Olatzar eremua**

- Paisaian integratzea

Bizitegi garapen berria eta azpi-estazio elektrikoak, hiri-eremuaren alboan eta futbol zelaiaren eta hilerriaren ondoan kokatu arren, landa inguruan daude, eta erraz ikusten da, muino batean baitago; beraz, eremu horren zaurgarritasuna hartu beharko da kontuan eraikin berriak eta eremuaren urbanizazioa diseinatzerako orduan.

Paisaian integratzeko hartu beharreko neurrien artean, lur-mugitzeak ahalik eta gehien murriztea proposatzen da, eraikin eta bide berriak bertako orografiara egokituta. Eraikinen dagokienez, aintzat hartu beharko da horien altuera eta tipologia, hiri-ingurua gehiegi alda ez dezaten.

Azpi-estazio elektrikoari lotuta dauden dorre eta linea elektrikoari dagokienez, paisaian izan dezaketen eragina murrizten saiatuko da, lineak lur azpitik eramaten eta, ahal den neurrian, dorreak paisai hauskorra duten eremuetan kokatzen saihestuz.

- Olatzar errekaen eta horren ibaiertzeko landarediaren babestea

Olatzarko bizitegi berrirako definitutako eremua erreka eta horren landarediari ez eragiteko bezain bereizita badago ere, komenigarria da elementu natural horien babestearen garrantzia azpimarratzea. Horrela, hurrengo faseetan proposa litezkeen eremu edo jarduera aldaketek errekaen edota horren landarediaren gainean eraginik ez izatea lortu nahi da; dena dela, babestu beharreko natur balioetat jo behar dira elementu horiek beti.

❖ **Hirigunearen eremua**

- Zarata-eraginaren murriztea

Zarata maila altuek gehien eragiten duten garapen berriko eremuak Arraitoki, Larrañaga, Maintzine, Marrukene eta Algeposa dira, 60 eta 70 dB arteko mailekin, zarataren maparen arabera. Eragile hau kontuan hartu beharko da urbanizazio berriak egiteko momentuan, bai bizitegikoak bai ekipamendukoak, legediak ezarritako kalitate akustiko maila egokiak lortzearren.

Ezarri daitezkeen neurrien artean, prebentzio-izaera dutenak indartuko dira, urbanizazioen diseinu fasean ezarri beharko direnak: eraikin desberdinen kokapen eta antolaketa (pantaila moduan), erabileren antolaketa zarata maila desberdinen gainean duten tolerantziaren arabera, bai urbanizazioan (egoitza, jarduera ekonomikoak, ekipamenduak,...) bai etxebizitza barruko banaketan (logelak, jangela,...), etxaurre eta leihoen isolamendua,...

Neurri hauek nahikoak ez badira, zarataren kontrako babes sistemak ezartzea ikertuko da, pantaila akustikoak edo bestelako gailuen modukoak.

Orobat, zehaztasun handiagoko ikerketak akustikoa egitea gomendatzen da, garapen berrien diseinu fasean beharrezko neurriak ezartzea ahalbidetuko duena.

- Zubitxo errekaen integrazioa eta horren ibaiertzaren biziberritzea

H.A.E. 26 Arraitoki eremua Lezoko hiri-eremuan integratuta badago ere, Zubitxo erreka-eremua bilguarekin egiten du muga iparraldean, badien itsasoratu aurretik lur gainean geratzen den azken zatia erekin. Ibaiertzak eta Errekaertzak Antolatze Lurralde Plan Sektorialaren arabera, 0 mailakoa da erreka hori; beraz, 10 m-ko babes-tartea ezarri behar da eraikin berrietara arte. LPSean adierazten da, halaber, babes-tarte horrek gunen ahiko zabala bermatu behar duela eraikinaren eta ibaiaren artean.

LPSak esandakoa aintzat hartuta, Zubitxo erreka eta horren ertza Arraitokirako diseinatuko den hirigintza proposamenean sartzea proposatzen da, jarduera horrek eragin positiboa izango bailuke errekan, eta erabilera eta gozamen publikoko elementua izango bailitzateke.

- Basotxoaren kontserbazioa eta Minkura erreka-eremua integratzea Marrukene eremuan

Nahiz eta H.A.E. 13 Marrukene eremuaren kanpo kokatzen den, hostozabalen basotxo ekialdean eta Minkura erreka hegoaldean, ingurumen- interesa duten osagaiak dira, eta urbanizazio berria diseinatzeko garaian kontuan izan behar dira.

Minkura erreka-eremua, eraikin berriak eta erreka-eremuko tartek behar adinako zabalera izaten saiatuko da, ertzen babesa ziurtatzeko eta landaredia naturalaren berreskuratzea ahalbidetuz.

Basotxoari dagokionez, urbanizazio berriaren lan-fasean bereziki, landarediari eragin dakioken kalteak saihestuko dira. Horretarako, lanetik urbil dagoen basotxo era egoki batean mugatuko da, eta, behar izanez gero, zuhaitz ale kalteberenak babestuko dira. Urbanizazio diseinuan basotxo hau kontuan hartu beharko da, bere integratzea eta hiri-eremutik balio naturala duen enklabe honetarako transizio egoki baten diseinua egiten saiatuz.

- Kutsatuak egon daitezkeen lurzoruetan ezarri beharreko neurriak

H.A.E. 14 Algeposa 1, H.A.E. 13 Marrukene, H.A.E. 26 Arraitoki, H.A.E. 27 Larrañaga eta H.A.E. 18 Maintzine Mendebaldea eremuetan *Lurzorua kutsa dezaketan jarduerak edo instalazioak izan dituzten edo dituzten lurzoruen inbentarioan (165/2008 Dekretua, irailaren 30ekoa)* dauden lurzoruak aurkitu dira.

Lurzoru hauetan, beraz, *Lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko otsailaren 4ko 1/2005 Legean* adierazitako ezarri beharko da. Besteak beste, lurzoruaren sailkapenean aldaketarik planteatzen bada, honen kalitatearen adierazpena egin beharko da, esandako Legearen 17.5 artikuluan azaldu bezala, sailkapen berriaren behin-betiko onarpena baino lehen.

8.6.2 Beste neurri babesle eta zuzentzaile orokorrak

Natur baliabide baliotsuenak babesteko beste neurri orokor batzuk ere sartu dira, bai eta gerapen berrietako hiri-ingurumena hobetzeko neurriak ere

8.7 PLAN OROKORRAREN EFEKTUAK IKUSTATZEKO PROGRAMA

Jarraian zehaztuko dugun Ikuskatze Programaren helburu nagusia da Plan Orokorra zuzen aplikatu izana, eta inpaktuak arintzeko eta zuzentzeko proposatutako neurriak aintzat hartu izana egiaztatzea. Azken batean, Arauak abian jartzeak aurreikusitako eta onartutako ingurumenaren gaineko eraginez kanpokorik eragiten ez duela ikustea.

Ikuskatze Programa hau Plan Orokorra garatzeko faseek (plan partzialak, plan bereziak, urbanizazio eta eraikuntza proiektuak...) iraun bitartean egongo da indarrean, eta kasu bakoitzean aurreikusi beharko da horren aplikazioa bermatzeko beharrezko aurrekontua.

8.7.1 Ikuskatze programaren helburuak

- Lezoko Plan Orokorren helburu eta ebazpenak betetzen direla bermatzea.
- Neurri zuzentzaileak beteko direla bermatzea, eta horien eraginkortasunaren jarraipena egitea, emaitzak aurreikuspenetatik urrunduz gero beharrezko neurriak hartu ahal izateko.

8.7.2 Ingurumen aldagaien identifikazioa eta jarraipen metodologiaren deskripzioa

- Lurzoru kontsumoa

- Lurzoru urbanizaezinaren kontsumoa

(Lurzoru kontsumitua/ udalerraren azalera osoa) X 100

Kalkulu hori bera egingo da balio agrologiko handiko lurzoruaren azaleraren gainean, lurzoru urbanizaezina baino baliabide mugatuagoa baita hori.

- Lurzoruaren erabileraren intentsitatea

Jardun-eremuetako etxebizitza edo industria-aprobetxamenduen dentsitatea kalkulatu da. Legeak ezarritako gehieneko okupazioaren indizeak betetzen direla egiaztatuko da.

(Udalerriko biztanle kopurua/lurzoru kontsumitua) X 100

- Mugikortasun iraunkorra

(Bidegorri azalera/garraio azpiegituretarako udal azalera) X 100

- Landaredia autoktonoa eta habitat naturalak

Jardun-eremuko landaredi autoktonoa identifikatuko da. Horien gaineko kaltearen jarraipena egingo da, eta aurrez eremu bakoitzerako identifikatutako interes handiagoko masei (lehentasunezko interes komunitarioko habitatak, hostozabal basoak, ibarbasoak...) ez zaiela eragiten ikusiko da. 6. atalean deskribatutako

landaredi autoktonoaren eta habitat naturalen inguruko neurri zuzentzaile eta konpentsatzaileak aplikatu izana egiaztatuko da.

- Ibaietako habitaten kalitatea

Ibai-ibilguen jarraipen berezia egingo da, uren kalitate fisiko-kimikoa eta ibaiertzen kalitate ekologikoa konprobatuta. Horretarako, EAeko Lur Azaleko Uren Kalitatearen Jarraipena egiteko Sarean erabilitako Eusko Jaurlaritzaren indize eta parametroak (BMWP indizea) erabiliko da.

- Korridore ekologikoa

Korridore ekologikoko lur artifisializatuaren azalera kuantifikatuko da, eta jardun-eremuetako gunek libreak eremu hori babesteko erabiltzen direla egiaztatuko da.

- Paisaia

Paisaiari dagozkion neurri zuzentzaileak aplikatzen direla egiaztatuko da, landare pantailak jartzen direla batik bat. Eremuko urbanizazioa orografiara egokitu ote den ere ikusiko da.

- Airearen kalitatea

(Elementu kutsagarrien maila altua jasaten duen populazioa/populazioa guztira) X 100

- Zarata

“Lezoko zarata ebaluatzeko plana” erabiliko da oinarri gisa, eta aldagaiak alderatuko dira; batez ere, ibilgailuen zirkulazioaren eragin gehien duten eremuetan, edo Plan Orokorrean edo bestelakoetan proposatutako jardueren ondorioz eragin hori izan dezaketenetan.

Adierazle hau erabiliko da:

(Gomendatutakoak baino soinu handiagoak jasaten dituen populazioa /populazioa guztira) X 100

- Hondakin-sortzea

Lanek iraun bitartean nahiz ustiapen fasean sortutako hondakin kopurua kuantifikatuko da. teko Bi aldi horietan gaikako bilketa egiteko sistemak jarri izana egiaztatuko da, eta kontrolik gabeko isurketarik agertzen ez dela konprobatuko da.

Honako adierazle hau erabiliko da:

Sortutako hiri-hondakinak/ biztanle eta eguneko (kg/biz./egun)

9 ERANSKINAK

- 1go ERANSKINA. AZTERTUTAKO INGURUMEN ALDAGAIK
2. ERANSKINA. BALIO HANDIENeko NATUR BALIABIDEAK BABESTEKO NEURRI BABESLE ETA ZUZENTZAILEAK
3. ERANSKINA DOKUMENTAZIO GRAFIKOA (beste dokumentu batean)
- 1go Planoa.** INGURUMEN BALDINTZATZAILEAK I (eskala 1:10.000, A1)
 - 2. Planoa.** INGURUMEN BALDINTZATZAILEAK II (eskala 1:10.000, A1)
 - 3. Planoa.** INGURUMEN BALDINTZATZAILEAK III (eskala 1:10.000, A1)
 - 4. Planoa.** ARRISKU MAPA (eskala 1:10.000, A1)
 - 5. Planoa.** EREMU HOMOGENEOAK (eskala 1:10.000, A1)

Errenteria, 2009ko azaroa

Estela Beteta Merino
Ingurugiro Zientzietan Lizentziatua

Leire Beteta Merino
Ingurugiro Zientzietan Lizentziatua